



Udal ordezkari,
Debagoienetik
kanpo

Josu Idigorasi
elkarrizketa,
suhiltzaileen lanaz



MONDRA & ROLL, PUNK-ROCK MUSIKAREN TOPAGUNE

Arrasateko Monterron parkeak Mondra & Roll jaialdiaren lehen edizioa hartuko du gaur eta bihar; punk-rock eta oi! musika estiloetako hamabi talde izango dira agertokian / 40

Monterron parkean
jaialdirako azken ukituak
ematen atzo arrasaldean.

XABIER URZELAI

Ainize Lizarralde antzuolarra, 'Conquis' lehiaketako irabazlea, "ezin sinetsirik" oraindik / 19



'Ongi etorri baserrira!' ekimena Aretxabaleta eta Antzuolako baserri banatan zapatuan / 3



COVID-19 kasuek gora egin dute eta otsaileko datuetara eroan dute Debagoiena / 4

ANTZUOLAKO JAIK 2022 / 21

SINADURAK

IÑAKI UGARTEBURU / 6

AMAIA EROSTARBE LETAMENDI / 34
ANE ZUAZUBISKAR / 48

VOLKSWAGEN ID4 ELEKTRIKOĀ

TEKNOLOGIA ETA ETORKIZUNA

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 16 70

Hemen garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORLATZA
T.- 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

Aste oso bat mikrofono, kamera eta lagun artean

II. Komunikazio Campusa iritsi da bukaerara. Zazpi gaztek aste osoa eman dute komunikazioaren baitako alor guztietan murgilduta: bideogintza, argazkilaritza, sare sozialak, podcastak... Balorazio ona egin dute parte-hartzaile nahiz koordinatzaileek

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Gaur, egubakoitza, bukatuko da Mondragon Unibertsitateak eta Goiena Komunikazio Taldeak antolatutako Komunikazio Campusa. Bigarren edizio honetan zazpi gaztek hartu dute parte, eta ikus-entzunezko eta kazetaritzaren alorrean adituak diren profesionalen saioak jaso dituzte. Gaurko saioan, aste osoan landutakoa borobilduko dute, haien bideo-podcasta sortuta.

Dagoeneko pozik agertu dira irakasleak eta ikasleak. Konturatu orduko asteak "hegan" egin duela kontatu du Xabier Urzelaik, Goienako kazetari eta ekimenaren koordinatzaileak: "Taldea txikia izateak erraztasun handiak eman ditu ariketak egin eta materiala partekatzeke. Goizak oso dinamikoak izan dira eta parte-hartzaileen artean harremana estuagoa izan da".

Erpin guztiak landuta

Lehenengo egunean, parte-hartzaileek bideoak egin zituzten haien burua aurkezteko, eta kameralari eta aurkezle lanak ere egin zituzten; baita bideo-edizioa ere. Martitzenean, berriz, Goienara egin zuten bisita, eta bertan ekoizten diren produktuak ikusteaz gain, magazin bat ere egin zuten telebistako platoon. "Chroma erabili zuten eta zuzeneko konexioak egin zituzten", gehitu du Urzelaik. Fotokazetaritzaren munduan ere murgildu ziren bigarren saioan.


Hirugarren egunean, Gazteko esatari Ainhoa Vitoriaren bisita izan zuten gazteek, eta haren eskutik, podcasten mundua ezagutu zuten. Hain zuzen ere, eguaztenean hasi ziren euren ekoiztu duten podcasta egiten. Hurrengo egunean, egunean, Alex Padilla sare sozialetan adituarekin izan ziren gazteak. "Bezperan hasi eta gaur aurkeztu behar dituzten podcast horiek sare sozialetan zelan



Komunikazio Campuseko bi parte-hartzaile, podcasta grabatzen. IDOIA LAHIDALGA

GAUR, CAMPUSAREN AZKEN EGUNEAN, ASTEAN LANDUTAKO BIDEOPODCASTA AURKEZTUKO DUTE

promozionatu azaldu zien Padi'llak", argitu du koordinatzaileak. Bukatzeko, aurreratu bezala, bakoitzak bere lana amaitu eta aurkeztu beharko du gaur, eta astean zehar egindako ariketen emaitzak ere ikusiko dituzte.




IZADI OROBENGOA
CAMPUSEKO IKASLEA

"Komunikazioarekin lotutako ikasketak egitea nuen buruan, eta campusari esker nire etorkizuna argiago ikusten dut. Oso interesgarria izan da".

Balorazio positiboa egin dute

Campusaren koordinatzaileek, Mondragon Unibertsitateko Unai Portillak eta Goienako Xabi Urzelaik, "oso gustura" geratu direla azaldu dute. "Gazteek, entretenituta ibiltzearekin batera, aste emankorra izan dute, eta komunikazioaren barruko askotariko arloak ezagutu dituzte. Ez dakigu etorkizuneko ikasketak biderratzeko baliagarria izango zaien, baina gustura ibili badira, ez da gutxi!", adierazi du Urzelaik.



UNAI GARCIA
CAMPUSEKO IKASLEA

"Niretzako berriak diren gauzak ikasteko eta egiteko aukera izan dut aste honetan. Batez ere, alderdi teknikoak izan da interesatu zaidana".



Alexander Barandiaran koordinatzailea, Eskoriatzako fakultatean. U. I. L.

Liburuak alboratu eta ikasgelan esperimendatzeko gonbidapena

'Biziberritu' proiektuaren proba pilotua eginda, beste pauso bat emateko prest daude koordinatzaileak

U. I. L. DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak badarama denbora bat esperimendazioaren gainean hausnartzen eta hezkuntzan estrategia hori baliatzeak dituen onurak aztertzen. Alexander Barandiaran eta Larraitz Esnaola irakasle eta ikertzaileek liburu bat argitaratu zuten iaz urtarrilean *-Esperimentazioan sakonduz biziberritu* izenekoa-, eta, aurrean, beste urrats bat egin dute: hainbat enpresak soberan duten materiala bildu eta ikastetxeetara eraman dute, haurrek beste euskarri batzuekin "gozatu" eta "ikasteko".

Proba, zortzi ikastetxetan

Gipuzkoako zortzi ikastetxek hartu dute parte proba pilotuan; beste modu batera esanda, guztira, 1 eta 12 urte bitarteko 150 haur murgildu dira egitasmoan. Bestetik, bost kooperatiba izan dira material soberakinak eman dituztenak: Kiro Grifols, Fagor Elektronika, Ternua, Irizar eta Orbea. Alexander Barandiaran koordinatzaileak azaldu du "askotariko materiala" dela haurren eskura jarritakoa: "Orbeak bizikleten piezak eman dizkigu; Ternuak, oihalak eta haria biltzeko euskarriak; Irizarrek, berriz, autobusetako aire giro-tuen piezak".

Bestetik, hezkuntzaren esparruari dagokionez, esperientzia "oso aberatsa" izan dela azpimarratu du: "Inoiz ikusi gabeko material hori eskuetan izatean,

zientzian gertatzen diren fenomenoetara gerturatu dira. Modu askean esperimendatu dute, eta, horrela, sormena asko garatu dute. Jolasa ere oso aberatsa izan da, eta harremanak modu egokian egin dituzte".

Esperientziak partekatuta

Proba pilotuan izandako esperientziak partekatzeke, ekainaren 20an jardunaldiak egin zituzten Eskoriatzako fakultatean. Barandiaranek azaldu duenez, esperimendazioaren fenomenoak "hiru erpinetatik" aztertu zuten; zientzia, sormena eta jolasa izan zituzten berbagai. Balorazio positiboa egin zuten koordinatzaileek eta irakasleek, eta "bidean jarraitzea" adostu zuten.

Bailaran txertatzeko asmoa

Barandiaranek adierazi du udalekin, momentu honetan, ikastetxeekin eta elkarteekin harremanetan jartzen ari direla "gaia dimentsionatzeko": "Erakundeekin elkarlanean jardun nahi dugu, eta esperientzia pilotua Debagoienara zabaldu. Asmoa da bertako ikastetxeekin batera gure proiektua eraikitzea eta kooperatibek emandako materialek eman ditzaketen aukerak aztertzea".

KOOPERATIBEK SOBERAN DUTEN MATERIALA EMAN DUTE ESKOLETAN ERABILTZEKO



Julen Abasolo, etxaldeko behiak laztantzen. U. I. L.

Landaren eta hiriaren arteko lotura sendotzen

'Ongi etorri baserrira!' ekimena egingo dute gaur eta bihar Bizkaiko eta Gipuzkoako 30 bat baserritan; tartean, Debagoieneko bitan. Nekazariak ateak zabalduko dizkiete herritarrei, baserrira joan eta bertako lana gertutik ezagutu dezaten

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

ENBA Nekazaritza Elkartek sustatutako ekimena da *Ongi etorri baserrira!* 2014an abiatu zen, eta, pandemiaren ostean, indartuta itzuli da berriz. Gipuzkoako eta Bizkaiko 30 bat baserrik zabalduko dituzte ateak, gaur eta bihar goizean. Horietako bi bialarakoak dira: Antzuolako Lamariano Azpikoa eta Aretxabaletako Areantza Etxebarri.

Nekazaritza elkartek azaldu duenez, hainbat helburu ditu ekimenak: baserriaren eta hiriaren arteko zubiak eraikitzea; kontsumitzaileak baserriarrarekin harremanetan jartzea; elikagaiak ekoizteko moduak eta horiek babesten dituzten markak ezagutzea; eta baserriarren lanari balioa ematea.

Areantzakoak, estreinakoz

Aretxabaletako Areantza Etxebarrikoak lehenengo aldir parte hartuko dute baserrien eta etxaldean ate irekien ekimenean. Julen Abasolo bertako abeltzai-

nak azaldukoaren arabera, horrelako egitasmoak "garrantzitsuak" dira nekazarien lana ikustarazteko eta herritarrek landa eremura gerturatze. "Kalearen eta baserriaren arteko tartea gero eta handiagoa dela ikusten dugu; arrakala handia dago", dio Abasolok. Horri lotuta, adierazi du gutxi direla elikaduraren gaineko hausnarketa egiten dutenak: "Jende gutxi galdegiten dio bere buruari ea nondik datozen kontsumitzen dituen elikagaiak, nola dauden ekoiztuta, nork eta non egin duen lan hori... Horregatik iruditu zaigu ondo egitasmoan parte hartzea".

Gaur eta bihar goizean joango dira herritarrek auzoaren izena hartzen duen baserrira –aurrez izena eman behar izan da webgunean–. Abasolok zehaztu du euren eguneroko dinamika erakutsiko dietela bisitariei: "Azalduko dugu nola iritsi garen gu lanbide honetan jardutera. Beste modu batera esanda, gure

istorioa kontatuko dugu: nola egiten dugun lan, zein den gure egoera profesionala, nola ikusten dugun nekazaritza eta abeltzaintzaren etorkizuna... Eta bitartean, gure behiak eta txahalak ere erakutsiko ditugu; esne ona nola ateratzen dugun, azken finean".

Hain zuzen ere, esnari lotuta, Aretxabaletako abeltzainak bialarara zabalduko hausnarketa egin du: "Bailaran jende asko bizi da, eta hiru esne ekoizle bakarrik gaude. Gu ez gara iristen debagoiendar guztiak asezteko lain ekoiztera, baina hemen gaude. Militante jakin batzuk eta beste hainbat herritar kenduta, ordea, jendeak supermerkatuan erosten du. Horregatik, besteak beste, egiten digu ilusioa

DEBAGOIENKO BI BASERRIK HARTUKO DUTE PARTE ATE IREKIEK EGITASMOAN ASTEBURU HONETAN

aurten parte hartzeak; jendeak hemen gaudela ikusiko du".

Edukiera beteta Antzuolan

Antzuolako Lamariano Azpikoa baserrikoek ere zabalduko dituzte ateak. Bigarren aldira dela kontatu du Txomin Alberdi nekazariak: "Oso esperientzia ona izan zen azken edizioa. Donostiako hiritarrak etorri ziren; landa eremuarekin lotura handirik ez duen jendea. Gauzak horrela, errepikatzea erabaki dugu".

Bete egin dituzte gaurko eta biharko txandak: guztira, 62 lagun jasoko dituzte Antzuolako baserrian. "Bisita gidatua egingo dugu. Asmoa da nortzuk garen azaltzea eta, batez ere, ardiekin nola lan egiten dugun erakustea: nola jezten ditugun, zer ematen diegun jateko, non egoten diren... Ondoren, gaztandegira joango gara, lekua ikustera eta egiten ditugun gazta motak ikustera", azaldu du Alberdik. Horrez gain, gaineratu du gazta dastatzeko aukera ere izango dutela bisitariek.

Aretxabaletarrak bezala, ekimena "aukera ona" dela uste du antzuolarrak. "Gu eta guk egiten duguna ezagutzeko aukera aparta da. Kontsumitzaile bezala ere, zerbait jan edo edaten dugunean nola eginda dagoen jakin nahi izaten dugu".

Joera aldaketarik ez

Pandemiaren ostean jendea landa eremura gerturatu dela esaten da –hala erakutsi zuten landetxe eta landa eremuko turismo aukerak ere–, baina, Abasolok eta Alberdik esandakoa kontuan hartuta, ez da horrela. Biek adierazi dute. Paseoan bai, etortzen dira, baina, osterantzean, ez.

Indartzen joan den egitasmoa

Duela zortzi urte jarri zen mar txan *Ongi etorri baserrira!* proiektua, eta zortzi izan ziren ateak zabaldu zituzten baserriak ere; guztira, 90 bisitari jaso zituzten lehenengo edizio hartan.

Geroztik, zenbatekoak handitzen joan dira, eta azken edizioan, 2019an, 36 baserrik eta 850 bisitari hartu zuten parte. Aurten edizioan, antolatzaileen esanetan, askotariko azpisektoretakoak eta lurralde osoan sakanatuta dauden baserriak daude. Ziur daude ekimenak harrera ona izango duela oraingoan ere.

Txakolin Eguna egingo da Arrasaten hilaren 16an

Uztailaren 16an, datorren zapatuan, Txakolin Eguna ospatuko da Arrasateko Seber Altube plazan. Debagoienekoak diren Belaskua, Kataide eta Murgialdai ekoizleen txakolina erosteko eta dastatzeko aukera egongo da. Erosketen tiketekin gilda bat emango dute doan, eta bost txakolin-sortaren zozketan sartuko da eroslea.

Bestetik, hilabeteko hirugarren zapatuetan egiten den ohiko azoka egongo da plazan. Bertako eta sasoiko fruta eta barazkiak egongo dira, eta baita ogia, ezitia, kontserbak eta bestelakoak ere.

Langabezia-tasa jaitsi egin da, maiatzeko joerari utsita

Azken bi urteetako langabezia-tasa txikiena erregistratu da bailaran ekainean: 2.298 debagoiendar daude langabezian –herritarren %7,48–. Iazko ekaineko datuekin alderatuta, 139 lagun gutxiago daude langabezian –%8,04koa zen tasa–.

Sektoreka aztertuta, maiatz amaieran zeuden langabeetatik, ia %60 dira azken kontratua hirugarren sektorean izandakoak. Bestetik, lautik bat dira bigarren sektorekoak eta %2,56 dira soilik lehen sektorean aritutakoak. Gainerako %12ak ez du inoiz lanik izan.

Elorregi-Arrasate bidegorria moztuta egongo da gaur

Debagoieneko I-4 bidegorri sareko bi zati konponduko dituzte gaur, uztailek 8; zehazki, Elorregi eta Oñati lotzen dituen 5.919 metroko tartea eta Elorregi eta Arrasate arteko 1.703 metroko zatia.

Mantentze-lanak direla azaldu dute, eta, ondorioz, herritarrentzako itxita egongo dira bidegorriaren zati horiek, hain zuzen, 07:00etatik 15:00etara bitartean.


Bidegorriaren gainerako zati-tan lanek ez dute eraginik izango; ez Leintz bailarakoetan, ezta Elorregi eta Bergara lotzen dituen bidean ere.



KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	162	55	9.471	%43,31	998
Bergara	44	32	5.902	%40,47	513
Oñati	32	32	4.952	%43,33	563
Aretxabaleta	14	5	2.767	%38,93	266
Eskoriatza	8	6	1.643	%39,77	338
Antzuola	3	8	907	%43,58	512
Gatzaga	3	0	85	%40,28	1.327
Aramaio	1	3	591	%40,59	267
Elgeta	1	0	346	%30,32	89
DEBAGOIENA	268	141	26.664	%41,66	638

OHARRA: ASTELEHENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Azken asteko positiboek otsaileko datuetara eramane dute Debagoiena

Otsaileko bigarren asteaz geroztik erregistratutako kutsatu berri kopuru handiena izan da azken astekoa; 268 positibo baieztatu ditu Osakidetzak Debagoiengan. EAEko ospitaleetan, bestalde, bikoiztu egin dira zaintza intentsiboa behar duten herritarrak

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA
Maiatz bukaeratik hona, eten-gabe egin dute gora astero erregistratutako koronabirus kasuek Debagoiengan. Ekainaren 27tik uztailaren 3ra bitartean 268 positibo zenbatu ditu Osakidetzak; otsaileko bigarren asteaz geroztik erregistratutako zenbateko handiena da.

Gorakada hori, baina, ez da soilik eskualdeko kontua. Omikronen "aldaera berri bat" hedatzen ari dela ohartarazi du aste honetan Ugo Mayor EHUKo eta Ikerbasqueko ikertzaileak, eta gaineratu du aurretik omikronekin kutsatu zirenak –urte hasieran, pandemiaren seigarren olatuan, erregistratu zen zenbateko handiena– "berriz ere" kutsatzen ari direla.

Debagoienara etorrira, Arrasaten hauteman dira kasu gehien; hirukoiztu egin da zenbateko aste batetik bestera: 55etik 162ra. Sanjuanen eragina den edo ez ezin da zehatz jakin, baina datuek erakusten dute ekain bukaeran jaiak izan diren gainerako herrietan ere nabarmen egin dutela gora kasuek.

Intzidentzia-tasa, 600etik gora
Beste modu batera esanda, %90 egin dute gora eskualdeko positiboek azken astean. Horrek eragin du intzidentzia-tasa 600etik gora kokatzea; zehazki, 638,99koa da. Maiatz erdialdean erregistratu zen 600etik gorako tasa azkenengo aldiz.

Esan bezala, Arrasate da positibo gehien batu dituen, bai-

na, era berean, nabarmentzekoak dira Aretxabaleta –5etik 14ra igo baitira kasuak– eta Leintz Gatzaga. 50 egunean positiborik atzeman gabe egon ostean, hiru kasurekin 1.000tik gora kokatu da gatzagarren tasa.

Iaz, garai berean, Osasun Sailak emandako datuak honako hauek ziren: 46 positibo erregistratu ziren 2021eko ekainaren 27tik uztailaren 3ra Debagoiengan –aurten baino 222 gutxiago– eta intzidentzia-tasa 81,24koa zen. Gainera, esan behar da Osasun Sailak beste era batera zenbatzen dituela positiboak orain; soilik laneko baja behar dutenei, hala eskatzen dutenei edota larri dauden gaixoei egiten zaie proba ofiziala. Hau da, gaur egun, kutsatutako pertsona batek ez

dio nahitaez bere egoera jakinarazi behar Osasun Sailari.

ZIUetako okupazioa, gora

Positiboen zenbatekoak alde batera utzita, egun, erietxeetako datuek ematen dute egoeraren argazki zehatzagoa. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ospitaleei dagokienez, bada datu adierazgarri bat aste honetan: ia bikoiztu egin da zaintza intentsiboa behar duten herritarren zenbatekoa. Hamar eta hamabi lagun egon dira azken asteetan ZIUan, baina azken astean 23ra igo da okupazioa. Era berean, plantan daudenak ere gehiago dira: 500 ospitaleratuen langa gairitu da. Otsailaren 16tik muga hori gairitu gabe zen, eta orduan, gainera, Hego Euskal Herri osoko datuak zeuden batuta.

Sei kasu adinekoen egoitzetan

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuen arabera, azken astean lau positibo atzeman dira Aretxabaletako Debagoiena egoitzan eta bi Oñatiko San Martinen. Gora egin dute egoitzetako kasuek, oro har –Gipuzkoa osoa kontuan hartuta, 30etik 91ra egin dute kasuek bi astean–, baina esan behar da aurreko astean baino bat gutxiago erregistratu dela Debagoieneko egoitzetan. Gainera, sendatutako egoiliarrek hamaika izan dira. Bestetik, azpimarratzeko datua

da, bailaran, Aste Santutik hona ez dela egoiliarrik zendu koronabirusaren eraginez.

Zuhurtziaz jokatzeko deia

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak oharra kaleratu du kasuen gorakada dela eta. Udaldian "interakzio sozialak ugaritzearekin bat", kutsatzeko aukerak ere areagotu egiten direla adierazi dute, eta zuhurtziaz jokatzeko mezua helarazi du, beste behin: "Azken asteetan gora egiten ari da diagnostikatutako kasuen kopurua, baita koronabirusaren eraginez ospitaleratutako kopurua ere (...) Gauzak horrela, zuhurtziaz jokatzeko dei egiten diegu, batez ere, egoera bereziki zaurgarrian daudenei, 60 urtetik gorakoei, immunoeskasia duten pertsoniei eta haurdun dauden emakumei".

Positiboen gorakadaren zergatiak aztertzeke, Ugo Mayor ikertzaileak azaldu du hainbat ertzi erreparatu behar zaiela. Alde batetik, birusak "eraldutzen" jarraitzen duela azaldu du eta "gorputzarentzat birus berri bat" dela: "Aurrez kutsatu izanak ez du babesik ematen aldaera berriarren aurrean". Bestetik, txer-toen eraginkortasuna ere izan du hizpide: "Txertoek babes handia eman digute, baina eragina beheraka doa". Horri gehitu dio zenbait espazio itxitan ez dela aireztapen egokia bermatzen.

Datorren Hezkuntza Lege berria, eragileei azaldua

Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburua eta Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuordea Arrasaten egon dira, bertako EAJk antolatuta, apirilean Legebiltzarrean aho batez onartutako akordioaren berri ematen: "2023-2024ko ikasturtean abiatu nahi dugu legea"

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Arrasateko EAJk antolatuta, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak eta Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburuordeak hitzaldia egin dute Kulturaten. Apirilean Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Lege berriaren oinarrien akordioa sinatu zuten Legebiltzarreko alderdiek, eta akordio horren nondik norakoak azaldu dizkie Bildarratzek herritarrei eta hezkuntza esparruan aritzen diren eragileei. Besteak beste, Legebiltzarra osatzen duten alderdiek testuari emandako babes zabala goraiatu du Hezkuntza sailburuak: "Alderdi politikoen artean egonkorra izan zitekeen adostasuna lortzea lehenetsi genuen, eta hori da apirilaren 7an lortu genuena, Legebiltzarren %90k baino gehiagok babesa eman baitio gure proiektuari".

Ikaslea "erdigunean"

"Hezkuntzarako momentu interesgarria bizi dugu", gaineratu du, 30 urteren ostean, Erkidegoan Hezkuntza Lege berri bat onartzeko baldintzak betetzen ari direlako. Eguneratutako curriculumak nolakoa izan behar duen erabakitzeke, Finlandiako hezkuntza eredua aztertzen ari dira bertatik bertara, eta euskal komunitateko hezkuntza eragileekin ere bilera ugari egin dituzte, ahalik eta ekarpen gehien jasotze aldera. Hala, sei ardatzetan oinarritutako modelo garatzea da asmoa –ikaslea, ikastetxea, hizkuntza, irakaslea, gobernantza eta eraldaketa pedagogikoa–. "Jarrerak, ohiturak eta beste lan egiteko modu batzuk sustatu gura ditugu, proiektutan banatuta, ikasleentzat baliagarria izan dadin eguneroko bizitzan beraien ikasgeletan ikasten dutena", azaldu du Bildarratzek.

Era berean, tokiko batzordeak sortu nahi dituzte herri bakoitzeko errealitatea kontuan har-



Pedrosa, eserita, eta Bildarratz, zutik, Kulturaten eginitako aurkezpenean. H.L.

EUSKAL IKASLEEN CURRUCULUMAREN %50 ERABAKIKO DU JAURLARITZAREN HEZKUNTZA SAILAK

tuta. Ikastetxeetan dagoen aniztasunaren gorakadari erantzun-go liokete talde horiek: "Aniztasun mota guztien ordezkaririk batu eta zaurgarritasun egoerei modu orekatuan erantzuteko misioa izango lukete tokiko batzordeek, egoera horiek toki bakoitzean modu desberdinean kudeatzea saihesteko".

Hitzaldian zehar herritarrek euren zalantza eta galderak plazaratu dituzte, gehienak eskola publikoen eta itunpeko eskolen plaza kopuru zein eskaintzen arteko desberdintasunekin, behin-behineko irakasleek eskolak emateko egiten dituzten lekualdaketekin eta ikasgeletako ratioen gaineko kontuekin lotutakoak. Erantzunerakoan, bai Bildarratzek eta bai Pedrosak nabarmendu zuten Hezkuntza Lege berriak alor horiek hartuko dituela kontuan.

"Gobernuz gaindikoa"

Horrekin batera, Hezkuntza Lege berria gobernuen gainetik egongo den proiektua izatea nahi du Eusko Jaurlaritzak. Izan ere, Espainian zortzi lege desberdin egon dira indarrean azken 40 urteotan, eta bederatzigarrena, LOMLOE izenekoa, datorren ikasturtean jarriko dute indarrean. Beraz, euskal hezkuntzarako onartu duten akordioa testuinguru horretan kokatzen da. "Hezkuntza Legea 2023-2024ko ikasturterako martxan jarzea espero dugu; Espainiak guri curriculumaren %50 definitzen digunez, beste %50a landu dugu guk, hainbat profesional eta irakasleekin curriculum hori geureganatu eta gurea eginez", adierazi du Bildarratzek.

Datu esanguratsu batzuk

Hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak kudeatzen dituen ikastetxeak 1.220 direla aipatu du, "hasi Musikenetik eta Gomiztegiko artzain eskolaraino". Bestalde, hezkuntza zentroetan euskaraz ikastea ahalbidetu zuen Euskararen Legea sortu zenetik, 1982tik, 300.000 hiztun irabazi ditu euskaraz.



Kiliki eta Flaco, zuzenekoan ematen, Astoreko jantziak soinean. ASTORE



Astoreren arropa jantziko dute Chill Mafiakoek udan zehar

BBK Live, Rototom eta halako jaialdi handietako oholtzetara eramango dute iruindarrek Astoreren ikurra

H.L. DEBAGOIENA

Euskal eszenan arrapaladan sartu zenetik, Chill Mafia musika talde urbanoak bailarako arropa markagatik sentitzen duen miresmena azaleratu izan du. Hortik abiatuta, sintonia onean garatu dituzte harremanak bi aldeek, eta orain, lan-kidetza-akordioa sinatu dute. Hala, Astorek kultur ekitaldietara egingo du jauzia, kantxetan eta joko-zelaietan presentziarik galdu gabe.

"Antzeko nortasuna"

Astoretik adierazi dute Chill Mafia "haize freskoa" dela: "Gaur egungo musika urbanoarekin eta gazteen kultur mugimendurekin lotzen gaituztelako eta, gainera, tradizioaren eta euskal nortasunaren balioak sustatzen dituztelako".

Ezaugarri horiek arropa markaren "DNAn" daudela gaineratu dute. Hargatik, elkarren arteko harremanak aurrera egitea eta, are gehiago, "etorkizunean edizio mugatuko jantziren bat elkarlanean diseinatzea" espero dute.

Estilo propiokoak

Sorkuntza musikalekin egiten duten moduan, arropari ere estilo pertsonalizatua gehitu diote Chill Mafiako kideek. Ekain hasieran Bartzelonako Primavera Sound jaialdian erakutsi zuten moduan, elementu grafikoak josi dituzte kamisetak eta prakak. "Denboraz kanpoko ildo estetikoak hausteko asmoarekin, diseinu

konbentzionalak albo batera utzi eta arriskatu egin nahi izan dute, diseinu oldarkoragoak erantsiz arropari", azaldu du Astoreko prentsa bulegoko Nora Garayk.

Emaitza zerbait gogorra baina aldi berean leuna dela gehitu du: "Oldarkortasuna lortzeko, eztenak eta tribalak nahasten dituzte, baina, aldi berean, gulari txiki batzuk dira, beren nortasun maitagarriarekin".

Milaka ikusleren aurrean

"Euskal giroa hankaz gora jarri duen diziplina askotariko kolektibo" gisa definitzen du Astorek Chill Mafia. Gaur bertan BBK Live jaialdian hartuko dute parte iruindarrek, Kobetamendin. Abuztuaren erdialdean Benicasimen arituko dira, Rototom reggae jaialdian, hain zuzen. Bi horiek dira esku artean dituzten hitzordurik garrantzitsuenak, ikus-entzule gehien erakarriko dituztenak direlako. Hortaz, askok deskubrituko dute kirol munduan ezaguna den hegaziaren marka oholtza gainean lehen aldiz. Horrek pozez betetzen ditu bailarako arropa marka osatzen duten kideak, "gutxiengo handi bat mugiaraztea" baitute xedetzat.

ETORKIZUNEAN EDIZIO MUGATUKO JANTZIREN BAT DISEINATZEA GUSTATUKO LITZAIKE



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

Pilotarien prestakuntza fisikoa

Uztailaren 3an Elgetan aukera izan nuen lehen mailako pilotariak zuzen-zuzenean ikusteko.

Laso, Artola, Peña, Imaz, Mariezkurrena eta Jaka bertatik bertara ikusteko parada izan genuen. Izugarriko planta dute, tamaina ederra eta soberako koiperik ez.

Partidua ikusirik, ikaratzekoa da zein abiadura eragiten dioten pilotari eta nola ailegaten diren frontoiko bazterretara.

Saso betean daudela esan dezakegu.

Urtean zehar partidu dezente ikusi ditut, asko binakako txapelketakoak ere bai, eta nabaria izan da, partidua luzatu denean, pilotariak arazoak izan dituztela; kalanbreak eta giharretako beste arazo batzuk, adibidez.

KURIOSO EGITEN ZAIT PILOTARI PROFESIONALAK GIHARRETAKO ARAZOEKIN IKUSTEA

Usobiagak 2003an argitaratutako lanean zioen binakako partidu baten iraupena, batez beste, 67 minutukoa dela, eta pilotari bakoitzak, media moduan, 187

pilotakada ematen dituela.

Beharbada, gauzak zerbait aldatu dira azken hogeitau urteetan eta zenbakiak handiagoak dira, baina kurioso egiten zait pilotari profesionalak giharretako arazoekin ikustea.

Kirol gogorra dela esan dezakegu, are eta gehiago, banaka jokatzu gero, baina non dago sekretua?

Ohituta gaude bi, hiru edo lau orduko tenis partidua ikustera, egun batzuetan bi partidu ere jokatzu dituzte, eta hauen kasuan giharretako arazoak, agertzekotan, beranduago agertzen dira.

Jakin badakit ez dela berdina tenisa eta eskupilota, baina prestakuntza fisikoan, hidratazioan, janarian zerbait hobetzeko modua egon daitekeela etortzen zait burura.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Garbienak, gu

ARANTXA URRETABIZKAIA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ziur aski, zu eta biok, irakurle, ez geundeke guztiz ados politikaren munduan ezkerra non hasten den eta non bukatzen den erabakitze orduan.

Beraz, datozen lerroetarako utz dezagun kontua bere horretan.

Zuk erabaki zertaz ari garen ezkerria aipatzerakoan.

Baina xehetasunak xehetasun, gauza bat frogatu du ezkerria, gurean eta hemendik kanpo: zatiketarako trebetasun paregabea.

Lege biologiko baten zorroztasunez, organismoa

hainbat zeluletara heltzen denean, zatikatu egiten da erremediorik gabe eta beste organismo bat sortzen da, handik aurrera hasierakoarengandik urrutiratu egingo dena.

Aldendu eta "garbitu". Sortu berri den erakundea jatorrizkoa baino garbiagoa izango da, benetakoagoa, guztiz nahasgabea.

Gu gara garbienak, besteek interes ezkutuak dituzte eta guk ez, gu garbi hutsak gara, orbainik gabeak.

Izenik aipatu gabe irudika ditzake politikaren eta herri mugimenduen munduan interes apurra duen edonork fenomeno horren adibideak inguruan. Eta ez alderdi

politikoetan soilik, madarikazio biologiko horrek ez baititu barkatzen herri mugimenduak.

Horregatik da zatikeria aurrerakoen etsairik handienetakoa.

Gaur bertan ikus ditzakegu madarikazio horren zantzuak gazte mugimenduetan edo feminismoan.

Horregatik da hain mirengarria madarikazio horri amore eman ez dion erakundea.

Bizia da arriskua, baina zatikeriarako joera ez da berezkoa, ez da biologikoa.

Saihets daiteke, zaila bada ere egin diezaiokegu kontra joera horri.

Teorian behintzat.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Osakidetzako altxorra**MAIDER ETA GAIZKA LARRAÑAGA
LEUNDA**LOLI LEUNDAREN SEME-ALABAK
BERGARA

Gure amak azken egunak Gasteizko Txagorritxun eman ditu. ZIU'n lehenengo eta seigarren solairuan ondoren. Bai batean zein bestean artatu gaituzten profesional guztiei gure esker onik zintzoena helarazi nahi dizuegu. Garbiketako langile, erizain laguntzaile, erizain eta medikuei. ZIUko Natiri, zure ardura eta xalotasunagatik; Juani, zure goxotasunagatik; seigarren solairuko Eiderri, izozkiagatik; eta *Thissen Baronesa*-ri, zure umore onarekin ama alaitzeagatik.

Zuen begirune, zaintza, ardura, txantxa eta maitasunak gure egonaldia arindu du. Inor gutxiesteko asmorik gabe, nola ahaztu bide honetan euskaraz hitz egin diguzuenak; zuen ahalegin txikienak ere etxe bihurtu du ospitaleko gela tristea. Genero, jatorri, zeregin eta kategorien gainetik, musukoaren atzetik zuetariko bakoitzarengandik jaso ditugun begirada konplizeetan pertsonari errespetua eta duintasuna helarazi diguzue. Zuen enpatiarekin amaren arnas bakoitza humanitatez jantzi duzue, eta *persona* hitzaren esanahia goitik behera jantzi. Amak hala sentitu zuen, baita guk ere. Guztien izenak ez ditugu gogoratzen,

baina jakizue gure bihotzetan izango zaretela betiko.

Luzaroan Osakidetza izan da gure ongizate sistemaren altxorra. Hala goraipatu izan du euskal gizarteak. Zuek zarete Osakidetzako altxorra. Lan baldintza kaskarrak, txanda amaigabeak, prekarietatea eta baliabideen mugak albo batera utziz zuen ekinaz handi bihurtzen duzelako egunez egun osasun sistema publikoa.

Osasun sistema publikoak dira ongizate estatuen sendotasunaren erakusle nagusiak. Hemengo eta hango agintariei gure eskaerarik irmoena, osasun sistema publiko eta unibertsala bermatzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideez hornitu dezaten. Hori ez da pribatizazioekin konpontzen, ezta langile sanitarioen soldatak azalaraziz zuritzen ere. Profesional talde ikaragarri honen premiak entzun itzazue; ozen, argi eta garbi esaten dute zer behar duten, behar dugun.

Sagardui eta Urkullu: pandemiako txaloez haratago, ez dugu "ohitura aldaketek" moztarrotutako murrizketarik onartuko; zaindu dezagun gure osasun sistema publikoaren benetako altxorra: Osakidetzako langileak, zuen esku dago horretarako baliabideak jartzea.

Betirako eskertuak.

'#Basotikzer'**JOSEBA ZUZAETA**BASO BIZIAK PLATAFORMAREN IZENEAN
DEBAGOIENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Basotik fundazioa aurkeztu du, "basoen kudeaketa jasangarrian jauzi kualitatiboa" eman nahi duela esanez.

Baso Biziak Plataformari zalantza asko sortzen dizkio adierazpen horrek; izan ere, estatutuak ez dira oraindik publikoak eta, hala ere, aurrekontuetan bi milioi zuzendu zaizkio delako fundazioari.

Indefinizio maila interesatua ikusten dugu *baso* hitzaren

inguruan; izan ere, etengabe, ustiaketa industrialari buruzko aipamenak agertzen dira horren eginkizuna definitzeko.

Jabego pribatuen lurrei begira egin nahi duten interbentzio hau zehatz-mehatz kuantifikatzen dute, baina ez da gauza bera gertatzen kontserbaziorako edota baso-babeslearen inguruan, non ez baita azalerarik aipatzen; zergatik ote?

Hauek dira gure balorazio kritikoaren puntu nagusiak:

-Basoak etekin industrialaren bidean jarri nahi dituzte, monolaborantza mantenduz, enpresa berri bat

sortuz, gerora, diru publikoarekin pribatizatzeko.

-Azalera hori kudeatzeko monopolioa sortu beharko lukete, proiektuan sartu nahi ez dutenen gainontzeko herri-ereduak hondamendira bultzatuz.

-Lurren lagapena planteatzen du jabeen partetik; jabeek ez lukete ezer egin behar, lurrak Aldundiari utzi eta urte bukaeran kontentsazio ekonomiko bat kobratu. Horrek, kudeaketan, lehen sektorearen eta baserritarren *abandonua* ekarriko luke.

"Basoen rola funtsezkoa da hondamendiak -suteak edo uholdeak- prebenitzeko edota higadura saihesteko", dio Basotikek. Arrazoi berdintsuengatik, 1994-2030eko planean 70.000 hektareatan baso-babesleak ezarri behar zirela esaten zen. Basotik fundazioak martxan jarriko al du plan hori?

"Karbonoa kontentsatzeko kredituak kudeatzea eta merkaturatzea egongo da", dio Basotikek. Balantze orokorrean, biomasa industrialera bideratutako landaketa batek ez du emaitza positiborik CO2ren borrokaren aurka.

Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diogu kontuan har ditzan egoera tamalgarri honetara ekarri gaituen monolaborantza sistemaren ardurak eta kalteak, eta bide berriak jorratu ditzala uraren, lurraren, airearen eta horri lotuta dagoen herritarren osasunaren mesederako.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrezkoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!**GARBIÑE UBEDA**



Eguaztenez egin zuten industria eta zerbitzu enpresei zuzendutako saioa, Kulturateko areto nagusian. E.A.

Euskaraldirako bidea hasi dute

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo dute Euskaraldiaren hirugarren edizioa, eta Arrasateko hainbat entitate lanean hasiak dira; bide horretan, AEDk antolatutako saioa izan dute, esperientziak partekatzeaz gain, ariketa sozialari nola heldu jakiteko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak *Batera, batzera* hausnarketa prozesua egin zuen iaz, eta hortik sortutako lan-ildoe-tako bat izan zen lan munduan "nolabait eragin beharrarena", Aitzol Illarramendi elkarteko kideak azaldu duenez. "Taldea bat sortu genuen eta azken urtean lantzen ibili gara nola gehiago iritsi lan mundura eta hor dauden hutsuneak edo hobetu beharrekoetan nola lagundu".

Hala, Euskaraldiaren hirugarren edizioa ere badatorrenez eta aurten ere entitateekin lan egingo duenez, aprobetxatzen ari dira biak uztartu eta enpresei deialdia egiteko ariketa sozialean parte hartzeko.

Horretarako baliatu dute, hain zuzen, aste honetan Kulturaten egindako saioa. Arrasateko hamabost enpresatako ordezkariak

egon dira solasaldian, eta horietatik lau enpresa berriak, gainera, orain arte Euskaraldian parte hartu ez dutenak. "Enpresa bakoitzak dituen beharretara eta kezketara egokituko gara. Langileak ere deitu ditugu, batzuetan behetik gorako lanak izaten direlako. Ikuspegi orokorra jaso gura dugu enpresengandik, ikusteko zertan lagundu dezakegun hemendik azarora bitartean", dio Illarramendik.

Beti dago zer hobetu

Euskarari dagokionez, azken urteetan lan munduan aurrera-

LAU ENPRESAK LEHEN ALDIZ EMAN DUTE IZENA; HORRETARAKO DEI EGIN DIETE GAINONTZEKOEI ERE

pauso handiak eman direla adierazi du, baina ezin da ahaztu oraindik bide luzea dagoela egiteko. "Beti dago zer hobetu, eta horretan saiatu gura dugu, bakoitzak bere mailan; izan ere, askotariko enpresak daude, bakoitza bere eboluzio mailarekin. Baina bai, euskararen erabilera handitzea eta sustatzea gura dugu", aitortu du.

Ariguneak, oso garrantzitsuak

Hasiera batean, Euskaraldia norbanakoetara zuzendu zen, baina bigarren edizioan entitateak ere hartu zituzten kontuan eta Illarramendik nabarmendu du hor ikusi zela ze garrantzitsua den horien parte-hartzea. "Euskaraz lasai aritzeko ariguneei garrantzia emateak indartu egiten ditu norbanakoak, eta, nolabait, erraztu egiten die euskaraz komunikatzea".

"Emaiza oso positiboak"

Jone Amonarrizek, bestalde, AZK komunikazio eta publizitate agentziaren izenean egin du berba, eta haien enpresan izandako esperientzia oinarri hartuta, Euskaraldiaren abantailak azpimarratu ditu.

Enpresa alorrean produktibitateaz berba egitean, dio euskara ez dela hor kokatzen, baina euskarak "emaitza oso positiboak" eman ditzakeela uste du, baita onura ekonomikoak ekar ditzakeela ere. "Euskararekin, galtzekorik ez dago eta, gehiago edo gutxiago, beti irabaziko dugu. Euskaraldiak hori plazaratzeko aukera eskaintzen digu kanpora begira eta, barrura begira, aitzakia bat ematen digu erabaki batzuk hartzeko".

Halaber, AZK-k, 30 urtetik gorako ibilbidean, bailarako zein Euskal Herriko bilakaera soziolinguistikoa paraleloki bizi izan duela dio. "Beraz, enpresa euskalduntzen joan da eta, era berean, haren bazkideak ere bai. Hori dela eta, euskara lanerako tresna oso garrantzitsu bat da AZKrentzat, eta, horrez gain, gure nortasunaren, identitatearen eta balioen parte inportante bat ere bada".

Errepikatu egingo dute

Maria Esquirolek Ekide enpresaren esperientzia azaldu du: "Euskaraldiak *ahobizi* eta *belarriprest*-ak identifikatzen lagundu zigun eta, ondorioz, Ekideko ariguneak identifikatu genituen, barruko zein kanpoko komunikazioan, bezeroekin, hornitzaileekin eta abar".

Adierazi duenez, Ekideko langileen %30ek eman zuten izena, baina, azkenean, langile gehiago animatu ziren euskaraz egitera. "Galdetegi bat egin genuen ondoren, eta bete zuten *ahobizi*-ek onartu zuten beti edo ia beti jardun zutela euskaraz, baita *belarriprest*-ekin ere. Gehiengoak baloratu zuen ariketak iraun bitartean euskara gehiago entzun zela euren inguruan eta esperientzia errepikatzeko prest zeudela. Beraz, aurten ere parte hartuko dugu", onartu du.


'EUSKARALDIA.EUS' WEBGUNEAN EMAN DEZAKETE IZENA; AED PREST AZALDU DA LAGUNTZA EMATEKO

Entitateek Euskaraldian parte hartzeaz




AITZOL ILLARRAMENDI
AED ELKARTEKO KIDEA

"Bigarren edizioan ikusi zen entitateek parte hartzearen garrantzia. Euskaraz lasai aritzeko ariguneei indartu egiten dituzte norbanakoak, eta erraztu egiten die euskaraz komunikatzea".



JONE AMONARRIZ
AZK KOMUNIKAZIOA

"Euskara marka eta enpresa indartzeko tresna garrantzitsu bat da. Gako estrategiko bat izan daiteke bai helburu komertzialei begira, baita taldeko barne kohesioa bermatzeko ere".



MARIA ESQUIROZ
EKIDE ENPRESA

"Euskaraldiari esker, euskararen erabilera areagotu dugu enpresan, eta ikusi dugu hartutako ohiturak aldatu ditzakegula geure arteko komunikazioan eta euskaraz gehiago egitea posible dela".

Herritar elebidunak behar dituzte, ikerketa baterako

EHUko Gogo Elebiduna ikerketa taldea adinarekin lotutako hizkuntza-trebetasunen gainbehera eta prozesu horretan elebitasunak daukan eragina ikertzen ari da. Hori dela eta, 30 eta 80 urte arteko herritar elebidunak behar dituzte, proba batzuk egiteko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Udal Euskaltegi berrian, Kultur-rolan, daude egun hauetan Euskal Herriko Unibertsitateko Gogo Elebiduna taldeko kideak. Izan ere, ikerketa bat egiten ari dira: adinarekin lotutako hizkuntza-trebetasunen gainbehera eta prozesu horretan elebitasunak daukan eragina, hain zuzen.

Hori dela eta, 30 eta 80 urte arteko herritar elebidunak behar dituzte, hainbat proba egiteko, eta baldintza horiek betetzen dituzten guztiei egin diete deialdia, animatu daitezten.

Bakoitzari bi proba

Parte hartzen duten herritarrei bi saio egingo dizkietela azaldu dute: batetik, proba psikotekniko bat, memoria, atentzioa eta abar neurtzeko; bestetik, pantaila batean hiztegi-proba bat. Bi ordu iraungo dute proba horiek eta parte hartzen duten guztiei 20 euro emango dizkiete konpentsazio moduan.

Emaitzak anonimoak dira

Miren Arantzeta da ikerketa taldeko kideetako bat, eta azpimarratu du proba "oso anonimoa" izango dela eta inork ez dituela emaitza pertsonalak jakingo. Era berean, azaldu dute haiek ez dutela ezer diagnostikatzen, neurketa soil bat dela. "Oso sinplea da; beraz, etor daitezela", gaineratu du.

100 bat herritar gura dituzte

Esan dutenez, 100 bat pertsona gura dituzte eta kopuru horretara heldu arte egongo dira Arrasaten, uztailetik irailera, gutxi gorabehera. Banan-banan egingo dizkiete probak boluntarioei, eta, horretarako, aurrez hartu beharko da txanda, galdetegi bat beteta -Goiena.eus-en dago eskuragarri-. Horrez gain, zalantzak argitzeko, bi bide jarri dituzte herritarren eskura: 945 01 42 94 telefonora deituta edo gogoelebiduna.parتهartu@gmail.com helbidera idatzita.



Proba psikoteknikoa egiten Udal Euskaltegian. E.A.

OHARRAK

Bermeora eta Lekeitiora irteera

Abaroa elkarteak Bermeoko Arrantzaleen Museora irteera egingo du uztailaren 14an, eta gero, Lekeitio bazkalduko dute. Uztailaren 12an banatuko dituzte txartelak, 12:00etan.

Jacara eta Teruelera irteera irail bukaeran

Uribarriko erretiratuen etxeak astebeteko irteera antolatu du irailaren 28tik urriaren 4ra. Prezioari dagokionez, logela bikoitza 725 euro izango da eta osagarria, 125 euro gehiago. Interesa dutenek 943 77 18 29 telefonora deitu dezatela, martitzen eta eguenetan, 17:00etatik 19:00etara.

Mozambikeren aldeko jaialdirako sarrerak

Ugandan stics eta haien danborrak ikuskizuna egingo dute uztailaren 20an, 19:30ean, Monterron parkean, eta Ibai-arte 50 sarrera zozketatuko ditu uztailaren 14ra bitartean.

Bisita gidatuak eta mendi ibilaldiak

Bihar, zapatua, bisita gidatua egingo dute, 11:00etan Herriko Plazan hasita. Etzi, Udaltzera igoko dira Besaidetik, 09:00etan Udala auzoko goiko aparkalekutik irtenda. Hurrengo irteerak Murugaingo eta Ignaziotar Bidea izango dira, 16an eta 17an.

UZTAILAK 10, 14, 15, 16 ETA 17

ARRASATE
BLUES

Blues
km. 0

BLUES
BAZKARIAK

UZTAILAK 15
UZTAILAK 16

UZTAILAK 10 13:00
Herriko Plaza
EIJO
EUSKADIKO IKASLEEN
JAZZ ORKESTRA

UZTAILAK 10 19:00
Herriko Plaza
ITXASO

UZTAILAK 14 20:30
Otalora Lizenziaduna
STAR BLUES

UZTAILAK 15 19:00
Euskal Herria Plaza
**IKER PIRIS &
DUAL
ELECTRIC &
MARCO
PANDOLFI**

UZTAILAK 15 23:00
Herriko Plaza
**ITZIAR YAGUE
CUARTETO ft
GREG IZOR**

UZTAILAK 16 23:00
Ferrerias Kalea
LOS BRAZOS

UZTAILAK 15 20:30
Portaloia
**EMILIO ARSUAGA
& THE MAD
REEDS &
CHRIS BELL**

UZTAILAK 16 13:00
Jokin Zaitegi
**PAUL SAN
MARTIN &
GREG IZOR**

UZTAILAK 16 18:00
Herrian zehar
**ELEN'S RIVER
DIXIELAND
BAND**

UZTAILAK 16 19:00
Portaloia
LOS ZARRIOS

UZTAILAK 16 20:00
Portaloia
**DIABLUES TA
BLUEZIFER**

UZTAILAK 17 13:00
Arbolapeta
SWINGTRONIC

UZTAILAK 17 19:00
Arbolapeta
JAC

LAGUNTZAILEAK 1911 - EZKIL - LEZAMA - ELIZO - MONTE - 1910 - IBAI - TALPA - IZOR - BERMEORA



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON



ibai-arte

Eskatzi, argitatu, hiru comisi

EUSKO JAILARITZA GOBERNO VASCO

WWW.
ARRASATEBLUES
.EUS

Bi urte kanpoaldeko kaleengatik lanean

'33. barrutia'-n dauden Santa Teresa eta Doneztebe Portu kaleetako bizilagunen elkarteak, Avesantesek, egun osoko egitaraua antolatu du biharko. Umeentzako ekintzak, parrillada, bingoa eta Patxi Luqueren kontzertua izango dira, besteak beste

Hasier Larrea ARRASATE

Musakola gaineko kaleen egoe-rak hobera egin zezan, indarrak batu zituzten zenbait auzotarrek 2020ko uztailean. Hala, Avesantes elkarte sortu zuten Santa Teresako eta Doneztebe Portuko bizilagunek, bi helburu argirekin. "Batetik, Udalarari irisgarritasun eta saneamenduarekin lotutako neurriak hartzea eskatzeko; eta, bestetik, auzotarren arteko harremanak indartzeko", azaldu du Jorge Davilak.

Lehen eginkizunarekin lotuta, Santa Teresako igogailua erakitze fasean dago, une honetan obrak gelditu egon arren. Gainera, Udaleko Hirigintza teknikariak elkartearekin harremanetan daude, ze hobekuntza egin daitezkeen aztertzeke.

Ospakizunak, hasita

Atzo, eguna, igo zuten diseinu apurtzailearen duen bandera elkartearen lokal sozialean, Santa Teresa kalean. Arratsaldean, udalbatzako ordezkari politikoei eta enpresa laguntzaileei harre-ra egin zieten Avesantesko bazkideek. Bestalde, argazki erakusketa ireki zuten lokalean, Israel Diaz Izquierdo argazkilarri segoviarraren eskutik, eta afal aurretik otordua egin zuten lagunartean.



Santa Teresako eta Doneztebe Portuko bizilagunak, egitarauaren karteekin. H.L.

Gaur, atsedean hartzeko baliatuko dute eguna, biharkoari pilak kargatuta ekiteko. Arrasate Trikitixa Eskolako en-kurrukuarekin esnatuko dira, eta, 11:00etan, Arrasate Atletiko Taldeko kideen laguntza izango dute haurrentzako lasterketak abiarazteko. Ordubete geroago irekiko dute txosna, Santa Teresako ikastolan. Bertan, hainbat lagun lehiatuko dira patata-tortillarik onena norena den erabakitzeke. 13:00etan, pregoia irakurriko du auzotar batek, eta 14:00etan, bazkaritarako, parri-

llada herrikoia jango dute aur-reko egunean lokal sozialean tiketa erosita dutenek.

Bazkalostean, 17:00etan, bingoan jokatu dute nagusiek, eta hurrek urez betetako globoekin eta jolas gehiagorekin gozatzeko aukera izango dute. Azkenik, 21:00etan, Patxi Luque gitarra-jole antzuolarrak errepertorio ezagun eta zabala eskainiko du; nahi duenak mikroa irekita izango du abesteko. Joan den urtean izandako arrakastagatik gonbidatu dute Luque aurten ere.

Jorge Santiago arduratuko da Mondrako kirol zuzendaritzaz

Aretxabaletarrak ondo ezagutzen du kluba, jokalaria eta entrenatzaile izan baitzen hainbat kategoriatan

H.L. ARRASATE

Ander Romeroren testigua hartuko du Jorge Santiagok Mondragon CFko zuzendaritzan. Honela aurkeztu du klubak kirol zuzendari berria asteon sare sozialetan: "Azken urteetan Zarautz, Eibar eta Aretxabaleta taldeetan aritu da, baina kluba ondo ezagutzen du, Mondrako harrobiko hainbat talde entrenatu zituelako". Zehazki, gazte eta gorengoen mailletako taldeen prestatzailea izan zen, eta baita jokalaria ere Erregional Mailan.

Lehen esperientzia izango du, beraz, kirol zuzendari. Azkenaldian Mondra askorik jarraitu ez duela onartu arren, lasai dago, kideak ezagutzen dituelako: "Ikasteko prest nago, eta nire lana kategoriaz guztietako entrenatzaileen alboan egotea izango da". Dagoeneko hasi da denboraldiaurrea planifikatzen.



Santiago, Mojategin. MONDRAGON CF

Ez du aldaketa handirik egiteko intenziorik: "Etxeko jendearekin mantenduko dugu egitura; jokariengan eta entrenatzaileengan konfiantza osoa dugunez, lehen talderako fitxaketaren bat bakarrik egingo dugu, ziurrenik".

Zaldibarko 24 orduko areto futbol torneoaz uztailaren 16an

Pandemiaren eraginez bi urtez gelditu egon ostean, uztailaren 16an, zapatua, jokatu dute izen handiko txapelketa. Aurten, gainera, sari potoloak irabaziko dituzte, garaikurrarekin batera, lehen hiru sailkatuek: txapel-dunek 1.500 euro, txapeldunordeek 700 euro eta hirugarren geratzen direnek 400 euro. Bestalde, herriko eta kanpoko ar-

tistek eguna musikaz bustiko dute.

Taldeen izen-ematea irekita egongo da uztailaren 11ra arte, Arrasateko Osorik tabernan eta @zaldi24ordu Instagram kontuan. Komenigarria izango da gutxienez 9-10 jokalariko taldeak osatzea. Talde bakoitzeko 120 eurokoa izango da inskripzioa, eta taldearen izena eta arduradun baten kontaktua eman beharko dira. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete torneoaren prestazten lagundu dieten babesleei.

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. www.funerariaarrasate.com

BEILATOKI BERRIA ARRASATEN

TANATORIOA

Guztion zerbitzura 24 orduz

ARRASATE HILETA BERRIA

Deitu eta informa zaitez!!

☎ 943 79 22 19

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

SUV gama Hibridoa eta elektrikoa

Merkatuko ECO gama osatuena



Hyundai BAYON
Hilean

130 €-tik aurrera

- 130 €-ko 47 kuota
- Sarrera: 3.285
- Azken kuota: 9.608,49
- UTB: %9,01*
- TIN: %7,50



Hyundain badakigu zein garrantzitsua den zuretzat modu iraunkorrean mugitzea.

Horregatik aurkezten dizugu merkatuko **SUV Gama Hibrido eta Elektrikorik** osoena. Ezagutu zein den zure beharretara ondoen egokitzen den ECO eredua, eta aukeratu nola mugitu.

Bayon Hibridoa (48V): merkatuko osatuena. Ezagutu zein den zure beharretara ondoen egokitzen den ECO eredua, eta aukeratu nola mugitu.

KONA Gama: ezagutu Hyundai KONA Gamaren aldatortasun harrigarria eta gozatu haren bertsio hibrido eta elektrikoarekin.

TUCSON Gama: ohikotasunetik haratago joango zara TUCSON Hibridoaren eta TUCSON Hibrido entxufagarriaren diseinu ausartarekin eta azken teknologiarekin.

SANTA FE Gama: gozatu beste maila batean SANTA FE Hibridoarekin eta SANTA FE Hibrido entxufagarriarekin, eta haien 7 plaza zabalekin.

Hyundain lanean ari gara **karbono-aztarna ezabatzeko**. %100 gama elektrikoa European 2035erako.



HYUNDAI MUGARRI OARSO CAR
San Andres kalea 6 • Arrasate
943 79 70 06



5 URTE Km-en mugarik gabeko
Bermea

8 URTE **Bateriaren**
bermea

Umorea eta akrobaziak, korapiloak askatzeko

Esperientzia "zerutiar" bat eskainiko dute Rojo Telon zirku eta antzerki konpainiako aktoreek, Udazabal egitarauaren baitan. Hirukoteak 'Nudo' izeneko ikuskizuna taularatuko du datorren martitzenean, hilaren 12an, Biteri plazan, 20:00etan

Hasier Larrea ARRASATE

Uztaileko bosgarren kultur ekitaldira iritsiko da martitzenean Udazabal egitasmoa. Arrasateko Udaleko Kultura Sailak, oraingoan, hiru emakume artistak gidatzen duten pieza ikusgarria programatu du, *Nudo* izenekoa. "Umorea, interpretazioa eta zirkuko lurreko zein aireko teknikak uztartzen dituen ikuskizuna proposatzen dugu, ikusleari ilea harrotuko diona", azaldu dute Ana Cuervas, Maria Salmeron eta Begoña Peñaranda protagonistek. Telon Rojo konpainiako sortzaileak dira hirurak; 2015ean hasi ziren elkarrekin lanean, eta eskutik helduta jarraitu dute gaur egun arte.

Zirkua "bizitzeko filosofia" bezala ulertzen du Cuervasek; Buenos Airesekoa sortzez, 15 urte baino gehiago daramatza zirkuko profesional izan nahi dutenei irakasten Bartzelona, Tolosa (Toulouse) eta Bilbo artean. Maria Salmeronek ere Hego Ame-

rikan deskubritu zuen diziplina artistiko hori, eta gaur egun ikastaroak jasotzen segitzen du haren espezializazioan. Uzta, trapezio, ehun eta soka artean abila eta gorputzarekin mugimendu bortitzak eta akrobaziak egiten iaioa da, berriz, Peñaranda loiotarra. Hirurek akrobazien bitartez lagunduko dute elkar, Biteriko *gasolineraren* egitura aprobetxatuta, publikoari harridura transmititzeko. Eta barre eginarazteaz ere ez dira ahaztuko, elkarriketa eta eszenaratzea bitxien bitartez. Elementu horiekin guztiekin osatuko dute altura handiko esperientzia "zerutiarra".

Afrikako danborrak

Udazabalen hurrengo *Ugandan Sticks eta haien danborrak* ikuskizuna izango da, hilaren 20an, Monterrongo parkean. Harreman eta Mundukide elkarte solidarioei laguntzeko asmoz, 10 euro balioko du sarrerak.



Nudo obran akrobaziak egiten ari diren une bat. ROJO TELON

Jazzlari gazteen orkestrak haize freskoa ekarriko du domekan

Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestrak konponketa berezi batzuk joko ditu Herriko Plazan, 13:00etan hasita

H.L. ARRASATE

Arrasate Blues kartel zabalaren barruan tokia egin dio Ibai-arteke EIJO taldeari. 2014an sortu zuten EAEko musika eskola eta kontserbatorioetan ikasi izan duten zenbait musikaririk. Gaur egun, 32 lagun inguruz dago osatuta, eta jazz estiloaren ohiko instrumentuei alboka, txistua, trikitia eta halako euskal musika tresnak gehitu dizkiete. Izan ere, Iñaki Askunze, Carlos Sagi eta Sergi Verges konpositoreek orkestrarentzat propio sortutako konponketak inter-

pretatzen dituzte; euskal kantu-tegi tradizionalen oinarrituta horietako zenbait. Hori horrela, 70 minutuko erreperitorioa eskainiko du "soinu eta instrumentazio aldetik munduan bakarra den" bandak.

Sei egun barru, uztailearen 14an, sartuko da jaialdia erritmo bete-betean. Itxaso Gaztelugatxeren ahots erakargarria entzun ahalko da Herriko Plazan, 19:00etan, eta 20:30ean, Ordiziako Starblues-en melodiekin girotuko dute Kulturte osteko txokoa, Otalora Lizentziadunak.



Uztailak

8

ostilara

Uztailak

9

larunbata

BEZa*

oparituko dizugu

elikagaietan, freskoetan,

drogerian eta lurrindegian.

Edariak, parafarmazia eta haurtxoentzako produktuak barne.

*EROSKI clubeko bazkidea bazara, EROSKI center eta EROSKI city Supermerkatuetan egindako 40 €-tik gorako erosketetan, eta EROSKI Hipermarketuetan egindako 60 €-tik gorako erosketetan, Euskadin, Ertxan, Kantabriar, eta Aezgoian. EROSKI Club txartelean sar daitezkeen gehieneko zenbatekoa: 250 €. Kontsumitzaile gaitzerako baldintzak zure onko dendan. Baita supermecado.eroski.es/eu webgunean ere.



ARRASATE

Musakola z/4 ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30

SANMARTINAK 2022

Marik sua piztu eta herritarrek mantendu

Orixol Mendizale Elkarteko ordezkariak botatako pregoiarekin eta txupinazoarekin hasi zituzten sanmartin festak barikuan. Denetarik ekintzak izan dituzte, eta "giro onean" burutu dira. Parrandazale onenaren saria Oihan Azkaratek eroan du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Jaietarako gogotsu zeuden aramaiorak, eta horrela erakutsi dute jaietarako prestatu diren ekitaldietan. "Pozik gaude, sensazio onarekin. Eguraldi ona egin du eta ekintzak jendetsuak izan dira", dio Kultura zinegotzi Ana Martiarenak. Kanpotik jende askorik ez etorri arren, "neurri egokia" izan dutela jaiek gehitu du.

Gertakari larririk ez dute izan jaietan; hala ere, seinale batzuk apurto eta erre kara bota dituztela esan du Martiarenak.

Anbotoko Mari, balkoian

Anboto mendia utzi eta aurren bai, Mari udaletxeko balkoira jaitzi, eta jaietako sua piztu du. Orixol Mendizale Elkartekoek izan zuten pregoia eta txupinazoa botatzeko ardua, elkartearen 50. urteurrena ospatzeko.

Bariku ilunkeran eta gauetan musikak hartu zuen herria: txosnagunean egindako musika

kontzertuek harrera beroa izan zuten. Zapatu goizean, aldiz, ohiko bilakatu den patata-tortilla lehiaketa egin zuten: lau talde lehiatu ziren eta denetan tortilla onena Iñaki Etxebestek egindakoa izan zen.

Kirolak ere izan du tartetxoa jaietan. Plater tiroketa txapelketa egin zuten Kruzetan. Hamar tiratzailek parte hartu zuten txapelketan: Juan Luis Nafarrate nagusitu zen, 24 plater apurta: bigarren Jon Uribarren, 22 plater +2 eginda; eta hirugarren, Igor Lasaga, 22 plater +0 eginda. Bigarren *street boulder* txapelketa jokatu zuten domekan; sei eskalatzaille ibili ziren herriko hainbat txokotako hormak

ILUNTASUNAREN BABESEAN, DEABRU BELTZAK TALDEAK KALEJIRA EGIN ZUEN DANBORREKIN

igotzen. Lagun giroan pasa zuten arratsaldea.

Eguzkia sartzen denean

Domeka gauean, eguzkia sartzearrekin batera, Deabru Beltzak taldeak *Les Tanbours de feu* ikuskizuna egin zuen. Iluntasunaren babesean, danbor hots bortitzekin, kalejiran jardun zuten.

Gazte Asanbladak ere hainbat ekintza antolatu ditu jaietara. Horietako bat kuadrillen arteko pikea izan da. Astelehen arratsaldean jokatu zuten: hiru kuadrillak parte hartu zuten, Aramaioko bik eta Elorrioko batek. Bada, Aramaio 1 taldea nagusitu zen. Lau proba eta finala egin behar izan zituzten. *Katxi toldo* probarekin gozatu zuten gehien. Astelehen gauean, mozorro onenaren saria Ezkontza taldeak eraman zuen, eta urtero banatzen duten parrandazale saria Oihan Azkaratek eroan du: urrezko gibela, hain zuzen.



Kuadrillen arteko pikean. IMANOL SORIANO



Dantza saioa Patxi Monteroren gidaritzapean. I.S.



Iñaki Etxebeste, tortilla onena egin zuten. I.S.



Udaleko eta Orixol elkarteko ordezkariak. I.S.

Aurrekontuari 255.330,27 euro txertatzea onartu dute

Ekaineko ohiko osoko bilkuran onartu zuten kreditu aldaketa, eta 2023ko jaiegun ofiziala izendatu zuten

A.E.G. ARAMAIO

Ekainaren 30ean egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuten, aho batez, kreditu aldaketa egitea. Hala, 255.330,27 euro txertatuko dira 2022ko aurrekontura. Helburua da "diru hori erabilgarri izatea" hainbat proiektu aurrera eramateko. Lierni Altuna alkateak zerrandatu zituen esku artean dituzten proiektuak: Bizente Goikoetxearen estatua berritzea; kultura etxe-ko aretoan hobekuntzak egitea, argiteriari eta soinuari dago-kionez; Santa Ana ermitan harria

ateratzea; auzoetan buzoi komunitarioak jartzea –Eguzkierripan eta Gantzagan jarriko dira proba moduan–; farol berriak jartzea Zalgoin eta plaza ondoan; asfalto botatzea hainbat bidetan; maskulinitate tailerraren hirugarren saioa egitea –hala eskatu dute parte hartu dutenek–; D2030 ekimenean parte hartzea, herriko energia aukeren azterketa egiteko; gazte txokoa, nerabeen aisialdirako talde bat sortu da, baina espazio baten beharra ere badute; Iturzuriko ur arazoak konpontzea; Correoseko bulego

barik geratu denez herria, paketeak jasotzeko posta-kutxa bat jartzea; eta anbulatorioko arrapala handitzea, irisgarri egin eta esku-ohetaz sartzeko aukera emateko. Iazko aurrekontuko soberakinetik hartuko da diru kopuru hori –gehiago geratzen da soberakinean–. "Hau da lehenengo proposamena, eta ondoren irailean ere egin daiteke beste bat", gehitu zuen alkateak.

Horrez gain, kiroldegiko obraren espedienteko agirien aldaketa egin eta lehiaketa berriz hastea onartu zuten.

Euskadi Lagunkoia

Euskadi Lagunkoia ekimenera atxikitzea onartu zuen udalbatzak, aho batez. Martxo amaieran, Euskadi Lagunkoia zerden azaltzen egon zen ekimeneko kide Ainara Tomasena;

bada, zortzi laguneko talde eragilea sortu dute Aramaion, ekimenarekin aurrera egin nahi dutenek. "EAE mailan, 70 herri daude atxikituta ekimenera", azaldu zuen Cristina Etxenautia zinegotziak. Ekimenaren helburua da herritarren parte-hartzea bultzatzea, herriak eta auzoak hobetzen joateko. Adineko pertsonetik hiri lagunkoia sortu eta zahartze aktiboa sustatzea da asmoa. Behin talde eragilea sortuta, Udala bidelagun izango dute proiektuan zehar.

2023ko jai egun ofiziala

2023ko azaroaren 11, San Martin eguna, zapatua izango da. Hori horrela, udalbatzak erabaki du 2023ko jaiegun ofiziala uztailaren 3a izatea, astelehena. Jaietako astelehena izango da.

OHARRAK

Uribarri auzoko jaiak

San Kristobal jaiak domekan. 12:00etan, meza; ostean, dantza, Jun Da Jo taldearekin; 15:00etan, bazkaria eta erromeria; 17:00etan, bolo txapelketa.

Korterraza jaialdia

Gaur, elizako eskaileretan Korterraza jaialdiko film laburren emanaldia egingo dute, 22:00etan.

Biblioporrak

Aramaioko liburutegiak Biblioporrak 2022 gida argitaratu berri du. Adin tartetuei zuzendutako liburu, film eta musika proposamenak jasotzen ditu gidak.

Hainbat proposamen ditu EH Bilduk Portasolerako

Auzoa "eraberritzeko" zazpi ekarpen aurkeztu ditu alderdiak; besteak beste, Gipuzkoa plazan gune estali bat jartzea, ibai alboko paseoa konpontzea eta Araba ibilbidean autoen abiadura gutxitzeko eta auzoa erdialdearekin lotzeko bidegorri bat egitea

Mirari Altube ARETXABALETA

Azken hilabeteetan "hainbat auzotar eta aditurekin elkarlanean" jardun ondoren, Portasol auzoa, eta orokorrean Aretxabaleta, hobetu gura duten hainbat proposamen landu ditu EH Bilduk. Auzoaren gainean egindako diagnostikotik abiatuta egin dituzte horiek, hiru ardatzetan antolatuta: pertsonak, jarduerak eta lurraldea. Eta azken horri dagozkion ekarpenak dira landutakoak eta orain aurkeztutakoak.

Auzo-lokala

"Portasol bizigarriagoa egitea eta bertako bizilagunendako erosoa izatea" da EH Bilduko helburua. Izan ere, bizitza "herriaren erdigunean" kokatzen dela uste dute –kultura bizitza zein komertzioak– eta horiei eutsi gura diete, batetik, eta, bestetik, auzoa antolatu, autoen eta oinezkoen erosotasuna bermatuz. Horretarako, jarduketak ezberdinak jaso dituzte. "Batzuk

epe motzean eta erraz egin daitezkeenak dira, eta beste batzuek garapen handiagoa beharko dute", adierazi du Ion Albizu bozemaileak.

Proposatu dute Zaraia eta Gorbela kaleetan oinezkoendako espaloiak hobetzea irisgarritasuna ziurtatzeko, "inguruak txukunduta eta aparkalekuak bermatuta". Loramendi kaleari dagokionez, hori konpontzeko asmoa agertu dute: "Kale osoaren kota igota atariaren sarrerak koska barik geratzeko".

Ibai alboko paseoa konpontzea ere erronken artean dute, eta aukera ezberdinak daudela aipatu. Gipuzkoa plazan gune estali bat egitea ere proposatu dute: "Aretxabaletak estalitako

AUZO ARE ETA "BIZIGARRIAGOA ETA EROSOAGO" IZATEA DA AURKEZTUTAKO PLANAREN HELBURUA

espazio bat behar du; jolaserako zein beste jarduerara batzuetarako erabil daitekeena".

Araba ibilbidean autoen abiadura murriztea gurako lukete: "Horretarako, aparkalekuak sortzea proposatzen dugu, baita bidegorri bat egitea auzoa herriaren erdigunearekin lotzeko".

Era berean, saihesbidearen alboan dauden etxebizitzetan "zarata gutxiago" jasateko panelak jartzea eskatzeko asmoa dute Foru Aldundiari. Eta azkenik, euskaltegiaren alboan auzo-lokala egokitzea ere mahai-gaineratu dute: "Erreferente izan daitekeen lokal bat auzotarren esku egongo litzatekeen: jaiak antolatzeko, hitzaldiak egiteko..."

EH Bildukoek herritar gehiagoren iritzia jaso gurako lituzkete eta proposamenok are eta gehiago garatzen jarraitu urritik aurrera. Gero, udalean aurkeztuko dituzte; Udal Gobernua dagoeneko jakinean dagoela adierazi du Albizuk.



Carlos Roman margolaria Arkupen erakusketa aretoan. M.A.

Herri inguruak margolanetan jaso ditu Carlos Romanek

Gasteiztarrak Aretxabaletak kaleak eta elizateak margotu ditu olioarekin, eta Arkupen daude ikusgai

M.A. ARETXABALETA

Lagun asko ditu Aretxabaletan Carlos Roman gasteiztarrak eta erakusketa bat jartzeko gogotsu zegoen: "Herritarren interesekoa izango den zerbait ekarri gura nuen, aretxabaletarrentzat berezia izango den zerbait, eta, horregatik, herriko parajeak margotzea bururatu zitzaidan". Hamabi bat lan egin ditu *Aretxabaleta eta elizateak* bildumarako. Erakusketa aretoa, baina, handia denez, beste lan batzuk –natura hilak, bereziki– sartu ditu haien artean. "Urkulukoa izan da lanik gustukoenetakoa

gehienendako, baita parrokiakoa ere; azken horren kasuan, jendea agertzen delako bertan".

Olio-lanak dira aretoan dauden guztiak: "Beste pintura batzuek ematen ez duten testura lortzen dela esango nuke; horregatik, besteen artean gailentzen dena da". Eta figuratiboaren alde egin du: "Izan ere, ikusle arruntak ikusten duenarekin identifikatu nahi izaten du". Hain zuzen ere, Romanen helburua da jendeak une atsegina pasatzea erakusketarekin; hilabetea bukatu arte izango dute horretarako aukera.

Denboraldi berrira begira jarriko da UDA batzar orokorrean

UDA hasi da datorren denboraldia gertatzen, eta fitxaketa biren berri eman du astean. Batetik, Odei Castresana jokalaria etorriko da ohorezko erregional mailara, eta, bestetik, Beñat Etxabe aretxabaletarra itzuliko da erregional preferente mailako taldea entrenatzeko.

Horiek guztiak izango dituzte hizpide gaur, uztailak 8, egingo duten batzar orokorrean; Arkupen izango da, 18:30ean. Bukatu berri den denboraldiaren gaineko xehetasunak emango dituzte lehenengo, eta ondoren, datorrenaren aurreikuspena egin eta diru-kontuak onartu. Bazkideek galderak egiteko aukera ere izango dute.

OHARRAK

Larrino auzoko jaiak

Bihar, zapatua, ospatuko dituzte San Kristobal jaiak: meza izango da 12:30ean, eta ondoren, mokadutxoak. Autoa loreekin dotoreen apaintzen duenak saria jasoko du.

Antzezlanak

Zirika Zirkus taldeak *Hemendikara* antzezlan eskainiko du hilaren 13an, eguaztena, 19:00etan, Herriko Plazan.

Erakusketa Basotxon

Hamar lagunek egindako 25 bat pintura lan jarri dituzte ikusgai Basotxo erretiratuen egoitzan. Idoia Elempuru irakaslearekin azken urtean landutakoak dira.



EH Bilduko hainbat ordezkari, Ion Albizu erdian dela, eta Portasol auzoko bizilagun batzuk. MIRARI ALTUBE



Urteurrenean parte hartu zutenak, eskuinaldean azkena Juan Tomas Zabala, Iñigo Urkullu lehendakariarekin. EUSKO JAURLARITZA

Lagunkoiaren urteurrena ospatzen Basotxo ere bai

Gero eta udalerrri "inklusiboagoak, irisgarriagoak eta lagunkoiagoak" lortzeko bidean hamar urte bete ditu Euskadi Lagunkoiak, eta ospakizun ekitaldiko gonbidatuen artean izan da erretiratuen elkarteak sortutako Aretxabaleta Lagunkoia

Mirari Altube ARETXABALETA

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) hiri lagunkoiak bultzatzen dihardu azken urteetan; hau da, ingurune integratzaile eta irisgarriak, pertsonen eta zahartze aktiboaren arteko bizikidetzak sustatzen dutenak. Horren aldeko mugimendua 2009an hasi zen ematen lehen pausoak EAEn, Donostia OMEren Mundu Sarean sartu zenean, eta 2012a ezker abian da. Orduetik, asko hazi da ekimena, eta 70 udalerrri daude atxikita gaur egun: 27 Bizkaian, 18 Araban eta 25 Gipuzkoan. Azken horien artean dago Aretxabaleta.

Jaurlaritzak hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldia

egin zuen ekainaren 29an, Tabakaleran, Iñigo Urkullu lehendakaria buru zela, eta gonbidatuen artean egon ziren aretxabaletarrak; Juan Tomas Zabalak, hain zuzen ere, ordezkatu zuen Aretxabaleta Lagunkoia.

Bakardadearen gaineko lanketa

"Lurralde bakoitzeko talde bana aukeratu zuten bizipenen eta ibilbidearen berri emateko Donostiako urteurrenaren ospakizunean. Eta Aretxabaleta Lagunkoia gonbidatu zuten Gipuzkoako ordezkari izateko. Zabala kideak eman zuen gure lanaren berri, eta bakardadearen lanketaren gainean berba egin; euskaraz soilik, gainera", adierazi

du taldearen sortzaile eta bultzatzaile Pedro Etxebarriak, eta gaineratu: "Ordezkarri bakoitzak azalpenak emateko zuen tarte oso ondo laburtu zuen eta askok zoriondu dute horregatik".

Herri lagunkoien gaineko lehen hausnarketak 2012an abiatu zituzten Basotxo erretiratuen elkarteko hainbat kidek. Orduetik, gai asko landu dituzte taldean, baita Aretxabaletaren gaineko diagnostikoa egin ere; herria goitik behera behatu eta hobetu beharrekoak jasota daukate hor. Orain, bakardadeari heldu diote eta Udalarekin elkarlanean dihardute, gainerako gaiekin bezala.



MIRARI ALTUBE

Aldarrikapen-muralari pintaketa

LGBTIQ+ pertsonen eskubideen aldeko bandera dago margotuta Mitarte kalean, eta ekainaren 28an berriro egin zuten hori, trans banderaren koloreak eta arrazializatu borroka adierazten dutenak gaineratuta. Martitzenean, baina, gainetik pintatuta agertu zen bandera guztia. Herritarrek haserre eta ezin ulertua adierazi dute bai sare sozialen bidez, bai kalean.

Egitarau betea eguenean hasiko diren Portasolgo jaietarako

Patata-tortilla eta paella txapelketak, lasterketak, bazkaria eta musika ekitaldi mordoak iragarri dituzte

M.A. ARETXABALETA

Uztailaren 14an hasi eta domekara bitartean jai giroa izango da Portasol auzo inguruan. Grafiti erakusketarekin hasiko dituzte ekitaldiok, eguenean, eta neska-mutikoez ur-jolasak izango dituzte; iluntzean, pintxo-potea izango da, ohi legez.

Egubakoitzean sartuko dira jaietan bete-betean. Patata-tortilla lehiaketa egingo dute Zaratza tabernaren aurrealdean, eta izena tabernan bertan eman beharko da. Gauean, osteran, Lekittoko Deabruak taldeak pi-

roteknia ikuskizuna eskainiko du, eta herriko Jotabe eta Akulu taldeek musikarekin girotu.

Arrakasta izan ohi duten lasterketekin ekingo diote zapatuari, eta ondoren, auzo-bazkarian elkartuko dira; txartelak dagoeneko salgai dituzte tabernetan, 15 euroren truke. Mus txapelketa ere egongo da, eta iluntzean hasita askotariko musika emanaldiak. Domekan, artisau azoka, paella txapelketa eta omenaldiak izango dira, eta jaiak bukatuko dituzte nagusiendako dantzaldiarekin.



RPS: 83/19



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

SANPEDROAK 2022

Hobetzekoak, "agian"; erantzuna, "zoragarria"

San Pedro jaiak amaituta, oro har, eta parte hartu duten elkarte edo kolektiboekin kontrastatu aurretik, Eskoriatzako Udalak hasiera batean egiten duen "balorazioa positiboa da", adierazi dute Eskoriatzako Udaleko Jai Batzordeko kideek

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Oro har jaietan parte-hartzea handia izan dela adierazi dute Udaletik. Emanaldi batzuk lekuz aldatu dituzte eguraldiarengatik eta antzerki bat bertan behera utzi behar izan da segurtasun-arrazoiengatik; hala ere, programatutako ia ekitaldi guztiak normaltasunez egin dira. "Kontzertuek arrakasta handia izan dute, eta AC/DCren tributuaz azpimarratzekoa da: bailara osoko publikoa erakarri zuen, plaza bete eta laudorio handiak jaso. Txikienez zuten ekitaldirik ere ez da falta izan: *Go!azen*, errektore eskola, bi haur-parke puzgarriak...". Janari eta edariari dagokionez, dastatze solidarioa, txosnetako bi bazkariak, Euskal Jaiko herri bazkaria eta *Patatak+* lehiaketa izan dira. "Azken horrek ez zuen espero genuen parte-hartzerik izan, eta horrek adierazten digu

jai-eskaintza hobetzeko lanean jarraitu behar dugula". "Txosnetako parte hartzea oso handia izan da, eta ekintzak arrakastatsuak. Herritarrek pazientziak eta presentziak erantzun diete, eta hori eskertzekoa da. Udalak zorionak jaso ditu

antolaketa-rengatik, eta horrek pentsarazten digu norabide onean goazela; hala ere, parte-hartzea sustatzen saiatuko gara nahi dugun jai-ereduari buruz hausnartzeko. Horretarako, lankidetzarako bideak ezarriko ditugu, jaiak guztionak izan daitezten.



Musika eskolako dantza taldearen saioa Euskal Jai Egunean. AITOR AGIRIANO

Eskoitzako Txosna Batzordea, pozarren

Eztein amets hutsa izen, erain, erain! esaldia ardatz, bete da bide horretan mezua. Jaietan aurretik ondo erain dute hazia; erain ere egin dute, parte-hartze handiko ekintzak izan baitira, eta, amets horren bidean, balorazio positiboa egin dute Txosna Batzordeko kideek.

"Guretzat ardura handia izan da, eta nekeza, baina txosnetan izan dugun giroarekin oso pozik gaude. Ekintza azpimarragarria *Pintxada kolektiboa* izan da; jende ezberdinak parte hartzeko aukera eman duelako. Horrez gain, kuadrillen arteko jokoak ere, txosnagunetik aterata, sekulakoak izan dira", adierazi du Leire Lezetak, Eskoitzako Txosna Batzordeko kideak.



Kuadrillen arteko jolasetan, aulki-jokoan. AITOR AGIRIANO

Esker mezua

"Auzolanera etorri direnei, asanbladetan parte hartu dutenei, zerbait sortu denean edo estututa egon garenean lagundu diguten guztiei, barran

egon direnei, egitarauan parte hartu dutenei... eskerririk asko! Datorren urtean jaietan antolakuntzan parte hartu nahi dutenei, berriz, ateak zabalik dituztela esan nahi diegu".

Irailera arte itxita egongo da Eskoriatzako bidegorri zati bat

Hasi dituzte nagusien egoitza eta Intxaurtxuetako pasabide arteko bide-zatiko ur-hoditerian lanak

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Udaletik jakinarazi dutenez, Gipuzkoako Ur Kontsultazioak hoditeria nagusian hainbat hobekuntza lan egin behar ditu Jose Arana nagusien egoitza atzealdetik Intxaurtxuetako pasabiderainoko bidegorrian zati bat bertan baitago ur-hoditeria nagusiaren zati bat eta lanak behar besteko segurtasunez eta bermez egiteko beharrezkoa delako.

Hori horrela, bidegorri zati hori itxi egingo dute bi hilabetez. Astelehenean hasi zituzten obrak,

eta Jose Arana nagusien egoitzatik Intxaurtxuetako pasabiderainoko bide-zatia oinezkoentzako moztuta geratu da, eta horrela egongo da uztail bukaera arte.

Lan horiek egiteaz batera, uztail azken astean, Intxaurtxuetako pasabidetik Fagor Automationerainoko bidegorri zati moztu egingo dute eta oinezkoak ezingo dira bertan ibili abuztu osoan. Gauzak ondo bidean, irailean normaltasunez zabalduko dela bidegorria, adierazi dute Eskoriatzako Udaletik.

GORA ETA BEHERA



Lanak soilik ezin dira izan aitzakia

Herrigunetik Elorretara edo alderantzizko noranzkoan oinez joateko arazoak daude saihesbideko zubian. Espaloi batetik bestera pasa behar da, hesiek espaloi osoa hartzen dute...

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

OHARRAK

Bibliotekan ordutegi berezia uztailean

Uztailaren 11tik 22ra ordutegi berezia egongo da. Goizetan 10:00etatik 13:30etara zabalik izango da eta arratsaldean, itxita.

'EskoZale oporrak' kanpaina

Eskoriatza Kirol Elkarteak jarraitzaileei eskatu die oporraldian klubeko kamisetarekin argazkiak bidaltzeko, gero sare sozialetara argazkia igo eta, hala, kirol elkartearen hauspotzeko asmoz.

Hitzaldia: 'Desmontando estereotipos eróticos'

Gaur, 19:00etan, kultura etxean izango da, Natalia Urteagaren eskutik -ADP Sexologiako lehendakaria-.

Kolaboratzaile berezia kantuen grabaketan

Los Saneadores proiektuarekin ari da buru-belarri Iker Luarizaristi eskoriatzarra, Juan Coronel 'El Sensei' eta Pablo Segade 'Chirola' argentinarrekin batera, besteak beste. Gainera, Evaristo Paramos izan dute entsegu lokalean abesti baten ahotsa grabatzen

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA**
Los Saneadores musika proiektua ez da musika talde bat, Iker Luarizaristi eskoriatzarraren proiektu pertsonal bat da, eta, zuzeneko kontzertuak egiteko asmorik ez duen arren, kritika soziala hitzetan islatzen duen punk estiloko bederatzik kantuz osatutako disko bat grabatzen ari da. Lana argitaratzean zenbait kopia aterako ditu, aurreikuspenen arabera, azaroan, lagunartean banatzeko asmoz.

Kolaborazio ugari

Luarizaristik bere lana aurrera eramateko hainbat lagun eta musikariren kolaborazioak izan ditu. "Pandemian, denbora-pasagisa, La Polla Records taldearen bertsio bat grabatu genuen, eta, hortik hasita, aspaldi eginda nituen abesti batzuk grabatzen hasi ginen, eta berriak ere egin ditugu. Nire lagun Segadek bateria grabatu du zenbait kantutan. Horrekin batera, Victor Coronel *Mandinga* diskoaren diseinuaz arduratu da, baina bi abestitan bateria doinuak jartzeko ardura ere izan du. Juan Coronel *El Sensei*-k, berriz, gitarra doinuak eta baxuarenak jarri ditu, eta nik ahotsak eta koroak grabatu ditut". Horrekin batera, kantu batzuetan ahotsak jartzeko aritu dira Luarizaristiren anaia, Hodei Luarizaristi, Vuelko taldeko Xabi, Piquillin Y Los Compadres talde argentinarreko Piquillin eta Evaristo Paramos, La Polla Records eta Tropa Do Carallo taldeetako musikari ezaguna.

Argentinan grabatuta

Proiektuaren berezitasun nagusia da Luarizaristik diskoari jarri nahi izan dion musikaren parte instrumentalean parte hartu duten kide guztiak argentinarrek direla; hau da, ahotsak eta koroak izan ezik, musika guztia Argentinan grabatutakoa dela.



Iker Luarizaristi eta Diego Saenz soinu teknikaria, Evaristo Paramosekin —erdian—, lokalean. I.L.



Azalean, San Pedro eliza sutan

Diskoaren azaleko irudia Victor Coronel argentinarrek egin du. Pederastiaren kontrako kanta bat dute, eta, hori ardatz, Eskoriatzako San Pedro elizan inspiratu dira ilustrazioa egiteko. Eliza saneatu edo garbitu egin behar dela adierazi gura izan dute.

LEINTZ GATZAGA | 17



Azkoitia, Bengoa, Crespo, Romero, Otsoa eta Caceres. I. BELOKI

Bide berdea egokitzeko urratsak egiteko, bisita izan dute

Gure Ametsa eta Tellerixa arteko tartean hobekuntza lanak egiteko konpromisoa agertu dute bisitariek

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Rafaela Romero Mugikortasuneko diputatua, Miguel Angel Crespo Departamentuko zuzendaria, Mankomunitateko Ines Caceres Turismo teknikaria eta Koldo Azkoitia Mankomunitateko Garapen Agentziako arduraduna Gatzagan batu ziren astelehenean Eugenio Otsoa alkatearekin eta Juanito Bengoa zinegotziarekin. Lan-bilera egin zuten, eta gero, Vasco-Navarro bide berdearen zati bat zeharkatu zuten, Gure Ametsa jatetxea eta Tellerixa artean -400 eta 600 metro inguruko bidea-, berehalako egokitzapen eta hobekuntza jarduketa bat egiteko.

Arabatik Gure Ametsa jate-txeraino egokituta dago bidea, baina aparkalekutik Arlaban aldera bidea jarraitzeko, errepidetik joan behar da, eremua ez dagoelako egokituta.

Araba eta Gipuzkoa batu nahian

Romero diputatuak Gatzagako Udalarekin egindako mugikortasun jasangarriko jarduerak aipatu zituen; bereziki, garraio publikoaren erabilera sustatzekoak. Horrekin batera, adierazi zuen udalerrien arteko mugikortasuna errazteko oso garrantzitsua dela lurraldean doazen bidegorriak eta bide berdeak amaitzea: "Gipuzkoako errepide berdea eta bidegorriak, balio turistiko eta kultural handia izateaz gain, bizikleta eta oinezkoen komunikaziorako arteriak dira, gure lurraldeko udalerrien eta mugakide diren beste probintzia batzuetako herrien arteko mugikortasuna dinamizatzen. Horregatik, Mugikortasun Departamentutik, Eskoriatza eta Arabako mugaren arteko trenbidearen trazadura berreskuratzearen aldeko apustua egin dugu".

Meza San Martin ermitan

Joan den domekan, San Martin eguna ospatu zuten Leintz Gatzagako Goierri auzoan. Zurtitzako San Martin ermitaren egoera ez da ona, jausteko arriskuan dago, eta, beraz, ezin da eraikineria sartu. Hori horrela, azken urteetan moduan, kanpoaldean, belardian izan zuten meza, eta gero, mokadutxo izan zen bertaratutakoentzat.



BLANCA AGUILLO

FERIXA NAGUSIKO JAIK 2022



600 lagunendako paella egin zuten Herri Egunean Elgetan. AITOR AGIRIANO



Azoka gazi-goza izan da; Aldundiak jarritako oztopoak salatu eta animaliarik ez eramatea erabaki dute ganaduzaleek. A.A.



Bergarako erraldoi taldea Elgetan. A.A.



Gazte talde bat barikuan egindako umeen bazkarian. A.A.

Ganadu azoka hutsik domekan

Bi urteko etenaldiaren ostean bazen festa gosea Elgetan, eta ondo joan dira jaiak. Ganaduzaleek iragarri moduan, ordea, animaliarik gabeko ganadu feria izan da aurten, eta nabaritu egin da bisitari kopuruan. Galdera orain da: aurrerantzean zer?

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Jai Batzordea uztailaren 19an elkartuko da festen balorazioa egiteko, baina jaietako lau egunek emandakoa ikusita aurreratu daiteke 2022ko festak giro onean joan direla eta nork bere gustua egiteko aukera izan duela. Kalea herritarren topaleku izan da, eta mahaiaren bueltan, ikuskizun baten aitzakian edo musikak lagundutako dantza-meneoan umorea eta festa giroa izan dira nagusi, nork bere neurria hartuta.

Mozorro jaitsiera egin ostean, Ekain Askasibarrek hartu zuen alkate makila, eta herrian elkartutako kolore guztietako mozorroek ekarri zuten zalaparta eta jai giroa.

Barikuan arrakastatsua izan zen umeen bazkaria. Gazte talde handia elkartu zen guraso elkarteak antolatutako otorduan. Gozategiren kontzertuak, berriz, plaza bete zuen. Kontzertu ona egin zuten, eta nabarmentzekoa da zenbat gazte erakarri zituzten. Egun berean egin zuen jaioberriei

eskaintako ekitaldia Udalak; bost ume jaiotako Elgetan azken urtean, eta hiruk jaso zuten ongetorri zapia. Karnele eta Eñaut Gisolak egindako herri kiroltako erakustaldia, berriz, ikustekoa izan zen.

AURTENGOAREN OSTEAN, IKUSTEKO DAGO GANADU FERIARIK EGINGO OTE DEN BERRIZ ELGETAN

Herri bazkari jendetsua

Ia 600 paella-errazio banatu ziren zapatuan. Plazan jarritako mahaia bete egin ziren eta saihekirako txartelak agortu egin ziren. Herri Eguneko bazkaria da, zalantzarik gabe, jaietako ekitaldirik jendetsuena Elgetan.

Aurten, gainera, Bergarako Erraldoi Taldearen parte hartzea izan du Herri Egunak. Lehen aldiz etorri dira Bergarako erraldoiak eta kilikiak herrira eta mugimenduz eta musikaz bete zituzten bazterrak.

Ganadurik gabeko feria

Jaiei izena ematen dien feria izan da aurten albiste. Ganaduzaleek iragarri moduan, animaliarik gabeko ganadu feria izan da. Aldundiarekin haserre jarraitzen du ganadu azoka antolatzen laguntzaile nagusi Agustín Beretxinagak. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako bi adierazpen gezurra direla esan zuen domekan. "Esan dute azken momentura arte Udalarekin negoziatzen ibili direla feria antolatzeko. Feria hau antolatzen ni ibili naiz eta Udaleko inorekin ez dira jarri kontaktuan.

Nirekin jarri ziren kontaktuan ostegunean, 12:30ean, eta ordu-rako erabakita genuen feria ez egitea, nahikoa denborarik ez genuelako. Bigarrena: esan dute gai politikoa izan dela, eta hori ere gezurra da. Udalak nahi zuen feria hau egitea; ganaduzaleok erabaki dugu ez egitea. Gainera, nik antolatu dut feria bai EAJ-rekin, bai Aralarrekin eta orain EH Bildurekin. Niri hori ez zait ezer inporta". Hala, aurten gertatutakoaren ostean ikusteko dago aurrerantzean zer pasako den eta Elgetak berreskuratuko ote duen ganadu feria. Kolokan dago, oraingoz, kontua.

Pilota jaialdiak jarri zion kolorea azoka egunari. Frontoia lepo bete zen binakako partida eta Lasoren eta Peña II.aren arteko finalerdia ikusteko. 22-15 nagusitu zen Laso, eta atzo Labriten jokaturako lau eta erdiko San Fermin torneooko finalerako txartela eskuratu zuen.

Jaiak amaituta, egunerokora itzuli dira elgetarrak, baina bada oharkabean pasa ezin den datu bat: hurrengo bi egunetan ia ehun COVID autotest saldu zituzten Elkoro botikan. Agortu ere egin ziren martitzenean.

"Ez genekien ez noiz ez nolakoa izango zen finala"

AINIZE LIZARRALDE 'CONQUIS'-EKO IRABAZLEA
30 urteko antzuolarrak irabazi du 18. 'Conquis' saioa

Maidar Arregi ANTZUOLA

El conquistador del Caribe saio-ko irabazlea da –Jokin Ramosekin batera– Ainize Lizarralde. Garaipenaz gozaten orain hasi dela aitortu dio GOIENARI.

Zer moduz zaude?

Oso pozik nago, ezin sinetsirik eta gertatutako guztia oraindik ere barneratzen.

Espero zenuen bi irabazle izatea?

Buruan %100ean beste proba bat egin beharko genuela uste genuen Jokinek eta biok. Horretarako, azken unera arte lehiatzeko asmotan joan ginen azken saiora, eta prestatuta geunden horretarako. Oso gogorra izan da aspektu horretan, zeren ez baikenekien zer gertatutako zen eta zer egin beharko genuen.

Itxaronaldia zaila egin zaizu?

Guk emaitza zein izango zen ez dugu jakin astelehen honetara arte. Zazpi bat hilabeteko ziurgabetasuna izan da, eta horrek sekulako higadura emozionala eragiten du. Ez dakizu ezertxo ere! Horregatik, entrenatzen eta prestatzen egon naiz orain arte; baita Jokin ere. Ez genekien ezer; ez noiz ez zela erabakiko zen finala.

Zergatik aurkeztu zara?

Erronka bat izan da niretzako; oso pertsona lehiakorra naiz eta horrelako abenturak gustuko ditut. 19 urterekin egin nuen lehenengoz *casting*-a, eta beti izan dut har hori barruan. Kamerek atzera bota nauten arren, bigarrenez aurkeztu nintzen.



Ainize Lizarralde finalean. EITB

Zer izan da gogorrena?

Jejen euliak jasatea izan da gogorrena, zalantzarik gabe. Arroparen gainetik sartzen ziren, ikaragarria izan da. Ordu hilak ere asko izan dira, eta, gainera, oso goiz iluntzen du han. Goizeko seietan argitzen du eta arratsaldeko seietarako ilun dago.

Igarri duzu kalean ezagunagoa zarela?

Egia esan, eskerrak Antzuolan bizi naizela. Bai Antzuolan edota baita Bergaran ere nahiko ezaguna nintzen eta ez dut apartekorik igarri. Agian, zertxobait nabarmenagoa da jai giroan. Zorionez, nire bizitza berdin-berdina da.

Berrito joango zinateke *Conquis* saiora?

Ba, agian, bai, ez nioke ezezko-rik emango kapitain lanetara joateari, adibidez.

Gorlako aisialdi-gunea berreskuratu dute

Auzolanean jardun dute asteburuan Gorlako aisialdi-gunean. Arrola, Udala eta Gorla elkarteak elkarlanean aritu dira txukuntze lanetan. Egindako garbiketa lanei azken ukitua emateko, ordea, herritarrei hurrengo deialdian parte hartzeko ere eskatu diete

M.A. ANTZUOLA

Gorlako umeendako jolasgunea berreskuratu dute auzolanean Arrolak, Antzuolako Udalak eta Gorla elkarteak. Gorlako iturriari ere erreparatu diote, eta hurrengo auzolan horretarako herritarrei parte hartzeko dei egin diete. "Badira hamarkada batzuk Gorlan lizar, pago eta haritz ugari landatu genituela elkarlanean. Beraz, Arrolaren 50. urteurren honetan ezin hutsik egin. Gainera, auzolanak badu xarma berezi bat beste inon topatzen ez dena: proiektu komun baterako talde lan motibatua izatea, hain zuzen ere", diote Arrolako kideek.



Auzolanean Gorlako aisialdi-gunean. ARROLA



IBARRE
NEKAZALTURISMOA
AGROTURISMO

**Irimo Goena auzoa
ANTZUOLA**

943 76 63 10
www.ibarre.com



Gora Antzuolako jaiak!



672 69 66 30
Kalebarren 1 • Antzuola
helburu@helburu.com

Ondo ospatu jaiak!!



Betile liftinga



Animatu gure zerbitzu berriak ezagutzera:
Jai onak izan!!

Sagasti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

Manikura eta pedikura iraunkorra





Neska-mutikoak Euskararen Eguna ospatzen. IDOLAZ

160 gaztetzok dihardute udalekuez gozatzan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Joan den ekainaren 30ean abiatu zituzten 160 neska-mutikok Antzuolan udaleku irekiak. Askotariko ekintzak egiten dihardute egun hauetan, eta, taldeak sortu ahala, bakoitzak bere begiralea aurkitzeko erronka izan zuen herrian barrena. Iaz egindako jolasak ikusten ere jardun dutela dio Idolaz aisialdi taldeko hezitzaile Zumaia Elkorok: "Gaztetzoei ikaragarri gustatzen zaie aurreko urteetan egindakoak berriro ikustea. Hala, iazko eta 2019ko bideoak ikusten jardun dugu elkarrekin".

Euskararen Egunak ere, noski, izan du lekua. "Antzerki baten bitartez Euskararen Egu-

na irudikatu dugu. Gazteleraz egiten guren begiraleak bahu egin ditu *superheroi* batek, eta gaztetzoei euren begiralea bilatu beharra zuten".

Zikloka antolatuta

Zikotan banatutako ekintza sorta dute eginkizun. "Astea hiru ziklotan banatu dugu eta hainbat jardura egin ditugu: *Altxorren bila*, igerilekura, ur-jolasak, txorrotara, mendira, pintxo lehiaketa, Masterchef... baita mozorroa jantzi eta *Got talent show*-a ere; eta, nola ez, Antzuolako eguna ere ospatu dugu. Hala, uztailearen 14ra arte, harremanak indartzen eta sustatzen jardungo dute.

Landatxopeko erretiratuek Balmasedara irteera egin dute

Balmasedan izan berri dira erretiratuak. "Hango erretiratuen etxean harrera ezin hobea egin ziguten. La Encartada lantegian ere izan ginen, eta 1892. urtean fabrika abian jarri zenean gertatu ziren aldaketa sozialak azaldu zizkiguten. Txapelak egiteko darabilten prozesua ere ezagutu genuen bertatik bertara", kontatu dute Landatxopeko kideek.



JOXE ANGEL ARBULU

Nerea
Ondo ospatu jaiak!!
Kalebarren 13 ANTZUOLA
Tel.: 659 57 50 97

Marilina mertzeria
Gora Antzuolako jaiak!
Herriko plaza 4
ANTZUOLA
Tel.: 677 46 63 21

KLYKATU
Kalebarren 1, behea
943 78 60 54
Ondo ibili jaietan!

UZAR
LIBURU DENDA ESTANKOA
Ondo ospatu jaiak!
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxa: 943 76 60 62

MARTIN OKINDEGIA
Lantegia: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35
Ondo ibili jaietan!!

Amets Berezaio  
Salmenta, konponketa mekanikoak, txapa eta pintura
Gora Antzuolako jaiak!
Berezaio auzoa - Oñati - 943 71 80 85 / 943 78 25 92
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77

ANTZUOLAKO JAIAK 2022



Alardea berriro bete-betean

Herriko nagusienei omenaldia • Txistulariak ere protagonista • Musikaz blai txosnetan

Kuadrillen jolasak berriro bueltan • Oinarin, dantzarako gertu

AITOR AGIRIANO

*Umorez, euskaraz eta
elkar zainduz goza dezagun!*



ANTZUOLAKO
UDALA

www.antzuola.eus

DOMEKA 10

09:30 TXIRRINDULARI LASTERKETA. LXXV. Antzuola Saria, Iñaki Leteren oroimenezkoa.

14:15 JUBILATUEN BAZKARIA, Herri ikastetxean.

EGUAZTENA 13

18:30 ARROPA BILKETA Andramanuelak eta Anelkarrekin.

EGUENA 14

12:30 JAIEN HASIERA: Umeen ikuskizuna, plazan.

13:30 UMEEN BAZKARIA Pausokaren eskutik.

18:00 KALEJIRA Buruhandiekin eta Bergarako erraldoiekin.

19:00 TXOSNEN IREKIERA.

19:00 KALEJIRA Alboradak txistulari taldearekin eta trikitilariekin.

19:45 ANTZUOLAKO ZAPIA JARTZEA. 2021eko eta 2022ko jaiak bitartean jaiotako umei eta herriko bi nagusieni.

JAIETAKO EGITARAUUA

20:00 IKURRIN DANTZA Oinarin dantza taldearekin; Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzea, eta udalbatzaren aurrekoa.

20:30 KLAK!SON eta LEMAK taldeen kontzertua txosnetan.

21:30 KANTU AFARIA Bentzaharreko Mutiko Alaiak taldearekin, plazan.

00:00 HONTZAREN JAITSIERA.

EGUBAKOITZA 15

10:00 TXISTULARIEN GOIZERESIA Alboradak txistulari taldearekin.

11:00 GASTRONOMIA LEHIAKETA Kalebarrenen. Aurtengo jaki nagusia: hanburgesa. Nahi den erara egingo da.

11:00 UMEEN JOLAS PARKEA, patioan eta plazan.

13:00 Gastronomía lehiaketako SARI BANAKETA.

13:15 DASTAKETA Kalebarrenen.



2019ko ikurrin-dantza. GOIENA

14:30 HERRI BAZKARIA Kalebarrenen.

16:30 UMEEN JOLAS PARKEA, patioan eta plazan.

18:00 KUADRILLA-JOKOAK. Leaktibairen eskutik. Eta GESALTZA TXARANGA.

22:00 AMAK taldearen kontzertua plazan.

22:30 INGUMA, REBEL NOISE eta MAIXA TA MALAKIAS taldeen kontzertuak txosnetan.

00:00 BADA GIRO erromeria taldea, plazan.

ZAPATUA 16

09:55 KANOIAK SUTZEA.

10:00 TXISTULARIEN GOIZERESIA Alboradak txistulari taldearekin.

11:00 Umeendako eta helduendako MAHAI JOLASAK, Jolasenearen eskutik.

11:30 BERGARAKO MUSIKA BANDAREN kalejira.

12:00 UMEENTZAT IKUSKIZUNA: *Kantu kolore.*

12:30 BERGARAKO MUSIKA BANDAREN kontzertua, Enrike Txurrukaren zuzendaritzapean, Zurrategin.

13:30 UR ZEZENA.

19:00 ANTZUOLAKO ALARDEA. Desfilea, herrian zehar; ekitaldi nagusia, plazan.

20:30 Elektrotxuffa ELEKTROTARANGA.

22:45 JOSELU ANAIK taldearekin erromeria, plazan.

23:00 Kontzertuak txosnetan: BERANDU BAINO LEHEN, LA REKBA, TXAKURRAK eta ALTXA.

DOMEKA 17

07:00 GOTZ elektrotaranga.

12:00 SALDA ETA TXORIZOA Landatxope jubilatuta elkartearen eskutik.

12:30 VOCES DE NAVARRA taldearen musika saioa, plazan.

14:30 HERRI BAZKARIA eta NAFARROA KANTA TALDEA, Ez Dot Moztuko Bizarra elkartek antolatuta, plazan.

17:00 KALE ANTZERKIA: *Txus and Txu.*


18:30 Orekatu Oreka Eskolaren SLACKLINE IKUSKIZUNA.

20:00 LARRAIN DANTZA Oinarin dantza taldearekin.

21:00 ERROMERIA Alaiki taldearekin.

00:00 HONTZAREN IGOERA.

00:15 ERROMERIA Alaiki taldearekin.

amaia*Ondo ibili jaietan!!*

Aiherra kalea 2 - Antzuola - Tel.: 649 66 27 91

oerlikon
balzers

Ondo ibili jaietan!!

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2
20577 Antzuola
Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

www.oerlikon.com/balzers/es



Maria Luisa Mendizabal eta Vitaliano Fernandez, Sagasti auzoan. A.M.

Mendizabali eta Fernandezi omenaldia

90 urteko langa gaindituta, Maria Luisa Mendizabali eta Vitaliano Fernandezi Antzuolako zapi berria jarriko diete udal ordezkariak; eta 2021eko herriko jaietatik 2022ko jaiak bitartean jaiotako hamabi haurtxoei ongiatorria egingo diete

Maidar Arregi ANTZUOLA

Jaioberriei eta herriko nagusieinei harrera egingo diete aurten ere Antzuolako udal ordezkariak. Hala, 91 urte dituen Vitaliano Fernandez Sanchezek eta 94 urteko Maria Luisa Mendizabal Aiastuik jasoko dute herriko nagusienak izatearen aitortza eta omenaldia. Ekitaldia uztailearen 14an, eguena, egingo da, udaletxeko osoko bilkura aretoan, 19:45ean.

Vitaliano Fernandez jaiotzez Avilakoa da eta 65 urte inguru daramatza familiarekin Antzuolan bizi izaten.

Maria Luisa Mendizabal, aldiz, jaiotzez oñatiarra da, baina ezkondu eta familia Antzuolan sortutakoa da; bizitzaren parte handiena Antzuolan daramatza, gainera. Biek ala biek omenaldiaren albistea jaso dutenean irribarrez eta "pozik" hartu dute berria.

Iaz jaiak ospatu ez ziren arren, herriko nagusienek zapia jaso zuten; orduan, 95 urte zituen Mertxe Lizundiari eta 94 zituen Jose Mari Kortabarriari egin zitzaizen omenaldia, hain zuzen ere. Nabarmendu behar da 90

urteko gorako 28 antzuolar daukela gaur egun: 11 dira gizonezkoak eta 17 emakumezkoak. 80 eta 90 urte bitartekoen artean, berriz, 109 herritar daude; horietatik 45 gizonezkoak dira eta 64 emakumezkoak. Bi kasuetan, emakumezkoen biztanleria kopurua altuago da.

Hamabi jaioberri

2021eko jaietatik 2022ko jaietara bitartean, hamabi haur jaio dira, eta horiei jarriko diete Antzuolako udal ordezkariak udaletxeko osoko bilkura aretoan zapi berria. Zehazki, bost neskatilari eta zazpi mutili.

Zapi berria

Aurtengo jaietan diseinu berriko zapia estreinatuko dute antzuolarrek. Oier Peñagarikano antzuolarrak egindako diseinua dauka zapiak. Asmoa da, gainera, urte batzuetan diseinu bereko zapiak kaleratzea, jaien baitan. Kolore gorrixka dauka eta zuziri berde baten alboan *Antzuolako jaiak* leloa darama bandera artean. Hain zuzen ere, herriko tabernetan 3 euroren truke egingo da salgai.

ERREKA

Access Automation

Plastics

Fastening Solutions

Care

www.erreka.com

Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela

KALEBARREN 5 943 76 62 90 ANTZUOLA

EUSKO LABEL

EUSKAL OKELA

*Aurten bai!
Ondo ibili
jaietan!*

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bi urteren ostean, Mairuaren Alardea uztailearen 16an, zapatua, ospatuko da. Pandemiak eragindako etenaldi zailaren ostean, berriro "ilusioz" ekin dietela Alardea plazan ikusteko lanei aitortu dio Pilar Etxaniz Alardearen Elkarteko kideak GOIENARI: "Alde batetik, esan beharra daukagu aldapan gora egiten dela Alardea berregitea. Baina, bestalde, ilusioz hartu dugu berriro normaltasunez Alardea Herriko Plazan ikustearen aukera. Hortaz, uste dugu aurten go Alardea duintasunez irtengo dela, zeren, zentzu horretan, jende berria hurbil dadin lan egin baitugu; eta lortu dugu belaunaldi berrien parte hartzea. Hala, aurten ere polita izango dela uste dugu".

Alardearen sozializazioa

Nahiz eta 2019. urtean ospatu azken Mairuaren Alardea, elkartetik saiatu dira herrian Alardearen oroimena bizirik mantentzen azken urteotan; horretarako, 2020an eta 2021ean Alarde egunerako bideotxoak kaleratzeaz gain, Herriko Pla-



Mairuaren Alardea, Herriko Plazan, 2019an. GOIENA

Kanoiak berriro sutzeko gertu

Pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, "ilusioz, eta gogotsu" ospatuko dute uztailearen 16an Mairuaren Alardea. 180 herritar inguruk parte hartuko dute

zan kanoiak sutu zituzten, keinu gisa.

Lourdes Odriozolak, berriz, ikerketa historikoa jasotzen duen lana egin du, eta aurkeztu ere egin dute Antzuolako Udalarekin batera. Gainera, Alardearen komunitate eta kultura balioa irudikatzen duen horma-irudia egin dute elkarlanean Jone Larrañaga Gorritxo eta Oier Peñagarikano antzularrekin.

Elkarteko kideak Alardearen izaera presente egon dadin urte osoan saiatzen dira, alegia. "Alardearen elkarteko lana ez da jailetako zapatuan ikusten den Alardearen eguneko errepresentazioa ikustea eta antolatzea soilik. Baita beste hainbat ekintza ere; batez ere, Alardea ezagutzera emateko eta sozializatzeko zein haren balioa transmititzeko egiten direnak. Esaterako, Xabier Sagasta ilustratzailea egiten ari den komikia".

Nabarmendu dute Alardea herri osoaren adierazpen kulturala dela, tradizioz datorrena eta egungo balioetara egokitu dena. "Berezia da, alde batetik, halako ezaugarririk ez dutelako beste alardeek. Horregatik, aberastasun



GEZALUS
ELEKTRIZITATEA

650 39 80 88

**Gremioen koordinazioa,
era guztietako instalazioak,
argiztapen lanak, berrikuntzak...**

Gora Antzuolako jaiak! Ondo ibili!

MUJIKA

HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434

Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



Gora Antzuolako jaiak!!


horri eusteko herritarren parte hartzea nahitaezkoa da".

Aurten, gainera, *sketchrawl* deritzon marrazki ekimena egingo dute. Hau da, Alardea gertatzen ari den unean bertan, margolariak Alardea margotu eta ilustratuko dute, 19:00etan hasita.

Komikia

Alardearen gizarteratze prozesuan, aipatu berri moduan, beste urrats bat egin du elkarteak, eta Xabier Sagasta ilustratzailearekin komikia egiten hasiak direla aurreratu dute. Hala, urte hasieratik dihardute komikiak zein eduki eta hizkuntza izango duen eta grafikoki zein forma izango duen adosten.

"Mairuaren batailaren mitoan oinarritzea bazen ere komikiaren lehen zatiko planteamendua, gai sakontzerakoan interesgarria iruditu zait Alardearen sustrai historikoak labur azaltzea, eta historian zehar izandako alarde mota ezberdinak erakustea komikiaren bitartez. Antzuola oraindik Antzuola ere ez zenean, Uzarraga bezala Bergarari anexionatuta zegoeneko erreferentzia



Antzuolako baserrien ilustrazio lana. XABIER SAGASTA

egitea, alegia", azaldu du Xabier Sagasta ilustratzaileak.

Modu horretan, ondorengo aurrekari historikoak jasoko ditu komikiak: lehenik, 1484. urtetik 1665. urtera bitartekoa, Alardea Bergaran ospatzen zutenekoa, eta, era berean, Uzarragako eta ondoren Antzuola izango zeneko herritarrek baserrian zeuzkaten armak soinean zeramatatela Bergarara joan behar izaten zutenekoa, hain zuzen ere. "Saso hartan, egun batzuetarako baserritarrendako esfortzu handia zen Bergarara joatea urtean behin zerbitzu hori eskaintzeko. Erakutsi nahi dut komikian modu laburrean nola lortzen duten Antzuolara ekartzea Alardea. Izan ere, Foruen Legeari esker, herrian bertan soldaduska egiteko aukera zuten euskal herritarrek". Bigarrenik, 1665. urtetik 1774. urtera bitartean, Antzuolan ospatutako alardeak jasoko ditu. Hau da, arma erakustaldiei eta herrian zeuden armen inbentario moduko bati egingo zaie erreferentzia. "Armen inbentarioa dela eta, urtero horrelako desfileak edo erakustaldiak egi-

ten hasi ziren". Hirugarrenik, 1876tik 1879ra bitartean, lehen Alarde folklorikoak islatuko dira komikian. Eta azkenik, 1880an egindako Mairuaren Alardea.

Antzuolako baserria

Horren guztiaren bitartez, komikiak du xede Antzuolako paisaia eta baserria erakustea. "Komikiaren hasieran zerbait familiarra nahi nuen aipatu, eta ez bataila epiko bat. Alardeak daukan ibilbidea eta helburua, hain zuzen ere, herritartasunarekin lotuagoa baitago eta herriari begira dago. Ez, aldiz, gertakizun epiko bati nahiz mairuaren aurkako borrokaldiari. Azpimarratutako hori Alardearen identitatearen parte ere baita. Laburtuz, lehen zatian, festa bat izatera iritsi zen artean, zein ibilbide eta prozesu izan duen Alardeak kontatu nahi dut".

Ilustrazioari dagokionez, benetako kontakizuna modu tradizionalean eta figuratiboan marraztuta dago. Mitoa aipatzen denean, ordea, ilustrazio lana abstraktuagoa izango dela dio Sagastak.



ameskua arotzak

Ametsak egurrean...

☎ 688669033

📍 Ameskua Arotzak

✉ ameskua@outlook.es



Gora ANTZUOLAKO jaiak!

*Aurten bai!
Ondo ospatu jaiak!*

ilaia
ILE APAINDEGIA

📍 Kalebarren 1, behea ANTZUOLA
☎ 943 76 63 33
✉ ilaia83@hotmail.com

Beñat Alberdi ANTZUOLA

Txistulariak herrietako festetako paisaiaren parte izan ohi dira, eta Antzuolan beteko dute eginkizun hori, beste urte bezelako. Alborada txistulari taldea arduratuko da txistuaren soinua jaietan presente egoteaz.

Jaietako lehen egunean, egunean, ohiko kalejira eskainiko dute, 18:00etan. Baina aurten, aurrez ez bezala, Bergarako erraldoiekin batera izango da lana; buruhandiak ere lagun izango dituzte.

Erraldoiak trikitilariak ordezkatuko dituzte osteran; kalejiran jarraituko dute, ordea, trikiti soinuekin, 19:00etan.

Txistularien diana

Txistu jotzaileek lanen bat izaten badute jaietan, diana jotzea izaten da, eta Antzuolako jaietan egubakoitzean esnatuko dituzte antzuolarrak Alborada taldekoek, goizeko hamarretan.

Zapatuari begira jarrita, ordu berean aterako dira txistulariak, lo daudenak esnatzeko edo etxeratu ez direnak laguntzeko. Garrantziari lotuta, ordea, egun inportantea izango da.



2019ko Alardean txistulariak parte hartzen. GOIENA

Txistulariek ez dute hutsik egingo jaietan

Lehenengo aldiz Bergarako erraldoiekin batera egingo dute kalejira, buruhandiak ahaztu gabe. Trikitilariekin ere kalez kale ibiliko dira Alborada txistulari taldeko kideak ostiralean, eta bandarekin Arrola mendi taldearen ereserkia joko dute estreinakoan

Izan ere, herriko bandak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu, 11:30ean eta 12:30ean, hurrenez hurren. Baina txistulariek kontzertuan parte hartuko dute, Arrola mendi taldearen ereserkia bandarekin batera jotzen.

50. urteurrena ospatzen ari da taldea eta horren harira konposatu du abestia Jose Ramon Vitoria konpositoreak. Hala ere, bada mendizaleak eta txistulariak elkartzen dituen pertsona bat: Jose Inazio Jauregi Bittori. Bai Arrola mendi taldearen, bai Alborada txistulari taldearen sortzaileetako bat izan zen Jauregi.

Ereserkia, estreinakoan, txistulariek jo zuten 50. urteurrena ospatzeko ekitaldian. "Ikaragarriko ereserkia da, erraza kantatzeko, eta erritmo bizia du. Hitzetan, guretzat oinarri diren gauza garrantzitsuenak ditu: natura, herria eta poza, esaterako", argitu zuen Arbuluk, Alboradako zuzendariak, urteurreneko festan. Oraingoan, bandarekin batera joko dute.

Jaietako egitarauarekin jarraituta, herriko Alardean musika jarriko dute txistulariek.

SUKALDEKO ALTZARIAK

Harizki

MOTA GUZTIETAKO SUKALDEEN PROIEKTUAK ETA INSTALAZIOAK

Zurrategi 4, behea. • 943 78 71 80 • 637 436 500 • harizki@hotmail.com • www.harizkicocinas.com

Gora
Antzuolako
jaiak!

Aurten bai! Ondo ospatu jaiak!

Aitz Garbi - Arin - Gorosti - Koxkor
Larrea - Mox - Ongi etorri - Gailur



Huntza taldeak 2019an txosnetan eskainitako kontzertua. GOIENA

Kontzertuak nagusi txosnen egitarauan

Jaiak lau egun irauteak eta egun nagusien indarrak ez diote aparteko aukerarik uzten Txosna Batzordeari programa zabala aurkezteko. Hala ere, egun bakoitzean eskainiko dute kontzertu bat, behintzat, eta txarangek euren presentzia izango dute.

Beñat Alberdi ANTZUOLA

Bueltan dira txosnak Antzuolako jaietara eta egunen domekara arteko programa osatu dute. Jaietako protagonismo nagusia ez da euren kontu joango, baina edozein parrandazalaren bidaide izango dira jaiak iraun bitartean. Kontzertuak eta txarangek antolatatu dituzte, nagusiki.

Antzuolako jaiak lau egun irauten dute, ordea, eta Kuadrillen zein Mairuen eta Kristauen egunek ondo beteta dute egitaraua. "Ez dugu tarte askorik gauzak antolatzeko", esan du Mikel Arregik, Antzuolako Txosna Batzordeko kideak. "Baina guk ere girotuko ditugu jaiak".

Txosnen irekiera

Eguenean 19:00etan zabalduko dituzte txosnak eta hasiera emanango diote jaien zati partikularrari. 20:30ean, kontzertua eskainiko dute Klak'son eta Lemak taldeek. "Bietan antzuelarrak dira partaide", gaineratu du Arregik.

Kuadrillen Eguenean, egubakoitzean, ohi ez bezala eta lehenekoz, txosnak zabalik izango dituzte eguerdiko poteoak iraun

bitartean. Gauean, berriz, Inguema, Rebel Noise eta Maixa Ta Malakias taldeek girotuko dute txosnagunea, 22:30ean hasita.

Mairuen eta Kristauen Eguenean, zapatuan, eguna argitu ahalaz bat, sokasalto txapelketa egingo dute. "Salto ondo egiteko argia eduki dezatela", esan du txosnetako kideak. Horrez gain, Elektrotxufla elektrotxaranga ibiliko da kalez kale, 20:30etik aurrera, eta Berandu Baino Lehen, La Rekba, Txakurrak eta Altza Porru taldeek kontzertua eskainiko dute, 23:30etan hasita, txosnetan.

Domeka goizean, 07:00etan, Gotx elektrotxarangek eskainiko du ikuskizuna. "Ohitura txarrenek ez dira galdu behar", zehaztu du Txosna Batzordeko kideak. 20:30ean, Txost! taldea taularatuko da, eta kontzertu akustikoa egongo da ostean.

"Astean elkartu gara eta itxi ditugu itxi beharrekoak", esan du Arregik. Antzuolako txosnetan ez dituzte eraso matxista, homofobo eta arrazistak onartuko eta prest dauzkate, jazoko balitz, jarraituko beharreko jarraibideak.



Ondo ibili jaietan!

Ondarre, 9 ANTZUOLA • 605 70 53 30
garitanosl@gmail.com



Kuadrillen arteko jokoeak jarriko dute umorea

Ostiralalean, ginkana estiloko jolasetan parte hartzeko aukera izango dute adin guztietako herritarrek. Abenturazko kiroletan espezializatutako Leaktibai enpresak 'El Conquis' gogorarazten duten probak prestatuko ditu, 18:00etan hasi eta ilundu arte

Hasier Larrea ANTZUOLA

Datorren ostiral goizetik hasita ariko dira festazaleak jaietako ekintzetan parte hartzen, txistularien goizeresiarekin esnatu eta gastronomia lehiaketara plater goxoa prestatzeko gogoz. Goizeko hamaiketean, Kalebarrenen egingo dute aurten hitzordua, ezinbesteko osagaia hanburgesa izanik, haragizkoa, begetala edo beganoa. Nahi den erara egindako errezetei 13:00etan jarriko diete nota epaimahaikideek, eta ordu laurden geroago, herritarrek dastatu ahal izango dituzte.

Bien bitartean, haurrak izerditzten eta guzti arituko dira



2019an, adin guztietako antzuolarrak jokoetan parte hartzen. GOIENA

eskolako patioiko eta Herriko Plazako jolas parkeetan, baina ziur bazkalorduan indarrak hartu eta arratsaldean berriro itzuliko zaiela dibertitzeko gogoia.

Barrez lehertzera

Kalebarrengo herri bazkariko otordua, haurrentzat ez ezik, gazte zein helduentzat ere aproposa izango da, arratsaldera begira behar den bezala egoteko. Izan ere, arratsaldeko seietatik aurrera taldekako jolasetan primeran pasatzeko aukera izango dute kuadrillek. Aurten, Bizkai-ko Leaktibai enpresa arduratuko da jokoak antolatzeaz.

Bertako langile Julen Hernandok adierazi du lau begirale etorriko direla "pentsatzeko eta barrez lehertzeko" jokoak antolatzera. Ez du zehaztasunetan sartu nahi izan, partaideak "sorpresaz" harrapatzea delako dibertsioa ziurtatzeko faktoreetako bat. Hori bai, *El conquistador del fin del mundo* abenturazko reality-aren antza duten proba batzuk egongo direla aurreratu du.

Ondo pasatzeko saioaren iraupena parte hartzera animatzen

diren kuadrillen arabera izango da: "Ez baita berdina lau edo zortzi talderentzako probak antolatzea". Horren harira, astean zehar ez da izen-ematean mugimendu handirik izan, baina, Hernandoren hitzetan, litekeena da talde asko "azken unean" apuntatzea. Horrek ez dio mesede handirik egiten jokoak prestatzen ari direnei, baina ohituta daude azken orduko aldaketetara, eta ziur daude ez duela oztopo handirik ekarriko: "Zenbat eta partaide gehiago, orduan eta handiagoa izango da elkarren arteko pikea", azaldu du Hernandok.

Leaktibaiko langileak lehen aldiz izango dira Antzuolako jaietan kuadrillen arteko jokoak kudeatzen. Hala ere, esperientzia handia dute jaien bueltako ekitaldietan: "Gure espezialitatea ingurune naturaletan irteerak antolatzea da, baina zazpi urte daramatzagu herriko festetan ginkanak egiten; egia esan, jendeak ondo baino hobeto pasatzen du halakoetan". Garaiotan udaletatik jasotzen dituzten eskaerak igo egin direla gaineratu du Hernandok.



Aixa
frutategia

Buztinzuri 6. behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69

Gora Antzuolako jaiak!



Z Zabalo Iturgintza S.L.U.

*Aurten bai!
Ondo ibili jaietan!*

Era guztietako instalazioak egiten ditugu:

- Berogintza
- Iturgintza
- Aire egokitua
- Uren tratamendua
- Enpresa eta komunitateen mantenimendua
- Gas naturala eta propanoa
- Bainugelak

"Alardekoa urteroko ekitaldi nagusia da"

JON MATA OINARIN DANTZA TALDEKO KIDEA

Alardearen desfileko protagonistetako batzuk izango dira hilaren 16an dantzariak; zortzikoa eta trokeo dantzak egingo dituzte urtean ikusle gehien dituen saioan

Hasier Larrea ANTZUOLA

2019a ezkerro, antzularrek ezin izan dute Mairuaren Alardeaz gozatu. Aurten bai, aurten osagai guztiekin itzuliko da, Oinarin taldeko herriko dantzarien ekarpena barne.

Gogotsu al zaudete?

Kontuan hartuta orain gutxi hasi ginela pandemia aurreko dinamikara bueltatzen, zapatuko ekitaldi garrantzitsua izango da guretzat. Sanjuanetan egin genuen saio informal bat, baina Alardekoa desberdina izango da; nabari dugu presio puntu bat, jende asko erakartzen duen saioa da eta.

Nola eraman dituzue bi urteok?



Jon Mata, erdian, 2019ko Alardean zinta dantza egiten. GOIENA

Inflexio puntu bat bizi izan dugu, gelditi egon behar izan dugulako. Zaila izan da jendea dantzara berriz erakartzea, hau ez baita futbola bezalako. Orain, fokua 16 urteren bueltan dabilzan dantzariengan jarri dugu. Nagusien talderako jauzia egin dezaten dantzak irakasten ari gaitzaizkie.

Irakasleen ezkutuko lana garrantzitsua izango da.

Haiek dira Oinarinen eboluziorako giltza. Jadanik dantzaldietan parte hartzen ez duten arren, ezinbestekoak dira dantza taldean. Nolabait esatearren, eurak gabe gu ez ginatke dantzari izango, eta, era berean, gaur egun ez legoke ikasteko aukerarik.

Alardean Antzuolako dantza propioak aterako dituzue kalera.

Alardearen desfilea 19:00etan hasiko da, eta buelta pare bat emango ditu herrian. Ohi bezala, tarte horretan bost dantza mota egingo ditugu, zortzikoa da bat, eta trokeo dantzen multzoan sartzen direnak beste laurak; makil txiki, makil handi, arku dantza eta zinta dantza. **Zeintzuk dira desberdintasunak?**

Zortzikoa hanka jokoak bereganatzen du pisua, eta trokeo dantzetan eskuetan darabiltzagun tresnek. Izenek iradokitzen duten moduan, makilak, arkuak eta zintak erabiltzen ditugu. Bestalde, zortzikoa ez dago kapitainik; trokeo dantzetan, oster, bai.

Garai batean, generotan zeuden banatuta.

Emakumezkoek egiten zuten zortzikoa, eta gizonezkoek trokeo dantzak. Alardean azken hauek bakarrik parte hartzen zuten, urte batean erabaki zen zortzikoa ere sartzea, emakumeen presentzia bermatzeko. Handik aurrera, gizon zein emakume, denok dantzatzen hasi ginen, bai zortzikoa eta bai trokeo dantzak. Horri lotuta, esan behar da aurtengo trokeo dantzetako kapitaina emakume bat izango dela. **Urtean zehar, ze beste ekintzatan hartzen duzue parte?**

Orokorrean, bailarako dantzari egunean, Aratusteetako sorgin dantzan, sanjuanetan eta jaietan. Azken Dantzari Egunean, nagusietatik 40-50 lagunek parte hartu genuen. Jaietakoa da garrantzitsuena, zalantza gabe.



Goizper Group

Elkarlanean garatzen

Goizperren berrikuntza bultzatzen dugu merkatuari balio erantsia duten konponbideak eskainiz.

Aldaketara moldatzen gara.

Zure etorkizuna gure oraina da.

*Goizperrek antzular guztiei jai zoriontsuak opa dizkie!
baina gogoratu, aurten ere, arduratsu izan.*

Ihiztadura

Industrialia

Bioteknologia



www.goizper.com



Jokin Bereziartua BERGARA

Ekain bukaeran hasi ziren umeei eta nerabeei zuzendutako Udalaren udako eskaintzaren barruko ekintzak. Kirol campusa eta udaleku irekiak aintzat hartuta, 700 ume eta gaztetxo ari dira aurten egitarauaz gozaten. 128.000 euroko aurrekontua bideratu du Udalak bi ekimen horietarako; horri gehitu behar zaio Laboratorio museoan izaten ari diren eskaintza, osatzen diren taldeen araberakoa da-eta aurrekontua.

"Ahalegin berezia" egin dute

Udal Gobernuak adierazi duenez, aurten "ahalegin berezia" egin dute izen-emateari erantzuteko. "Eskaerara egokitu dugu eskaintza. Eskaera guztiei erantzun zaie, inor plazarik gabe utzi barik. Elkarlanean osatu dugu eskaintza, askotariko eragileen ekarpenekin. Adibidez, herriko ikastetxe guztiek, iaz hasitako bideari jarraituz, haien azpiegiturak jarri dituzte eskura". Eskaintza protagonisten beharretara egokitu dute: "Kirolaz, aisialdiaz, zientziaz, jolasaz eta beste hainbat arloz ari dira gozaten, hainbat gunetan. Agorrosinen, Laboratorioen, ikastetxeetan... Aurreko bi urteetan ez moduan, ohiko egoeran ari dira jardueraz gozaten".

75 metroko txirrista Arrizurin

Udaleku irekiotako berritasun aipagarrienetako bat izan da



Ume bergarar bat Arrizuri kaleko 75 metroko txirristan behera, martitzen goizean, ezin irribarretsuago. IRINA ALVAREZ

Nobedadez blai bueltatu dira betiko udalekuak

Pandemiak eragindako neurririk gabeko udaleku irekien barruan zeresana eman zuen martitzen goizean Arrizuri kalean jarri zuten 75 metroko txirristak; udaleku irekiak eta kirol campusa aintzat hartuta, 700 ume eta gaztetxo ari dira ekintzez gozaten aurten

martitzenean Arrizuri kalean jarri zuten 75 metroko txirrista. Goiza lainotua esnatu arren, umeek gozatu ederra hartu zuten txirristan behera, eta amaieran blai bukatu zuten. "Apar festa ekarri ohi duen enpresak jarri du txirrista. Zeresana eman du herrian, bolo-bolo ibili zen jarri genuenean. Txirristatik botatze-

ra animatu ziren umeak eta begiraleak oso gustura ibili ziren, flotagailu eta guzti", adierazi du udaleku irekiez arduratzen den Jarduneko Saioa Garitanok.

Aurten, 400 bat ume daude udaleku irekietan parte hartzen: "Beharakada txiki bat izan arren, pozik gaude ume kopuruarekin". Arrizuri kaleko aparkalekuak

astehenean kendu ostean, martitzenean jarri zuten txirrista ikusgarria. "Duela hilabete inguru egin genuen eskaera eta enpresako arduradunek aukeratu zuten aldapa; betiere, Udalaren baimenarekin. Berria izan da atrakzioa eta ume batzuei beldurra ere eman die; egia esan, abiadura handia hartuta ere beste

edozein puzgarriren antzera bermatzen da segurtasuna. Izan ere, probatu duten umeek ez zuten nahi etxera joan berriro bota barik...". Umeen gozamenarako izan bazen ere, merezi izan zuen kalea ibilgailuendako itxita izatea 10:00etatik 13:00etara. Txirrista aurrerago ere jarriko ote duten galdetuta, Garitanok dio ez dutela oraindik erabaki: "Ekarri dugun lehen aldia oso arrakastatsua izan da, baina ikusi behariko da hurrengo urtean ekartzeko moduan egongo garen. Akaso, lehenago ere ekar liteke; sanmartzialetan, adibidez".

Hilaren 15ean edo 22an amaitu

Udaleku irekiak hiru edo lau astekoak izan dira aurten. Hiru astekoa uztailearen 15ean bukatuko dute eta lau astekoa, berri, uztailearen 22an amaituko da. Aurten Haur Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailetako umeendako ez da udaleku irekirik antolatuta, baina ikastetxe guztiek antolatuta dituzte haiendako ekintzak. Kirol campusean ere hiru edo lau asteko eskaintza izan dute aurten eta ekintzak hilaren 15ean eta 22an amaituko dira, hurrenez hurren.

2023KO UDALEKUEI ITXOIN BARIK TXIRRISTA JAIETAN ERE EKAR LITEKEELA USTE DU JARDUNEK



JOKIN BEREZIARTUA

Lanen hasiera, bi egun geroago

Uztailearen 4an ziren hastekoak Agorrosinen belar naturala kendu eta artifiziala jartzeko lanak, baina eguaztenera arte Construcciones Artzamendi enpresakoak ez ziren hasi prestaketa lanekin; segurtasun txosten bat berandu heldu izanak eragin du atzerapena. Azken orduko arazoez

harago, espero dute zelai berria urri amaieran erabilgarri egotea; abuztuan lanak ez dira etengo, asfaltatzeaz arduratuko den enpresarekin koordinatuta egongo direlako Artzamendikoak. Argazkian, Kirol zinegotzi Aitor Arantzabal eta BKEko presidente losu Elorza, asteon.

Ibilaldia antolatu du San Joxepe, Legazpi eta Oreretakoekin

San Joxepe erretiratu elkarteak ibilaldi berezia antolatu du uztailearen 12rako. Legazpiko eta Oreretako erretiratuak etorriko dira Bergarara eta Goi-auzoko inguruetan egingo dute txangoa. 09:30ean irtengo dira San Joxepe elkartetik eta eguerdi aldera amaituko dute ibilaldia; ondoren, bazkari batekin borobilduko dute eguna. Parte hartu nahi duenak elkarteko ohiko bulegoan eman behar du izena.

Gainera, ekainaren 30eko San Martzialgo txokolate-janarekin pozik daude. Pandemiako neurri barik gogotsu itzuli ziren: "60 lagundik gora igo ziren, aitzakia batekin edo bestearekin. Ekitaldia oso ondo irten zen".

Arrizuriaga jauregiko proiektuaz jarduteko bilera hilaren 12an

Udal Gobernuak deituta, "bilera irekia" egingo dute uztailearen 12an, martitzena, Irizar jauregiko hirugarren solairuan (18:00). Arrizuriagaren etorkizuna erakitzen izenburupean deitu dute bilera, eta, aurreratu dutenez, saio horretan, jauregian garatzen ari diren obren eta ekipamenduaren garapenaren prozesua azalduko dute. Jauregia "kultura-jardueren erabilera askotariko" espazio bihurtzeko proiektua garatu aurretik erakina egonkortzeko lanak hasi ziren maiatzaren 16an, bost hilabete exekuzio-epearekin; Udalak Goitu Eraikuntzak enpresari esleitu zion obra, 547.964 eurotan -BEZa barne-.

Zubieta berritzeko lehen fasea, "espero moduan"

Zubitik Infernukuako bidegurutzerainoko tartea epeen barruan berritu ostean, asteon hasi dira lanak zubitik Mugertza kalerainoko zatian; bideak itxita jarraituko du, baina berritutako zatian zamalanetarako aukera izango dute bizilagunek

Jokin Bereziartua BERGARA

Zubieta kalea berritzeko lanen barruko lehen fasea, zubitik Bideberriko –edo Infernukuako– bidegurutzerainokoa, "espero moduan" eta epe barruan bukatu ditu Construcciones Zubieder enpresak; urtarrilaren 17an hasi ziren lanak eta lehen fasearen exekuzio-epea sei hilabetekoa zen. "Dagoeneko antzeman daiteke aldaketa, espaloiak lehengoak baino zabalagoak dira, eta Zubieta kaleko 6. zenbakitik 22. zenbakirainoko gunea asfaltatu berri dute; lehen fasean aurreikusita zegoen zati txiki bat bigarren fasearekin batera egitea erabaki da, bata bestearekin uztartuz", adierazi dute Udaletik. Hiru faseen exekuzio-epea 18 hilabetekoa da; fase bakoitzeko sei hilabete eta guztira 2.350.000 bat euroko aurrekontua dauka.

Zamalan puntualak

Errepidea itxita egon da lehen fasean zehar eta hala jarraituko du bigarren fasean ere, Zubieta kaleko 36. zenbakiaren parean –zubira igarotzeko zebra-bidean–. Lanak errepidean hasi ziren, eta oinezkoek albo bietako espaloiak erabili ahal izan zituzten. Bestetik, espaloietako lanak banaka egin dira, eta, beraz, txandaka albo bat



Zubieta kalea asteon, lanak amaitu dituzten tartean. JOKIN BEREZIARTUA

edo bestea egon da oinezkoentzat erabilgarri, eta hala izango da bigarren fasean ere. Horrez gain, atarrietarako sarbidea une oro bermatuko dute aurrerantzean ere. Kalea itxita egonda ere, dagoeneko asfaltatuta dagoen zatiko bizilagunek –Zubieta 6-22– autoan zamalan puntualerako sartzeko eta irteteko aukera izango dute, eta garaje erabilera duten lokaletara sarbidea ere baimenduta dago uztailaren 1a ezker. Hala ere, ezingo da aipatutako gunean autorik aparkatu.

Zubitik Mugertza kalera orain

Asteon ekin diote bigarren faseari, zubitik Mugertza kalerainoko tartean. Oraingoz, lanak ondo doaz, obrako arduradunetako batek GOIENARI adierazi dionez: "Lur azpian zegoen anabasa txukuntzea izan zen lanik zailena, obra hasi eta gutxira; igarri genuen urte luzeetan ez dela esku-hartzerik izan... Handik aurrera, ez dugu ezusteko aipagarrik izan". Dena ondo bidean, sei hilabete barru hasiko dira makinak lanean Masterrera kalean.

"Sanmartzialak askoz errotuago daude egun duela 50 urte baino"

BITTOR ALBERDI SAN MARTZIAL JAIEN ANTOLATZAILEA 50 urteren ondoren, aurtan azkenengoz bota du suziria

J.B. BERGARA

Domekan azkenengoz bota zuen erromeria iragartzeko suziria. Aurrerantzean ez da haren ardua izango ardo barraka deroan idi-gurdiarekin batera igotzea; pozik jaso zuen zapia eta oroi-garria alkatearen partetik.

Nola gogoratzen duzu duela 50 urteko San Martzialgo erromeria?

Egitarian apenas aldatu da ezer, baina jaiak bera askoz errotuago dago gaur egun bergararren artean duela 50 urte baino. Garai batean, tabernariak igotzen zuten ardoa erromerian saltzeko; duela 30 bat urte bururatu zitzaigun idi-gurdiarekin igotzea ardoa antzinako erara, eta horrela egiten jarraitzen dugu.

Espero zenuen alkateak zapi berezia eta oroi-garria jartzea igo aurretik?

Inondik inora ere ez nuen espero. Alkatea senitartekoa daukat eta sorpresaz etorri zitzaidan, eta hurbiltzeko esan: zapia jarri zidan lepoan eta Udaleko oroi-garria bularrean. Asko poztu ninduen izan zuten keinuak.

Nork beteko du zure hutsunea?

Uleritu dudanez, Udalak hartuko du lekukoa. Jaiak antolatzen aritu ohi den teknikaria egon zen domekan nire ondoan, ikasten. Uste dut teknikari horrek hartuko duela ardua aurrerantzean. 77 urte bete ditut dagoeneko eta lekukoa laga beharrean nengo; ea urte luzez heltzen zaion ohiturari.

Zelan joan zen domekakoa?

Oso gustura. Ederra da ikustea jende gaztea ze gogetsu igotzen



Alberdi, San Martzialen, domekan. GOIENA

den. Edadetuok, baina, bazkaldu ostean jaitsi egiten gara. Giro ederra zegoen, jende asko.

Nola gogoratzen dituzu zure gaztaroko sanmartzialak?

Urte batzuetan, duela 30 bat urte, gainbehera itzela bizi izan zuen erromeriak. Antolatzeko ere sekulako arazoak izaten ziren; soka dantza barregarri ere geratzen zen, ez zelako dantzari nahikorik egoten parte hartzeko. Jaiak gainbeheran zeterrela ikusita sartu ginen lagun batzuk, eta erabaki genuen ondo antolatzea; harrera onik ez bazuen, betiko desagertu zedila. Orduetik urtez urte puzten joan da festa, gaur egungo arrakastaraino. Horretan zerikusi zuzena izan du Udala pixkanaka lurra erosten eta txukuntzen joan dela; erromeriarako plaza ederra bihurtu da gaur egun, lehengoarekin antz gutxi duena.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Proiektuak · Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

21
K
KALITATEA
Entrega Registrada N°90/025



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

EAJ: "Lankidetzarako ez gaituzte kontuan hartzen"

Jeltzaleen arabera, EH Bilduren Udal Gobernuak "gardentasun eta lankidetzarako borondate falta" dauka, eta bereziki kezkatuta daude Arrizuriagako proiektuarekin: "Herriarrek bilera antolatu dute, oposizioarekin inongo lanketarik egin gabe"

Jokin Bereziartua BERGARA

EAJk "gardentasun eta lankidetzarako borondate falta" leporatu dizkio EH Bilduren Udal Gobernuari, bereziki Arrizuriaga jauregiaren proiektuen bueltan. "Aurreko agintaldian, EAJ Udal Gobernuan zegoela, lanketak hasi ziren kanpoko enpresa batekin eta oso kritikatu izan zen orduan oposizioan zegoen EH Bilduren partetik, eta mahai gainean geratu zen zirriborroa. Orain, hiru urte geroago eta oposizioarekin inongo alde aurretiko lanketarik egin gabe, inongo adostasunik lortu gabe –ez proiektuan, ezta partaidetza prozesuaren diseinuan–, herriarrei egindako lana eta aurrera begirakoak *saltzeko* bilera antolatu dute; hauteskunde kanpainan daude, hiru urtetan egin ez dutena azken urtean egin nahi dute", adierazi du EAJko bozeramaile Maite Agirrek, ohar bidez.

Arrizuriaga, 'coworking' gune

Arrizuriaga jauregia *coworking* gune bihurtu nahi dute jeltzaleek, maiatzean etxez etxe banatutako eskuorrietan azpimarratzen zuten: "Eraikinak hamaika erabilera izan ditzake, baina Arrizuriaga proiektu berritzaile baten kokaleku izan behar da, non herriko elkarteek kul-



EAJko Lander Arregi, Esther Ortiz de Zarate eta Joseba Elosua, Arrizuriagan. EAJ

tura, sormena eta berrikuntza landu ahal izango duten".

Hala, Agirrek dioenez, bereziki kezkatuta daude Arrizuriagako proiektuaren bueltan jaso duten erantzunik ezarekin: "Lanketa bat egin behar dela azpimarratu dugu eta horrela adierazi dugu hainbatetan, baina ez gaituzte kontuan hartzen. Hala ere, bilerak eta informazioa eskatzen jarraituko dugu, gure herriari zor diogulako eta lanean jarraitu nahi dugulako, baina EH Bilduren kudeaketa ereduak ez du batere errazten oposizioaren lan-

jarduna; ez dute jarduna inposizioaz harago ulertzen. Udal Gobernuak ez du oposizioarekin lanketarik egin nahi, bilera bat adosteko edota adostutako egutegia aurrera eramateko zailtasunak dituzte. Argi dago, urduri daude, kudeatzeko izugarritzko zailtasunak dituzte, eta horrek oposizioarekin harremana zailtzen du". Arrizuriagaz gain, azokarekin egoera berean daudela diote jeltzaleek: "Arrizuriagaren eta azokaren etorkizuna EH Bilduren gehiengo absolutuaren esku dago".



Paulo Bikuña –kimono zuriaekin–, Europako Pan Jiu Jitsu Txapelketan, Bruselan. P.B.

Urrezko domina Paulo Bikuñak Europako Jiu Jitsu Txapelketan

Txapelketa ofiziala ez izan arren, pozik dago Irlandan bizitako den bergararra: "Esperientzia oso aberasgarria izan da"

J.B. BERGARA

Gaur egun Irlandan bizitako den Paulo Bikuña borrokalari bergararra pozik dago bere azken lorpenarekin. Ekainaren 25ean Bruselan (Belgika) jokatu zen Pan European Jiu Jitsu Txapelketan urrezko domina eskuratu zuen, borroka diziplinaren modalitate brasildarrean. Txapelketa ofiziala ez izan arren –ofiziala IBJJF Federazioak antolatzen du–, oso gustura geratu zen egindako lanarekin: "Irlandan hiru edo lau alditan hartu dut parte jiu jitsu txapelketetan, baina oraingoa lehen aldian izan da niretzat Europa mailako txapelketa baten parte hartzen nuen; beste maila bateko esperientzia izan da, oso aberasgarria".

Mimoz prestatutako txapelketa

Txapelketan 480 bat borrokalari hartu zuten parte eta Bikuñak, gutzira, lau borrokaldi izan zituen,

bi kimonoarekin eta beste bi kimono barik. Kimonoarekin bi borrokaldi irabazi zituen eta urrezko domina eroran, eta kimono barik –*grappling* modalitatea– lehiatutakoetan bat irabazi eta bestea galdu zuen; zilarrezko domina lortu zuen. "Txapelketa baino aste bete lehenago, aurkariak zeintzuk ziren jakin nuenean, ikus nuen nire mailan [100,5 kilogramo gorako modalitatea] hiru borrokalari bakarrik geundela, eta nire helburu bakarra urrezko domina lortzea izan zen; herbeheretar bat eta frantziar bat izan nituen lehiakide".

Mimo handiz prestatu zuen Europako Txapelketa Bikuñak: "Gimnasioan ohiko entrenamenduak egiteaz gain, elikadura asko zaindu nuen txapelketaren aurreko azken asteetan 100 kilogramo gora ahalik eta kilo gutxien izateko. Ariketa kardiobaskularrak ere egin nituen".

San Kristobal jaiak asteburuan, autoen bedeinkapen eta guzti

Umore ukitu nabarmena duen egitaraua osatu dute. Hona ekin-tzak: gaur, 22:00etan, pinua jarriko dute, eta ondoren, saihes-kia, sagardoa eta txokolata banatuko dute. Bihar, 23:00etan, Obaneuke erromeria taldea izango dute; eta domekan, meza izango dute (12:00), eta ondoren, autoen bedeinkapena eta maria-txien kontzertua izango dituzte.

Uztailean ere zabalik egongo da azokako umeendako gunea

Ekain bukaeran, Oxirondo azokako goiko pisuko umeen gune librea itxi egin zuten, udan orain arte egin den moduan. Herriarren eskaerengatik, baina, gunea uztailean ere irekitzea erabaki du Udalak; abuztuan bakarrik itxi-ko dute. Astelehenetik egubakoitzera goiz eta arratsaldean egongo da zabalik eta zapatutan, goizez; domeketan itxita egongo da.

OHARRAK

Bergararren Arreta Zerbitzuaren ordutegia

Irailaren 15era arte, aste barruan, 07:30etik 14:30era.

Bedelkarren pintxo lehiaketako irabazleak

Lehen saria Sirimiri jatetxeko *Eusko-sando* pintxoak irabazi zuen; bigarrena, Amilotx tabernako *Txalupa*-k; eta hirugarrena, Zazpi tabernako *Pao de queijo da vovo* pintxoak.

Larramendiko Arnasa: zozketako zenbakiak

Izal landetxerako zenbaki saritua 1.249 da –ordezkoa, 654–; Lamaino Etxeberri landetxerako zenbakia 1.028 da –ordezkoa, 133–; eta Tartufo jatetxerako zenbakia 1.223 da –ordezkoa, 1.417–. Zenbaki sariturako azken eguna: uztailak 17 (659 29 79 65).

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Gernikako kimuaren inguruan bildu da Alai

Maiatzean omenaldia jaso bazuten ere, Iparragirre kaleko kimuaren aurrean elkartu ziren hamasei kide, atzo, pandemia aurretik hitzartuta zuten hitzordurako; hiru kantu abestu zituzten, aurreko belaunaldietako gizonak eta emakumeak omentzeko

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Maiatzaren 7an, Alai taldea omendu zuten Seminarixoan, berrogeita hamar urteko ibilbidea dela eta. Agur itxura izan zuen ekitaldi hark, taldean emango zuten azken kontzertua izango zela adierazi baitzuten. Dena den, berriro elkartu ziren atzo taldekideak, Bergarako Iparragirre kalean dagoen Gernikako kimuaren aurrean hiru abesti kantatzeko. Emanaldi informagaila izan bazen ere, bertaratu zirenek gustura entzun zituzten herriko gizonetako talde honen ahotsean *Gernikako arbola*, *Jeiki jeiki* eta *Euskal Herriko semeak gera* abestiak.



Hiru abesti kantatu zituzten Alaiako hamasei kideek kimuaren aurrean. J.J.

Omenaldia arbasoei

Alai taldeko Aitor Eraña kideak azaldu duenez, Gernikako kimua landatu zutenean abesteko asmoa zuten, baina pandemia dela eta "atzeratu egin da kontua".

Xabier Olabarria taldeko zuzendariak hauxe dio: "Lagun batek esaten duenez, hark hartu zuen Gernikako arbolaren azken ezkurra, eta Bergaran landatu zuen. Arbasoak han ibiltzen ziren, eta horiek omentzeko egin dugu ekitaldia". Aurreko belaunaldietako gizonak eta emakumeak eskaini dizkiete kantuak.

Jendeak gustura hartu du Alairen saioa, eta poza ematen dio horrek Olabarriari: "Jendea gustura geratzeko itzaropenarekin entseatzen dugu. Hori da gure asmoa".

Pello Garitano gogoan

Maiatzean eman zuten azken kontzertuan hamazazpi kide elkartu baziren ere, hamasei izan ziren atzo, duela hiru aste hil baitzen Pello Garitano, tartean, Alai kide eta herrigintzaren ikurra. Taldekideek ere gogoan izan zuten bergararra ekitaldian:

"Pello oso oinarrizkoa izan da taldean, baita beste hainbat esparrutan ere. Hura izan da taldearen arima horietako bat".

Kantatzea, zainetan

Talde honek kantatzea zainetan darama. Despedida egin zioten, bai, baina Erañak aurreratu duenez, litekeena da noizean behin hitzorduren bat izatea: "Alai talde bezala ez dugu jarraituko, baina puntualki zerbait ateratzen bada eta gogoia badaukagu, abesteko elkartuko gara nahi dugun guztiok".

Ildo beretik jarraitu du zuzendariak: "Batzuek jarraitzeko asmoa daukagu. Talde bezala ez dakit nola jarraituko dugun, baina badago talde txiki bat jarraitzeko gogoarekin".

Berri horrekin herritarrak poztu egingo direla eta, Xabier Olabarriak gaineratu du kaleak alaitzea dela euren asmoa, orain arte egin duten bezala: "Dagoneko ez gara horren gaztetxoak, baina abestea gogoko dugu. Niretzako, behintzat, ez da lana edo konpromisoa, zaletasuna da; beraz, jarraitu egin behar da horrekin".



Manso Optika

Gure

50.

urteurrena zurekin ospatu nahi dugu.

Etorri eta aprobetxatu gure eskaintza paregabeak!

%30

eko deskontua eguzkitako betaurreko guztietan eta orain, monturetan ere bai!



WWW.OPTICAMANSO.COM • 943 76 27 86 • IRIZAR PASEALEKUA 2, BERGARA

Herritarrekin batera gobernatzeko araudia

Astelehenean sartuko da indarrean herritarren parte-hartzea, lankidetzak publiko-soziala eta gardentasun instituzionala arautzeko ordenantza. Politika publikoak herritarrekin batera lantzeko bidea zabaltzen lagunduko duen ordenantza da

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Uztailaren 11n, datorren astelehenean, sartuko da indarrean herritarren parte-hartzea, lankidetzak publiko-soziala eta gardentasun instituzionala arautzeko udal ordenantza Oñatin. Martxoaren 31ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, aho batez. Izaro Elorza alkateak adierazi duenez, ordenantza honek ahalbidetzen du herritarren partaidetza eta ikuspegi komunitarioa duten ekimenak udal politiken erdigunean jartzea: "Helburua da herritarrak Gobernuaren parte izatea".

Elkarlanean

Politika publikoak herritarrekin batera egin behar direla uste du Oñatiko Udalak, eta horretarako bidea izango den arautegia da hau. "Ikusten dugulako gizarte konplexuetan sortzen diren erronkei erantzuna emateko beharrezkoa dela lankidetzak sustatzea, komunitateak artikulatzea eta politika publiko horiek batera egiteko bideak zabaltzea. Estrategiak aldatu beharra daude, eta horri bide emateko arautegia da", dio Elorzak. Gobernatzeko estrategiaren eta bide berrien bila ari dira eta dagoeneko pausoak ematen hasita daudela gaineratu du alkateak: "Emakumeen Etxearen prozesua eta gaztelekuak gazteekin egin direnak dira parte-hartzearen inguruan egindako bi, adibidez. Lankidetzak publiko-sozialaren inguruan, esaterako, Eltzia edo Emakumeen Kontseilua aipatu daitezke. Gizarte ehuna indartzeko bidean, berriz, Udalak jartzen dituen baliabideak daude, eragileak laguntza izateko eta aukerak emateko".

Administrazioaren irekieraren barruan sartzen da gardentasuna, eta hori lantzen ere badabil Udal Gobernuak. "Bi eratara uler-



Izaro Elorza, plazan, eta atzean udaletxea. IDOIA ARANBARRI

99 ORRI DITU ORDENANTZAK ETA UDAZKENEAN ESKUORRIAK BANATUKO DITUZTE

tzen dugu: informazioa jasotzeko eskubidea, horretarako eskaera eginez, eta publizitate aktiboz, hau da, guk informazioa eskuragarri jarritz. Uste dugu urrats garrantzitsua dela hori, informazioa duenari ahalmena ematen ziolako. Hain zuzen ere, publizitate aktiboaren diagnostikoa egiten ari gara, eta ekintza plana egitea da asmoa".

Hiru kolektibo aintzat

Aurreko agintaldian hasi ziren ordenantza honen lanketarekin, eta egungoak jarraitu eta bukatu du. Hala ere, Elorzak azpimarratu du ez dela dokumentu itxi bat; aldatuz eta eguneratuz joango da. Ordenantzak 99 orri ditu, eta generoan, adinean eta klaseetan arreta berezia jarri dute. "Gune publikoa, generoak, adinak edo klaseak arautzen du eta botere harremanak horren

araberakoak izaten dira. Eta arreta jarri diegu kolektibo horiei. Beste prozesu batzuetan, momentu batzuetan, baztertuta egon ahal direnak edo ahots legitimitate txikia izan dutenak. Batez ere, generoa izan da kontuan, emakumearen parte-hartzea, baina baita beste kolektibo batzuk ere: haur eta gazteak edo migratuak, adibidez. Gura duguna da inklusibitate hori sartzeko prozesuetan, pertsona eta herritar horien ezaugarriak eta beharrak kontuan izan, prozesuetan txertatu eta denendako irisgarritasuna bilatzea".

Orain arteko prozesuetatik ikasi dutena eta egiteko modua jaso dute arautegian. Hori nola jaso ikusteko, forma juridikoa emateko, Bartzelonako eta Madrillgo erreferentzia batzuk hartu dituzte. "Ordenantza honek berresten duena da egiteko modu horietan sinesten dugula, aurrera goazela, eta lagunduko digu Udalean gaudenoi zein herritarrei jakiteko zein bide ditugun, egindako urratsak, eta ze betebeharrak ditugun". Alkateak esan duenez, beste udal bat jarri da eurekin harremanetan ordenantzari buruz jakiteko.

"Mina" eta "harridura" sortu dio lapurretak Altzelai artzainari

Mila gazta baino gehiago eta dirua eramane zituzten lapurrek joan den astean Aldaiko gaztandegitik

O.E.G. OÑATI

"Minduta" eta "harriduta" dago Nestor Altzelai artzainari joan den asteko lapurretaren ostean. 1.200 gazta –martxoan eta apirilean egindakoak– eta 600 euro lapurtu zituzten eguenetik egubakoitzera bitarteko gauean Olabarrieta auzoko gaztandegitik: "Gaztak eramateak harridura nau. Baserri eta artzain lanetarako erabiltzen ditudan tresnak ez dituzte eramane, adibidez. Eramandako gazte gain, baina, beste 700 bat kilo hozkailutik atera eta hantxe, kan-

poan, utzi zituzten, denak eramateko tokirik edo denborarik ez zutelako izan edo. Sekulako mina sortu dit", zioen Alzelaik eguaztenean.

Ertzaintzan jarri zuten gertaeraren salaketa, eta "ezohiko lapurreta" ikertzen ari da orain euskal polizia: "Aktibitate horren jakitun izango ziren eta ingurua ere ezagutuko zuten". Lapurtutako gaztak, ziurrenik, Euskal Herritik kanpoko merkatu txikietan salduko dituztela adierazi du Ertzaintzak.

Berriz egin beharko dituzte terrazak jartzeko eskaerak

Bertan behera utzi da terrazen azalera handitzea ahalbidetzen zuen 2020ko alkate dekretua eta hemendik aurrera eskaera berriak egin beharko dituzte tabernariak terrazak jartzeko. Ekaineko osoko bilkuran gelditu zen bertan behera larrialdi egoeran hartutako erabakia, aho batez, eta 1992koa den ostalaritzako terrazen ordenantzari puntu gehigarri

batzuk sartzea onartu zuten. Terrazaren eta tabernaren arteko distantzia, 08:00ak aurretik ezin dela terrazarik jarri eta oinezkoen lehentasuna bermatzea dira, esaterako, sartu dituzten irizpideetako batzuk.

Ostalariekin biltzen ari dira udal ordezkariak, onartutako irizpideak azaltzeko eta horiek bete beharko dituztela jakinarazteko. Lehengo espaziora mugatu edo eskaera berriak egin beharko dituzte orain establezimenduek.



NIRE USTEZ

AMAIA EROSTARBE LETAMENDI

Euskadi Lagunkoia

Osasunaren Mundu Erakundeak esan du 60 urte baino gehiagoko 2.000 milioi lagun biziko direla 2050ean. Haien zahartze aktiboa eta autonomia jomugan, adinekoak funtsezko eragile bihurtu, eta haien parte-hartzea sustatu du, udalerriak lagunkoi bihurtuz joateko. (*Envejecimiento activo: un marco político*, 2002). Filosofia horrekin, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika Sailak (Eusko Jaurlaritzak) Euskadi Lagunkoia ekimena jarri zuen abian orain hamar urte, Matia Fundazioaren bidez. Haren jardunbidean, eraldaketarako, zortzi arlo zehaztu dira: aire zabaleko lekuak eta eraikinak, garraioa, etxebizitza, parte-hartzea eta gizarte-sarea, errespetua, herritarren parte-hartzea eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, gizarte eta osasun-zerbitzuak. Udalerri lagunkoietan, politikak, zerbitzuak, inguruneak eta egiturak, pertsonen zahartze aktiboa –eta autonomia– babestuta eta erraztuta, gune inklusiboak eta irisgarriak eratuz doaz.

Euskadi Lagunkoira 70 udalerri batu dira –Arabak 18, Bizkaian 27, Gipuzkoan 25–. Oñati, ez. Noizko Oñati Lagunkoia?

"Bezeroei txikitoak ateratzen ibili naiz"

LUIS ARISTEGI LETAMENDI ESKOLATXOKO AZKEN OKINA

Ohiturak aldatzeaz gain, azken aste honetan, okindegia itxi zutenetik, lo hobeto egin duela dio Luis Aristegik, azken eguneko agurra oraindik gogoan duela

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Ekaineko azken egunean, duela astebete, itxi zuten Eskolatxo okindegia, 170 urteko ibilbidea eginda eta errelebo barik. Betiko bezeroei eskerrak ematen pasa du astea bertako seme Luis Aristegik.

Txistulariekin eta dantzariekin izan zen azken agurra.

Oso polita izan zen ekitaldia. Ia ixteko orduan izan zen, 19:30 aldera hasi ziren dantzan dantzariak, txistulariek lagunduta. Eguena zen, pintxo-pote eguna eta ordua, eta jende asko agertu zen, bai.

Betiko bezeroak ere izango ziren tartean.



Luis Aristegi, okindegian. MIREN URKIOLA

Bai, bai. Askok bazekiten itxi egin behar genuela eta hilabete lehenagotik-edo hasi ziren ogia beste nonbaiten erosten, ohitura berriak hartzen. Azken egunetan, baina, jende asko pasa zen okindegitik agur esatera eta eskerrak ematera.

Eskertzekoa izan da hori, ezta?

Bai, noski. Urte askoan egin dugu lan, eta bezero asko eta onak izan ditugu. Aste honetan, adibidez, neu ibili naiz bezero horietako askori txikito bana ateratzen, euren fideltasuna eskertzeko.

Zelan pasa duzu aste hau?

Goizean plazan kafea hartu, paseoa egin, egunkaria irakurri,

txikito batzuk hartu, siesta egin, telebista ikusi... Egia esan, lo, behintzat, hobeto egin dut. Zaratarik ez dut batere entzun, eta ardurarik bat ere ez; primeran egin dut lo.

Noiz hasi zinen zu ogiak egiten?

Gure aitona, Juan Jose Aristegi, Antzuolatik etorri zen eta lanak egiten zituen etxeko jabeak utzi zion dirua okindegia martxan jartzeko, duela 170 urte. Handik urte batzuetara, egungo eraikina erosi zuen, garai batean eskola izandakoa, eta hementxe ibili gara gu. Ni 13 urterekin –egun 80 ditut– hasi nintzen okindegian lanean, aita hil zenean.

Zenbat ogi mota egin dituzu?

Makina bat. Lehen, bakarraz zegoen, baina gero etorri ziren gatz gabekoa, zerealduna, integrala... Bizkotxoak, madalenak eta txoripanak ere egin ditugu urteetan.

Elkarretako afarietan ere gogoratu dira Eskolatxorekin.

Askotan etorri dira afaltzeko ogia erostera, ahaztu egin zaie-lako; orain, beste enkarguekin batera erosi beharko dute, ogi barik afaltzea tristea da eta.

Domeka eguerdian da ibilgailuen bedeinkazio ekitaldia

Domekan, uztailak 10, da San Kristobal eguna, gidarien zaintzailearena, eta ospatzeko asmoa dute. Aurten, baina, parrokiaraino auto ilaran joan ordez, Olabarrietako Santutxoan bertan egingo dute ibilgailuen bedeinkazio ekitaldia. Domeka eguerdian izango da: 12:30ean, ibilgailuen kontzentrazioa egingo dute; eta 13:15ean, bedeinkazioak.

Tourreko bi etapa ikustera joateko irteera antolatu dute

Frantziako Tourreko bi etapa ikustera joateko irteera antolatu dute aurten ere Mikel Lizarralde eta lagunek. Uztailaren 19an aterako dira, eta Val Louron-era joan; 20ko eta 21eko etapak ikusiko dituzte. Autobus bat alokatu dute, eta joan gura duenak uztailaren 15a aurretik eman behar du izena: 943 78 29 86. Prezioa 220 euro da.

DEBAGOIENEN GREMIOAK

<p>AROSZTEGIAK AZKARATE AROSZTEGIA BERGARA / Telleria 19 B02-B03 Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20 blogak.goiena.net/azkarate</p>	<p>ITURGINTZA EGIA ITURGINTZA ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea Tel.: 943 77 01 85</p>
<p>HONDEAKETAK EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL ARRASATE / Meatzerreka 30 Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87 e.arrasate@gmail.com</p>	<p>URKO MANTENIMIENTO SL ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3 Tel.: 943 77 19 88 Faxa: 943 79 59 97</p>
	<p>LOREZAINZA MAKAI KOOP. ELKARTEA ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1 Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98 Faxa: 943 79 78 45</p>

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Herriko erraldoien eta txorimaloen erakusketa ikusgai datorren astean

Oñatik bi konpartsa dauzka: Udalarena eta Atzeko kalekoa. Horietako erraldoi eta txorimalo guztiak katalogatu dituzte eta erakusketan izango dira ikusgai Santa Anan; goizez udalekuetako umeendako eta arratsaldez herritar guztiendako irekiko dute

Amaia Txinturreta Guridi OÑATI

Astelehenetik egubakoitzera egongo da Oñatiko erraldoien eta txorimaloen gaineko erakusketa Santa Anan. Goizez udalekuetakoendako eta 16:00etatik 20:00etara herritarrendako.

Haurrak eta Gazteria zinegotzi Iker Oñatek azaldu du "aisialdia baino gehiago direla udalekuak, heziketarako gune ere badirelako" eta urtero nahi izaten dutela Oñatiri buruzko gairen bat landu. Gazteria teknikari Ion Lopezek hauxe gaineratu du: "Gustatzen zaigu urtero herri curriculumean gehiago sakontzea. Iaz, Pablo Piccasoren txokolatetzko *Gernika* koadroa izan zen Santa Anan, eta bertan izan ziren. Aurten, ikusita Oñatin oso errotuta daudela txorimaloak eta erraldoiak, Oñatzekin jarri ginen harremanetan eta aurretik talde horretako Maite Irizarrek egindako lanari jarraipena eman diogu". Hainbat auzoren, eragileren eta herritarren laguntzarekin egin dute eta Iñigo Biainek diseinatu du. Historian sakondu eta guztiak katalogatu dituzte. Arratsaldez, edozein herritar joan ahalko da bisitatzena.

1917rako baziren herrian

Oñatira erraldoiak eta txorimaloak noiz iritsi ziren zehaztea "zaila" dela adierazi dute, baina jakin badakite 1917rako bazirela. Izan ere, urte hartan bidali zituzten konpontzera, Vila-realera. 1924ko San Migel eta Errosario jaien egitarauan ere ageri dira, irailaren 30ean eta urriaren 6an, jaiegun nagusien biharrean. Eta, bitxikeria moduan, kontatu dute 1924ko jai haietan erraldoiak garraiatzean 40 pezeta aurrekontua izan zuela; gaur egungo 0,24 euro, zehazki.

Oñatiko bitxikeriak

Dirudienez, erraldoiek eta buruhandiek ez zuten arreta handirik jasotzen agintariengandik, XX. mendeko 80ko hamarkadan sartu arte, ez baitute lehenagoko arrastorik aurkitu. Baina Maite Irizarrek egindako lanari esker, jakin badakite Atzeko kalean ere izan zela erraldoi eta buruhandien konpartsa, gutxienez, 1940ko hamarkadatik. "Ez da ohikoa herrian konpartsa pribatu bat [Atzeko kalekoa] eta Udalaren beste bat izatea, baina hori ez da Oñatik daukan bitxikeria bakarra", azaldu du Lopezek. Eta hauxe gaineratu: "Oñatin *jigante* eta *txorimalo* esaten zaien erraldoiei eta buruhandiei. Gainera, Maite Irizarrek jasotako moduan, bada txorimaloak zirikatzeke erabiltzen den tokiko esamolde propioa ere: *Txo-*

rimalo, katamalo, tirikititi, taukiri, zeineri? Txorimaluari!".

Udalaren konpartsa

Udalaren erraldoien konpartsa-ri dagokionez, lau daude: Oñatiko jauntxo gebaratar Iñigo eta Katalina, batetik, eta bestetik, Andre Ederra eta Maurizio baserritarrak. Lehen biak Valentziako Vicente Luna fallero famatuak eraiki zituen erretxina eta beira-zuntza erabiliz, 1984an, eta Debako Jose Inazio Urbietak margotu eta egin zituen haienztzako jantziak. Baserritarrak


HERRIKO ESAMOLDEA: 'TXORIMALO, KATAMALO, TIRIKITITI, TAUKIRI, ZEINER? TXORIMALUARI!'

Udalaren konpartsa iritsi ziren lehen hiru txorimaloak

Txirri, Mirri eta Txiribiton txorimaloak izan ziren udaleko konpartsa iritsi ziren lehenak, 1984an. Une hartan, arrakastaren goren-gorenean zeuden telebista izarak. Urte

berean herrira iritsitako Oñatiko kondearen eta kondesaren erraldoiak bezalaxe, Vicente Luna valentziarrak egin zituen, eta ondoren, Jose Inazio Urbietak debarrak margotze lanak egin

zizkien. 1992an, Akerra eta Sorgina batu ziren konpartsa-ri, Garate anaia irundarrek egindakoak. 90eko hamarkadan, bi zaldiko ere gehitu ziren, nahiz eta gutxi ateratzen dituzten.



Txirri, Mirri eta Txiribitonon maskarak Vicente Lunaren Valentziako tailerretik 1984an atera ziren moduan. VICENTE LUNA



Oñate, Biain eta Lopez, erakusketan izango diren panel eta txorimalo batzuekin. A.T.

Irungo Garate anaien lanak dira, 1992an egindakoak.

Txorimaloei dagokionez, 1984an iritsi ziren lehenak herrira eta bi kategoriatan sailkatu dituzte: batetik, txorimalo nagusiak daude, haurrak eskutik helduta eramaten dituztenak kalejiran –Txirri, Mirri eta Txiribiton eta Akerra eta Sorgina–, eta, bestetik, puxika eskuetan gaztetxoan atzetik ibiltzen direnak –Basaurdea, Konoburu, Ipotxa, Pirata, Amona, Zezengorri, Oilarra, Pastelburu eta Txapel-urdin–.

1984tik Oñatz arduratu da Udalaren erraldoi eta txorimaloak ateratzeaz eta zaintzeaz. Hala, Oñatzeko 60 kide inguruk osatzen dute konpartsa eta herriko jai guztietan ateratzen dira –20 irteera inguru urtean–.

Atzeko Kaleko konpartsa

Bost erraldoi dituzte, hiru "klasikoak": Kataluniatik ekarri zituzten Groucho Marx eta Harpo Marx anaia eta Andria. Besoak aske dituzte horiek eta mugimendu bereizgarria egiten dute dantzatzerakoan. 80ko hamarkadan egindakoak dira eta Juan Zubiaren bidez heldu ziren Atzeko kalera. Tartalo da berriena, eroena eta arinena, eta Saia edo Buetra da bosgarrena; hegalak zabal-zabal eginda harrak uxatzen ditu, eta Jose Inazio Urbietak debarrak 1984an egindakoak da. Txantxiku-gurditxoa ere oso bereizgarria da.

Auzotarren ardura da erraldoiak eta txorimaloak ateratzea eta zaintzea, eta auzoko jaietan soilik egiten dituzte irteerak. Txorimaloek izen zehatzik ez badute ere, haurren artean ezagunak dira Txarrana, Sukaldaria eta Pilotua.

Beste batzuk

2020an San Martin auzoan Martintxo txerria eta Mojasoro basurde-moja txorimaloak aurkeztu zituzten. Eta berriki atera da kalera lehen aldiz dantzatzera herriko Xabier Mendizabalek egindako Sebastian erraldoia.

Antzerkira, emakumeen lanak indartzeko beka

Diru sail bat sortu du Oñatiko Udalak emakumeen lanak indartzera eta ezagutaraztera bideratuta, eta Irazan antzerki taldearekin sinatu dute lehenengo hitzarmena; 'Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama' nobela taularatzeko baliatuko dute Castañedak eta Balzategik

Beñat Alberdi OÑATI

Herriko emakume sortzaileen lanak behar besteko ikusgarritasuna eta indarra ez zeuzkala begiz jota, 10.000 euro bideratuko ditu Oñatiko Udalak gabezia horiek moztera, 2022ko aurrekontuetan. Dirua bideratzeko aukeren artean, Irazan antzerki taldearen proposamena onartu dute: *Alaine Agirrerren Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* liburu taularatzeko prestatu eta taularatzeko dute Irene Balzategik eta Amaia Castañedak.

Emakumeen lana oinarri izango dituzten proiektuak bultzatzea dauka asmo Udalak. Inaki Olalde Kultura zinegotziak argitu du lanean parte hartzen duten pertsona guztiak edo ahalik eta gehienak emakumeak izatea sustatu nahi dutela. "Ez bakarrik eszenatokian ikusiko ditugun aktoreak, baina gidoigileak, zuzendariak, soinu teknikariak, argiztapenekoak eta abar".

Behin diru saila onartuta, diru hori zertara bideratu erabakitzen ari zirela aurkeztu zitzaizen Irazaneko proiektua indartzeko aukera. Ez zeukaten garbi deialdi ireki bat egin, formakuntza tailer bat antolatu edo sortzaileei zuzendutako aholkularitza zerbitzua martxan jarri, esaterako. Berdintasun Sailera iritsi zen onartutako proiektua horretan zeudela. "Antzerkiarekin lotura zeukala ikusita, eta gure helburuarekin bat zetorrela kontuan hartuz, horrekin aurrera egitea erabaki dugu lehen edizio honetan", azaldu du zinegotziak.

Bi aktoreen hitzarmena

Akordioa sinatu dute Irazan antzerki taldeak eta Oñatiko Udalak; hots, dirua nora bideratuko duten. Hasteko, antzez-lana sortzeko eta sortze prozesuan egongo diren lanak ordaintzeko 8.000 euro jasoko dituzte egileek. Eratze prozesuaren barruan sartzen dira, besteak beste, gi-



Ezkerretik bigarrena eta hirugarrena, Irene Balzategi eta Amaia Castañeda. IRAZAN

PROIEKTUAK JASOKO DUEN SUSTAPENA EZ DA, ORDEA, SORTZE PROZESUKO DIRULAGUNTZA SOILIK

doia, produkzioa, komunikazioa eta sustapena.

Amaia Castañeda eta Irene Balzategi dira proiektua sortzearen arduradunak. Biak ari dira antzerki ikasketak egiten eta aktore lanetan. Madrilen Interpretazioa ikasten ari da Castañeda eta aurretiazko esperientzia dauka Irazanetik sortutako Supituki taldean, egun Ventrículo Veloz taldean ari den arren. Balzategirekin kasuan, berriz, Donostiako TAE antzerki eskolan dabil, Arte Terapia eta Arte Komunitarioko ikasketak egin dituen arren.

"Nobela honetan kontaktzen dena gutxitan irakurri izan dugu eta hasieratik maitemindu gintuzten Alaineren hitzek", nabarmendu dute Irazaneko kideek. Amaren eta alabaren arteko harremanari buruz hitz egiten du liburuak, amatasunaren gatazka, familiar-

teko harremanak garapen pertsonala eta abar, baina gaixotasun psikologiko bat duen protagonistaren eskutik. "Honek taula gainean egon behar zuela ikusi genuen segidan".

Parte hartzea zabaltzen

Proiektuak jasoko duen sustapena ez da, ordea, sortze prozesuko dirulaguntzara mugatuko. Esaterako, udal liburutegiko eta Jabetze Eskolako irakurle taldeekin elkarlanean, talde propioa sortuko dute Alaine Agirrerren nobela irakurri eta lantzeko. Gainera, idazleak berak hitzaldi bat egingo du herritar guztientzako zabalik.

2023ko udaberri edo udarako espero dute estreinaldia. "Bi emanaldi egitea da asmoa; bata goizez, herriko ikastetxeei zuzenduta, eta arratsaldean, publiko orokorrari", esan du Olalde.

Proiektu hau lehenengo urratsa izango da Udalarentzat, hurrengoak zehazteko dauzkaten arren. "Gure asmoa da diru partida hau hurrengo urteetan mantentzea, herrian dauden emakume sortzaileek ikus dezatela badaudela aukerak".

Goi-mailako musika ikastegitik jaiotako folk kontzertua

Datorren asteazkenean, uztailak 13, eskainiko du Bidaide musika taldeak kontzertua Lazarraga laborategian, 19:00etan; *Kalean* egitarauaren barruan. Musike-ne ikastegian, Euskal Herriko goi-mailako musika eskolan, ikasi zuten lau partaideek eta bertan sortutako proiektua da.

Musikak batzen ditu Itziar Vargas (biolina), Nora Lopez

(biolontxelo), Ane Urbizu (akordeoia) eta Manu Gaignek (perkusiona); baina baita musika talde batek ere, Bidaidek.

Musika klasikoa landu izan badute ere, Ingalaterrako zein Irlandako musika tradizionalan oinarritzen dira ikuskizun berria eraikitzeko, eta folk kutsuko emanaldia egingo dute. Euskal Herriko eta beste herrialde batzuetako erreperitorioa erabiltzen dute kontzertuko abestien zerranda osatzeko eta kontzertua borobiltzeko.

Nazioarteko lehiara itzuli da Oñatiko Ganbara Abesbatza

Pandemiak izan du eragina kantu lehiaketetan ere, baina normaltasunera itzultzen ari dira. Horren erakusle da Oñatiko Ganbara Abesbatzak parte hartuko duen Provenzako Kantu Koral Txapelketa, atzotik igandera arte.

Bandol hirian izango da txapelketa, Marseilla eta Toulon artean kokatua. Ameriketako

Estatu Batuetako, Italiako, Lituaniako, Belgikako, Hungariako eta Poloniako taldeek hartuko dute parte.

Talde bakoitzak hautatu dituen modalitateetan 15 minutu abesteko aukera izango du. Oñatiarren kasuan, koru mistoa, musika sakratua, folklorea eta ahots-taldea hautatu dituzte.

Hamasei abesti prestatu dituzte parte hartzeko eta lan ona egitea espero dute. Gaur abestuko dute koru misto eta ahots-talde bezala.

Gaur hasita, Trianak hartuko du auzoko jaien erreleboa

Arratsaldeko zazpitan jaitsiko da Astrotrasto Trianako jaiei hasiera emateko. Mentertz, Doce C Klik eta Maixa eta Malakias-en kontzertuak eskainiko dituzte gauean.

Haurrentzako jolasak eta mus txapelketa antolatu dituzte bihar, baina ur pistola gerra eta Yogurinha Borovaren kontzertua dira egitarauan nagusi.

Aretxabaletarren, Nealta Follaren, esku eguena alaitzea

Datorren eguenean, uztailak 14, 21:30ean, Aretxabaletako Nealta Folla taldeak kontzertua egingo du Antixeneko gaztetxean, *Ostegunak etxera* presoen aldeko ekimenaren barruan.

Martizinema egiten dute uztaileko martitzenetan, baina musikaren txanda da eguenean. Sukena eta Dena taldeak izango dira hurrengo eguenean.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Aitor Fernandez, artxiboko irudi batean. GOIENA

"Jauzi ikaragarria" Osasuna taldera joatea

FUTBOLA Orain arte Levanten aritu den Aitor Fernandez atezain arrasatearrak lehen aldiz izango du gorengo mailan euskal talde batean jokatzeko aukera. Hiru urterako sinatu du gorritxoekin: "Denon artean, gozatu eta helburu guztiak lortuko ditugu"

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Aitor Fernandezi (Arrasate, 1991) Numantziak eman zion profesional izateko aukera. Athleticen harrobian hazitako jokalaririk Bigarren Mailan erakutsi zuen zer egiteko gai zen, eta Levantek deitu zion 2018an. Lehen Mailan 79 neurketa jokatu ditu azken lau denboraldiotan; bereziki egin zuen lan txukuna 2019/2020an. 2025eko ekainera arteko kontratua sinatu du orain Osasunarekin.

Kostu finkorik gabeko fitxaketa izan da Fernandezena; hau da, lortutako helburuen arabera ordainduko diote gorritxoek Levanteri. Hark eskubide ekonomikoen %20 mantenduko du, Osasunak atezaina salduko balu ere. Fernandezek etete-klausula 14 milioi eurokoa da.

Arrasatearra oso gustura agertu da klubak zabalduko adierazpenetan: "Nire kirol ibilbidean erabateko aldaketa da, onerako, jauzi ikaragarria. Osasuna kluba oso ondo ari da gauzak egiten

azken urteotan; Iruñetik kanpo transmititzen duena da klub egonkor bat dela, eta asko estutzen duen klub bat".

Zale gorritxoentzat ere hitz onak izan ditu hasieratik: "Sadar asko aldatu da: ikusi dut obra egin gabe, erdi eginda, eta baita amaituta ere; eta inpresio handia eragiten du, zalegoak ikaragarri estutzen du. Horixe da kontua, futbola festa bat izatea domekero, eta Sadarren halaxe da. Osasunako zaleak beti daude taldearekin, momentu onetan eta txarretan, eta denboraldi bukaeran puntuetan izan ohi du isla horrek. Zaleak futbola ikustera baino gehiago joaten dira taldea animatzera, eta eskertu egiten da hori".

**LAU URTE EGIN DITU
LEVANTEN, LEHEN
MAILAN, ETA
NABARMENDU EGIN
ZEN 2019/2020AN**

Bere buruaz, berriz, esan du "lan handia egitea" gustatzen zaion atezaina dela: "Hau taldeko kirola da, eta gehien jokatzen dutenek eta gutxien jokatzen dutenek, denek, gehitu egin behar dute, klubaren helburuak lortzeko. Ez zait gustatzen neuk esatea atezain moduan nolokoa naizen, jendeak esango du hori, baina, behintzat, langilea eta taldeagatik dena emango duena".

Jagoba Arrasateren jokatzeke moduari ere ez dio aitzakiarik jarri: "Atzealdea nahikoa aurreratuta jokatzen du, eta azken urteetan emaitzak oso onak ari dira izaten. Egia da atezainondako metro asko geratzen direla defendatzeko, baina presioa ere oso indartsua izaten da, eta baloiak atzera argitasun txikiagoarekin iristen dira".

Itxaropentsu agertu da denboraldi berrirako: "Gogorra izango da, baina, denon artean, lortuko ditugu jartzen ditugun helburu guztiak, eta gozatu egingo dugu denok".



Aurreko edizio bateko argazkia. GOIENA

Etzi jokatuko da Iñaki Leteren oroimenezko Antzuola saria

TXIRRINDULARITZA Ibilbidea aurreko urteetako izango da: bitan Deskarga, eta Asentzio, hogeikilometroren faltan

J.I. ANTZUOLA

Domekako 09:30ean hasiko da 23 urtez azpikoentzako Antzuola saria, Iñaki Leteren oroimenezkoa, Lehendakari Txapelketarako baliagarria. 119,5 kilometroko ibilbidea izango dute txirrindulariek: Zubillagatik lehen joan-etorri bat egin eta gero, Deskarga igoko dute Antzuolatik eta Oñatitik buelta egin. Birritan egingo dute gauza bera, baina bigarrenaren ostean, Antzuolara beharrean, Angiozar aldera joko dute txirrindulariek, Asentzio igotzeko. Asentzioko gainetik helmugara hogeikilometro geratuko dira –Arrasate aldera jaitsiko dira–.

Lasterketa antolatzen duen Ayastuy lagunarteko Joseba Lezetaren arabera, normalean, Asentzion erabakiko da lasterketa, helmuga aurretik inon erabakitzekeotan. Dena dela, aurretik Deskarga bi aldiz igo

behar izanda –lehenago behin baino ez zen igotzen–, galbahe lana ere egingo dute igotzeko, eta irabazteko aukerarik gabe gera daiteke, agian, bat edo beste: "Asentzion argitu ohi da lasterketa, baina, Deskarga bi aldiz igota, beste alternatiba batzuk ere sortzen dira. Taldeek indarra galdu dezakete, eta lasterketa bakarkakoago bilakatzen da, nolabait".

Faboritoak

Lerrook idazteko orduan, oraindik zehaztu gabe zegoen domekan irteeran izango diren txirrindularien zerrenda, baina etorritik gero aurrean ibil daitezkeen zenbaiten izenak eman ditu Lezetak: "Caja Ruraleko Joseba Lopez eta Abel Balders-tone ondo dabilta, eta Pablo Castrillo eta Lizarte taldekoak ere bai, haiek urte osoan ari dira maila onean".

MENDI LASTERKETAK

Bailaratik pasako da gaur Ehun Miliak proba

Beasainen hasi eta amaitzen den eta Goierriko zein inguruko hamaika txoko zeharkatzen dituen Ehun Miliak ultra-trail lasterketa –168 kilometro– bailaratik pasako da gaur gauean. Irimitotik sartuko dira korrikalariak, Gorlan anoa-gunea izango dute, eta Hirukurutzetatik utziko dute eskualdea. Gorla ingurura, adibidez, 21:00 aldera

iritsiko da lehen korrikalaria, eta 00:20 inguruan azkena –18:00etan da irteera, eta 29 kilometroan dago Gorla–. Biharko 17:00 aldera espero dute irabazlea helmugan.

Horrez gain, Aizkorriko mendizerrako hainbat tontorretatik ere pasa beharko dute korrikalariak, San Adrianen gora –domekako 08:00etan itxiko dute hango kontrola–. G2Haundiak ere pasako da toki beretik; kasu horretan, San Adriango kontrola biharko 13:40an itxiko dute.

"Entrenatutakoa ringean ikustea oso polita da"

IOSU ZALAKAIN BOXEOLARI BERGARARRA

BOXEOA Ixa Rodriguez soraluzetarrak eta Sorabox klubak antolatutako jaialdian jardun zuen, Andoni Kortabarria herrikidearekin eta Yassine Bouchaar arrasatearrarekin

Julen Iriondo M. de Zuazo BERGARA Hiru debagoiendarrek irabazi egin zituzten euren borrokaldiak Bergarako jaialdian. Bi hilabetez tope entrenatzen –asteen sei egunez– aritu eta gero, fruituak jaso zituzten boxeolari gazteek: "Taldea osoak egin genuen izugarritzko lana, eta dena oso ondo atera zen. Zaleak ere topera egon ziren".

Jaialdi borobila izan zen, hortaz?

Bai, zalantzarik gabe. Pena bakarra, taldeko bost joan ginela eta batek ezin izan zuela irabazi. Baina izugarritzko borrokaldia egin zuen, dena eman zuen, eta nik uste dut hark ere gustura egon behar duela egindako lanarekin.

Gorka Belauntza izan zenuen kontrario. Harentzat lehenengo borrokaldia zen. Nola joan zen?

Nik ez nuen Gorka ezagutzen; ez nuen aurrez ikusia, borrokari ez zuelako egina. Ez nekien eskuina zen edo ezkertia. Kontrarioa nolakoa den jakin gabe, urduri joaten zara apur bat. Baina gu asko entrenatu gara, eta fisikoki eta oso ondo ikusten nuen nire burua, eta horrek konfiantza eman zidan.

Espero bezala joan al zen zure borrokaldia?

Egia esan, ez nekien zer espero. Baina nahi nuen bezala joan



Iosu Zalakain, zapatuko borrokaldian. IMANOL SORIANO

"JASO BEHAR EZ NITUEN KOLPE BATZUK JASO NITUEN, BAINA, ORO HAR, OSO ONDO JOAN ZEN BORROKA"

zen, bai. Gauzak nahiko ondo atera zitzaizkidan. Nire asmoa zen mugitzea, eta saiatzea jotzen, eta hark ni ez jotzea. Jaso behar ez nituen kolpe batzuk jaso nituen, baina, oro har, oso ondo joan zen borroka.

Etxean borrokatzea berezia izango zen.

Presio aldetik, apur bat gehiago igartzen duzu. Baina, behin borrokaldia hasita, igarri egiten da jendearen berotasuna, eta animoak ematen ditu horrek. Lagunak, senideak... etorri ziren ikustera. Gainera, nire urtebetetzea zen, eta denek nahi izan zuten horren parte izan.

Talde osoarentzat izan da arrakasta.

Talde-lan ederra egin dugu; ordu asko batera. Eta entrenatutako dena ringean ikustea polita da.



Bengoetxea Antzuolan, Balerdi eta Mendizabal ezker-eskuin dituela. IMANOL SORIANO

Antzuolarrekin lehian, agur beroa jaso du Bengoetxeak

PILOTA Baikorekin otsailean amaitu eta gero, urrian utziko du pilota; antzuolarrek ere agurtu dute

J.I. ANTZUOLA

Pilotari maitatua da Oinatz Bengoetxea han eta hemen. Profesional mailako hiru txapelketa nagusiak irabazteko gai izan den pilotari apurretakoa, urrian da zuriz azken partidua jokatzeakoa, sorterrian, Leitzaan. Hogei urte izango dira orduan profesional egin zela; Baiko enpresak ez zion urtemuga berezi hori betetzeko aukerarik eman –otsailean jokatu zuen azken partidua, Labriten–, baina Bengoetxea VI.a herriz herri ari da, beste maila batean, urteetan halako maitasunez hartu duten Euskal Herriko frontoiak eta zaleak agurtzen. Eta, tartean, Antzuolan izan zen aurreko zapatuan.

Galeano ahizpa eta Insausti antzuolarrek eta Barrocal bergararra aritu ziren atarikoan, eta neurketa nagusian, Oinatz Bengoetxea, herriko Manex Balerdi eta Aitor Mendizabal bizkaitarrek eta kontrario zituela –Inigo Pascual izan zen Mendizabalen bikotekidea–.

Partidu estua jokatu zuten. Irabazleak aritu ziren bizpahiru tantoko aldearekin aurretik, atzetik ere bai gero, baina, azkeneko, 22-20 irabazi zuten Bengoetxeak eta Balerdik. Baina emaitza zen gutxienezkoa.

200 pilotazale baino gehiago batu ziren herriko frontoiko harmailetan, giro ederra izan zen, eta, partidua politaz gozatzeakoa aukera edukitzeaz gain, Leitza izarra bertatik bertara agurtzeko modua izan zuten han bildutakoek.

Antzuolarrek, gustura

Bengoetxea herriz herri egiten ari den agurreko bira honetan, lau partidua jokatu ditu dagoeneko Aitor Mendizabalekin; profesionaletan behin ere ez zitzairen elkarren kontra aritzea egokitu. "Niretzako ere oso polita da Oinatz bezalako erreferente baten kontra aritzea haren azken txanpako partidua hauetan".

Afizionatu mailako pilotaria da, berriz, Balerdi, eta aukera polita sortu zitzaion profesional izandako pilotariekin herrian bertan jokatzeakoa; tartean, Bengoetxea VI.a herriarekin: "Oso berezia izan zen harekin jokatzea. Txikitatik jarraitu izan dut, hor goian, onenekin jokatzen. Onenetako bat izan da hura ere, eta oso berezia izan da, niretzat, berarekin jokatzea".

Bengoetxea bera ere oso gustura geratu zen Antzuolan jasotako agurrarekin: "Baita partidua ederra atera zelako ere".

"PROFESIONALETAN EZ GENUEN BEHIN ERE JOKATU; OSO POLITA DA NIRETZAT ERE"

AITOR MENDIZABAL, PILOTARIA

"TXIKITATIK JARRAITU IZAN DUT; ONENETAKO BAT IZAN DA OINATZ"

MANEX BALERDI, PILOTARIA

Ixa Rodriguez, oso pozik


Ixa Rodriguez boxeolari soraluzetarra da Sorabox klubeko arduraduna eta Bergarako aurreko zapatuko jaialdia antolatu zuena. Jaialdia amaituta, oso ondo sentitzen zela adierazi zion Goienari, eta haren taldeko boxeolariek emandako mailarekin oso gustura: "Oso ondo joan da guztia. Borroka guztiak joan dira ondo; Sorabokeoenak,

primeran. Ikaragarri entrenatu dira, eta merezita dute".

Aspalditxoan egindako lan guztiak fruitua emanda pozik, aurrera begira ere jarri zen Rodriguez: "Ez da erraza halako jaialdi bat antolatzea. Baina hamar urte daramatzat esparru honetan, eta zerbait ikasi dut. Urratsa egin dut, eta hurrengo erroka ere hemen inguruan izango da".



Ixa Rodriguez. J.I.



Monterron parkea, bart arratsaldean, Mondra & Roll jaialdirako prestaketa lanetan. XABI URZELAI

Heldu da Mondra & Roll, armairuetatik txupak ateratzeko jaialdia

Arrasateko Mauka Musikagintzak, Gasteizko Jimmy Jazz aretoak eta Kataluniako HFMN Crewk elkarlanean antolatu dute, Arrasateko Udalaren laguntzarekin; punk-rock eta oi! musika du oinarri Monterronen gaur eta bihar izango den jaialdiak

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Musika gosez etorriko diren turista asko izango dira asteburuan Arrasaten. Monterron parkean eta inguruan ibiliko dira, gehienbat, jantzita duten eskumuturrekoarekin behar dutena izango dute-eta Mondra & Roll jaialdian. "Urte batzuetako atzeko lanak egin ondoren, heldu da eguna, ilusioz eta gogotsu gaude, eta musikariak eta zaleak ere hala ikusten ditugu", dio Jimmy Jazz aretoko arduradun Iker Arronizek, hiruren arteko elkarlana goraiatuta. "Aspaldiko harreman estua, zuzena eta egunerokoa dugu; hortaz, hiru hankak batuta jaialdi txiki-ertain bat egiteko aspaldiko gogoia abiatuko dugu gaur, urtero jarraitzeko asmoz".

Hasieratik erabaki zuten Arrasaten kokatzea. "Askotan elkarren gara bertan gure lan-bilerak

egiteko, Mauka Arrasateko enpresa da eta gu ere gertu gaude, eta Monterron parkea toki oso aproposa da, nahiz eta zaila ere baden. Era berean, herri interesgarria da, oil-aren eta punkaren istorio luze eta politekin lotuta dagoena".

Monterron parkean, ordainduta Hamabi talderekin osatu dute bi eguneko jaialdiaren egitaraua, nazioarteko puntako taldeak gonbidatuta, eta, era berean, herriko musikariei ere tokia eginda. "Cock Sparrer eta Baboon Show taldeekin harreman estua

BI GUNE IZANGO DIRA: MONTERRON PARKEA, ORDAINDUTA, ETA MONTEAZPI, DOAKO SARRERAREKIN

eta zuzena dugu eta oso gustura hartu zuten eskaintza. Cock Sparrer eta Des-kontrol taularen gainean batera egotea hasieratik gustatu zitzaigun ideia zen eta indar handia jarri dugu horretan. Jaialdia parke baten izateak zailagoa egiten du talde handiak ekartzeko orduan, baina pozik hartu dute guztiek erroka. Anticuerpos taldea izan zen lotu genuen azkena, orain dela bi hilabete; guk antolatzen dugun Gasteiz Calling jaialdi baten izan ziren, eta orain, berriz elkartu dira bi kontzertu bakarrik eskaintzeko, Logroñon bat eta Arrasaten bestea. Oso kontent gaude lehenengo jaialdirako lotu dugun taldeen zerrendarekin, mahai gainean beste izen batzuk ere izan dira, baina datozen urteetan ere jaialdiarekin jarraitu nahi dugu, eta uste dugu badugula puntako talde atzeritar

eta euskaldun gehiago ekartzeko aukera".

Kontzertuen gunea Monterron parkea izango da eta sarrera ordaindu behar da hara sartzeko. "Eszenatoki bakarra, hiru taberna eta komunak izango dira, eta baita puntu morea gunea ere. 80 lagun inguruko lantaldea ibiliko gara lanean, barran zerbitzatzen batzuk eta bestelako lanetan beste hainbat. Badalonatik etorri dira arlo teknikoan jardungo duten hainbat langile, baina, orokorrean, bertakoak, euskaldunak dira arlo tekniko gehienak".

Kondekua parkean, doan

Bi gune izango ditu, baina, Mondra & Roll jaialdiak. "Monterron azpian, Kondekua parkean, hau da, Monteazpin, izango da bestea; herritar guztientzako zabalik dagoena. Euren *merchandising*-a saltzeko aukera eman nahi genien taldeei, eta han kokatu ditugu askotariko saltokiak. Jantoki handi bat eta kontzertuetatik atsedean hartu nahi dutenentzako gunea ere izango da han".

Agertoki bat ere izango dela aurreratu dute antolatzaileek, eta han jokatu dutela bihar, zapatua, 13:00etatik 15:00ak bitartean, Mondra & Roll maketa lehiaketako finala. "Orain dela hilabete egin genuen lehiaketarako deialdia eta 60 talde inguruk eman dute izena; horietatik hiru talde aukeratu ditugu -Agur, Erne eta Kontrol Norte- bihar Monterron azpian dagoen zelaian izango den finalerako; irabazleak datorren urteko Mondra & Rollen jitzeko aukera izango du".

Hotelak beteta daude

Jaialdira datozen musikazale gehienak gaur hasiko dira Arrasatera heltzen, eta dagoeneko

bertan dira taularen gainean izango diren artista batzuk. "Euskal Herriko eta Espainiako taldeak, The Capaces izan ezik, seguru aski, bi egunetan izango dira jaialdian, euren emanaldia eskaintzen eta besteekin gozatzen. Eta nazioartekoei dagoenentz, denetarik; The Baboon Show, adibidez, atzo heldu zen eta Cock Sparrer taldekoak bihar etorriko dira. Hortaz, polita izango da Arrasateko kaleetan zehar musika arloko aurpegi ezagunak zaleekin eta herritarrekin nahastuta ikustea. Herri txiki batean halako jaialdiak egitea pozgarria da, Mondra & Roll moduko formatu ertaineko jaialdiek gertuko tratua izateko aukera ahalbidetzen dute eta".

Arrasateko hotelak eta inguruko herrietakoak beteta izango dira datozen egunotan. Udalarako bidean dagoen Santa Ana Hoteleko arduradunek adierazi dute jaialdira datozen zaleak izango direla gela guztietan. Arrasateko erdigunean dagoen Mondragon Hotelekoek, berriz, zaleez gain musikariak ere bertan izango direla kontatu dute, eta handik gertu dagoen Arrasate Hotelean, aldiz, jaialdiaren aitzakian etorritakoez gainera asteburuan Gasteizen jokatu duten triatloiko parte hartzaileak ere artatuko dituztela gaineratu dute.

Azpiegitura aldetik, teknikari zein musikari guztiendako nahikoa lo-leku topatzea izan da antolatzaileendako zailena. "Behar genituen lo-lekuak lortu ditugu, baina bertaratuko den jende guztiarentzako ez dago nahikoa toki, eta hurrengo jaialdiarentzako konpondu beharreko zerbait dela uste dugu, azken hilabeteotan askok galdetu digute-eta lo egiteko tokiengatik".

Eskumuturrekoa, "ezinbestekoa"

Monterron parkera sartzeko derrigorrezkoa izango da sarrera ordaintzea. Sarrera hori, baina, eskumuturrekoarekin aldatzea ezinbestekoa izango dela adierazi dute antolatzaileek.

"Parkearen sarreran izango da eskumuturrekoak hartzeko txokoa eta ordutegi hau izango du: gaur, egubakoitza, 17:00etatik 23:00etara; eta zapatuan, 13:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 23:00etara".

Jaialdi handietan moduan, puntako teknologiarekin egindako eskumuturrekoa izango dute erabiltzaileek. Monterron parkeko gunera sartzeko eta irteteko aukera emango du, eta baita jaialdiaren bueltan jarritako tabernetan ordaintzeko ere. Horrez gain, edukiera zaintzeko aukera ere emango die eskumuturrak.

Sarrera batzuk oraindik

Bi sarrera mota daude: egunekoak eta bi egunekoak. "Egubakoitzerako sarrera batzuk gertzen dira -35 euro gehi kudeaketa-gastuen 3,5 euro-. Orokorrean, egubakoitzerako zailagoa izaten da sarrerak saltzea. Zaturakoak orain dela aste batzuk agortu ziren, baina badaude bi egunerako bonuak oraindik -55 eurotan horiek, gehi 4,5 euro kudeaketa-gastuengatik-".

Labur.eus/MondraRoll-2022 atarian daude sarrerak eskuragarri, baina gogoan izan behar da jaialdira sartzeko eskumuturrekoarekin aldatu behar dela. "Eskumuturrekoa une oro jantzita eraman beharko da, eta ez dira baliozkoak izango aldatu edo manipulatu badira". 19:00etan hasiko dira, bi egunetan, kontzertuak, eta ordu bete lehenago, 18:00etan, zabalduko dituzte jaialdirako ateak.

Herria zaintzeko gomendioa

Arrasateko bizilagunen egunerokotasunean eragingo du, duda barik, gaur eta bihar izango den musika jaialdiak. Monterron parke inguruan, esaterako, aparkatzeko hainbat toki kendu dituzte, eta handik gertu dagoen Ignacio Zuloaga kaleko zati bat -Pablo Urangatik Monterron parkera doana- atzo ezkerer itxita dago.

Orokorrean, baina, herriko txoko askotan ibiliko da ohi baino jende gehiago, eta, horregatik, antolatzaileek ardurua handia dute jaialdiaren parte hartzaileen eta herritarren arteko elkarbizitza egokia izateko. "Azkeneko taldearen emanaldia 02:00etan bukatuko da egubakoitzean zein zapatuan, eta, gutxi gorabehera, 02:30erako Monterron gunea itxita egotea da gure asmoa. Handik gero jendea kalera joango da eta ohi baino zarata handiagoa izango da ordu txikietan kalean. Ezin dugu ahaztu erdigunean gaude; horregatik, bada, herria zaintzeko gomendioa egin gura dugu; garrantzitsua da hori, datorren urtean jaialdiak jarraipena izate gure badugu".

**ZAPATURAKO
SARRERAK AGORTUTA
DAUDE, BAINA
GAURKO -ETA BONO
BATZUK- BADAUDE**



Cock Sparrer taldeko kideak zapatuan izango dira Arrasaten. SAM BRUCE

Musika taldeen erretratua

Taularen gainean izango diren nazioarteko eta euskal punk eta oi! musika eszenako hamabi taldeei buruz Iker Barandiaran musika adituak kontatutakoak.

EGUBAKOITZA

- **19:00 The Capaces** Bartzelonako lokomotora; nekaezinak erritmoan, bizitzan, errepidean zein agertokian. Marta *Martillo* piztiak gidatuta eta Arrasaten aski ezagunak.
- **20:00 La Excavadora** Talde askotan ibilitako zakur zaharrak melodiaz eta garito izerditsuetako bizipenez betetako 77ko punk-rocka egiten.
- **21:05 La Inquisicion** Bartzelonako Punk-oi! eta street punk eszena indartsuari eutsi zion Secret Army taldeko errautsetatik sortutakoa. Ibilbide oparoa daroa taldeak eta Arrasatekoa plaza ederra da eurentzat.
- **22:10 Anticuerpos** Vulpes, La UVI eta Cicatriz-eko kide banak osatutakoa. Rocka, hitz kaletar eta sentikorrek eta *Mamen*-en goxotasuna. Disko bakarra dute, belaunaldi batendako *hit* sentikorrek dituen.
- **23:25 The Baboon Show** Gazteria Alemaniako punk rock estribillodun eta hard-rockaren nahasketara hurbildu duen Eskandinaviako talde komunista; izugarritzko *frontwoman*-a du, taldearen presentzia eta inpaktua hazten duena.
- **00:55 Cocney Rejects** Kale *makarrismo*-a eta oi! musika ezin hobeto ezkontzen eta sortzen jakin duen Ingalaterrako talde beteranoa. Sasoiatsu jarraitzen duen oi! eszenako erreferente bat.

ZAPATUA

- **19:00 Zero** Gatillazo, La Polla, RIP, The Kagas eta talde gehiagotan ibilitako txakur zaharrak dira punk-rocka modu oso librean egiten dutenak, eta, gainera, *frontwoman* moduan erregistro askotara heltzen den *Led Inferno*-rekin.
- **20:00 Crap** Gaur egun Arrasaten punk-rocka eta 77ko punka egiten duen talde bakarrenetakoa, *makarrismo*-arekin.
- **21:05 Perlata** Arrasateko rock-ak azken urteetan eman duen sorpresa handienetakoa. Punk-rocka zentzu zabalean; amorrut batzuetan, sentikor bestetan, baina beti errailetatik.
- **22:15 Des-kontrol** Arrasateko oi! mugimenduaren erreferente nagusienetakoa, jakin du aurrera begiratzeko eta bestelako doinuak batzen eta lantzen, eta indartsu dago.
- **23:35 Cock Sparrer** Oi!-aren aitzindarietako bat da, Ingalaterran duela 50 urte beste testuinguru batean -pub-rock, glam-rock eszenan- sortutako taldea. Eurak dira oi!-aren aitaitetako batzuk, duda barik. Zer dute? Melodia sarkorrek, zahartze oso ona eta klasiko mordoa.
- **01:05 Peter & Test Tube Babies** Ingalaterrako dinosauro beteranoak, 77ko punkari bestelako sonoritatea gehitzen asmatu zutenak, ilunagoa, azkarragoa eta umorearekin.

Goienakideen txokoa**UZTAILEKO SARIAK**

Bi lagunendako bi gaueko egonaldia Altsasuko San Pedroko Bidea turismo etxean
Parte hartzeko sariaren izena: Egonaldia

Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUTZ
GASTURAKO DAU

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.harremanetanda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE
"sariaren izena" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Hobien dago 03013/1000 legea adierazten duen datu pertsonalaren konfidentzialtasunaren berri emateko. Datu bakoitzaren helburu bakarra da informazioaren sustapena goienakideen txokora. Goleaketa zuzentzeko dituzten sariak, hain zuzen ere, ez dira helburu berekoak. Goleaketa zuzentzeko dituzten sariak, hain zuzen ere, ez dira helburu berekoak. Goleaketa zuzentzeko dituzten sariak, hain zuzen ere, ez dira helburu berekoak.

Irabazi bi lagunendako otordua**ZUMELAGA JATETXEARI ESKER**

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: uztailek 12

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 🗣️ "Goiena app"-a / zozketa atalean.

📱 GOIENAKIDE Jotetxea [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 30€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIAI

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia

OROIGARRIA



Manex Dominguez Etxaniz




2022ko ekainaren 29an hil zen, 21 urte zituela.

Ikasle eta langileok bat egiten dugu familiaren saminarekin.




Arrasaten, 2022ko uztailaren 8an.

ESKER ONA



Andresa Irigoyen Duhalde

Patxi Garayren alarguna



2022ko uztailaren 4an hil zen, 96 urte zituela.


Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2022ko uztailaren 8an.

ESKER ONA

Eusebio Uriarte Madinabeitia

Jesusa Guridiren alarguna




2022ko uztailaren 3an hil zen, 90 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2022ko uztailaren 8an.

ESKER ONA



Manex Dominguez Etxaniz



2022ko ekainaren 29an hil zen, 21 urte zituela.

Manexen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bizitza besarkatzen zenuen indarrarekin besarkatzen zaitugu guk orain, Manex. Aske izan beti.

Zure osaba-izebak: Joxe Mari eta Begoña (†), Mila eta Josu, Espe, Susana eta Roman, Pablo. Lehengusu-lehengusinak: Oihane eta Anje.

ESKER ONA



Iñaki Goikoetxea Agirreolea




2022ko ekainaren 29an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko uztailaren 8an.

ESKER ONA

Juanito Kortabarria Elkoro



2022ko ekainaren 29an hil zen, 63 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko uztailaren 8an.

URTEURRENA



Juli Arietaleaniz Ciarsolo

Eliseo Muñozen alarguna



2021eko uztailaren 13an hil zen, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zareteno eskerririk asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2022ko uztailaren 8an.

URTEURRENA

Miguel Okina Salsamendi



2021eko ekainaren 5ean hil zen, 96 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 10ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zareteno eskerririk asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2022ko uztailaren 8an.

URTEURRENA

M. Pilar Iñarra Alberdi




2021eko uztailaren 23an hil zen.

Gogoratzen garelako gurekin zaude; hurrengo Joxepetako zelaian alkatu arte.


Uztailaren 10ean, igandea, 12:00etan urteurren meza izango da Santa Marinako elizan.

Bertaratuko zareteno alde zure eskerririk asko. Bergaran, 2022ko uztailaren 8an.

URTEURRENA



Aitor Elkororibe Pujana



2021eko uztailaren 13an hil zen, 55 urte zituela.


Gauero ateratzen da zure izarra Euskal Herriko zeru gainean. Faltan bota zaitugu!

Gurasoak: Maria Dolores eta Luis M. (†). Bikotea: Maite Ibabe. Arreba: Izaskun eta Josexu Urrea. Ilobak: Ione eta Ander, eta Miren eta Andoni.

Bergaran, 2022ko uztailaren 8an.

2. URTEURRENA

Arantzazu Amasorrain Linacisoro



1948-07-26 / 2020-07-09

Maitasuna eguneru ospatzen delako, maite zaitugu.

Eskerrik asko, Arantzazu, eskerririk asko, ama.

Bergaran, 2022ko uztailaren 8an.

BADESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerririk beroenak guregan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

URTEURRENA

Jose Maria Larrañaga Ecenarro



2021eko uztailaren 2an hil zen, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 10ean, 12:00etan, Aramaiko San Kristobal ermitan.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko. Aramaion, 2022ko uztailaren 8an.

URTEURRENA

Mikel Pagalday Aguiriano



2011ko uztailaren 14an hil zen, 38 urte zituela.

*Utzi gintuzun arren,
gure alboan jarraitzen duzu
bidea egiten.*

Igandean, hilak 10, Eskoriatzako San Pedro parrokian, 12:30ean, izango da hamaikagarren urteurreneko meza.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Eskoriatzan, 2022ko uztailaren 8an.

URTEURRENA

Alberto Ciardegui Larrañaga



*Ez ziguten irakatsi
hutsunea bizitzen
zugandik ikasi genuen baina
bizitzaz gozatzen.*

- Maite zaitugu, aita -

Igandean, goizeko 12:30ean, lehen urteurreneko meza izango da Aretxabaletako Jasokundearen Andra Mariren parrokia elizan.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko. Aretxabaletan, 2022ko uztailaren 8an.

HILDAKOAK

Periko Unamuno Ezpeleta. Valentzian, ekainaren 28an. 92 urte.
Manex Dominguez Etxaniz. Soraluzen, ekainaren 29an. 21 urte.
Maria Rosario Balsera Pozo. Arrasaten, ekainaren 30ean. 88 urte.
Sabina Sagasta Agirre. Bergaran, uztailaren 1ean. 101 urte.
Juanito Arroiabe Pagoaga. Arrasaten, uztailaren 2an. 90 urte.
Eusebio Uriarte Madinabeitia. Oñatin, uztailaren 2an. 90 urte.
Mari Carmen Askasibar Urbistondo. Arrasaten, hilaren 3an. 83 urte.
Demetria Lazpiur Lekuona. Bergaran, uztailaren 3an. 94 urte.
Andresa Irigoyen Duhalde. Arrasaten, uztailaren 4an. 96 urte.
Maria Puy Gambra Viteri. Eskoriatzan, uztailaren 5ean. 68 urte.
Antonia Fernandez Rastrollo. Antzuolun, uztailaren 6an. 83 urte.
Jose Joakin Arrazola Guridi. Oñatin, uztailaren 6an. 72 urte.

ASTE GOIENA TELEBISTAN



ANTZUOLAKO JAIEN TXUPINAZOA ZUZENEAN

'Bereziak' Eguena, 19:30



ANTZUOLAKO JAIEN ERREPASOA

'Jaiak' Uztailak 19, 21:00 eta 23:00

EGUBAKOITZA, 8

08:00 Zirikatzen 19
 08:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
 10:00 Hemen Debagoiena
 11:00 Jaiak: danborrada
 11:30 Akordeak 1
 12:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
 13:30 Zirikatzen 19
 14:00 Albisteak
 14:30 Jaiak: danborrada
 15:00 Albisteak
 15:30 Galdegazte: Jokin Oregi
 16:00 Albisteak
 16:30 Elkarrizketa: Aitziber Agirre
 17:00 Albisteak
 17:30 Harmailatik
 18:00 Hemen Debagoiena
 19:00 Zirikatzen 19
 19:30 Akordeak 1
 20:00 Hemen Debagoiena
 21:00 Jaiak: danborrada
 21:30 Bizi Gipuzkoa 1
 22:00 Hemen Debagoiena
 23:00 Kooltur: Dupla

ZAPATUA, 9

08:00 Asteko errepasoa
 09:00 Akordeak 1
 09:30 Hemen Debagoiena
 10:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
 12:00 Osoko bilkura: Oñati
 12:30 Hemen Debagoiena
 13:30 Ikuskizuna: 'Basoaren hotsa'
 15:00 Galdegazte: Jokin Oregi
 15:30 Hemen Debagoiena
 16:30 Asteko errepasoa
 17:30 Elkarrizketa: Aitziber Agirre
 18:00 Hemen Debagoiena
 19:00 Solstizio kontzertua
 20:00 Osoko bilkura: Oñati
 20:30 Hestela (Azpetitia)
 21:00 Galdegazte: Jokin Oregi
 21:30 Hemen Debagoiena
 22:30 Xaka!
 23:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak

DOMEKA, 10

08:00 Hemen da Miru
 08:30 Hemen da Miru
 09:00 Hemen da Miru
 09:30 Galdegazte: Jokin Oregi
 10:00 Asteko errepasoa
 11:00 Elkarrizketa: Aitziber Agirre
 11:30 Akordeak 1
 12:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
 13:30 Hemen Debagoiena
 14:30 Osoko bilkura: Oñati
 15:00 Akordeak 1
 15:30 Solstizio kontzertua
 16:30 Xaka!
 17:00 Hemen Debagoiena
 18:00 Asteko errepasoa
 19:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak
 20:30 Hemen Debagoiena
 21:30 Ikuskizuna: 'Basoaren hotsa'
 23:00 Jaiak: Debagoieneko jaiak

EGUBAKOITZA, 8

ANE MADINA IGERILARIA EZAGUTZEN

'Luzapena'

18:00/20:00/22:00

ASTELEHENA, 11


'IZENEN IZANA' TARTEA 'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista
 Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 12



'ANGIOLILLO VS CÁNOVAS' LANA

'Bereziak'

21:30/23:30

EGUAZTENA, 13

BEHOTSIK ORKESTRARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21:00/23:00

BERRI-ZAKUA



Denboraldiko azkena

Arrasateko Sasoibide taldekoek bukatu dute ikasturtea, iaz hasitako erronkaren bigarren etaparekin: Ignaziotar Lurraldearen bigarren etaparen zati bat egin zuten. Zumarragako Antio ermitan hasi zuten ibilaldia, eta Legazpin bukatu. Tartean, Mirandaola, Barrendiola eta Brinkola bisitatu zituzten.



Sanferminetan

Uztailaren 6an lehertu zen festa Iruñean, eta Arrasateko gaiteroek ez zuten hutsik egin, beste behin. Goizean goiz joan ziren hara, eta urteroko *protokoloa* ipini zuten martxan: hamaiketako ona egin, txupinazo ostean plazan jo, eta ondoren, kalejiran ibili. Ederto ibili ziren beste hainbat gaiteroekin batera.



Agur omenaldia

Bergarako Mariaren Lagundiko mojak badoaz herritik. Hori horrela, omenaldi hunkigarria jaso zuten aurreko asteburuan. Pasarte musikalak, bertsoak, malkoak, besarkadak eta esker oneko hitzak entzun eta ikusi ziren elizan bertan egindako ekitaldian. Aureskua ere dantzatu zieten.



Agur denboraldiari

Aretxabaletako pilotariak bukatu dute denboraldia. Eskuz banakako lau eta erdiko Gipuzkoako Txapelketan garaipenak erdietsi zituzten Barandiaran gazteak eta Zugasti nagusiak finaleran. Eskuz binaka, ostera, esku-hutsik geratu ziren aretxabaletarrak ekainaren 25ean jokaturako partiduetan. Orain, opor egun batzuk hartuko dituzte.



'Atxabalta Harro'
LGTBIQ+ Pertsonen Eskubideen Aldeko Nazioarteko Egunaren harira lehenengoz antolatu zuten *Atxabalta Harro* eguna Aretxabaletan, eta pozik agertu dira antolatzaileak, "giro oso polita eta une hunkigarriak" bizi izan zirelako. Horregatik, jarraipena izango duela iragarri dute.

Borrokaldia eta urtebetetzea
Boxeo jaialdia izan zen aurreko zapatuan Bergaran. Sorabox taldeko hainbat debagoindarrek parte hartu zuten. Tartean, etxeko losu Zalakainek. Borrokaldia irabazteaz gain, urtebetetze eguna ere bazuen, eta lagunekin ospatu zituen biak, pankarta eta guzti.

Errozioan ederto
Arrasateko Al-Andalus zentro kulturalak egun osoko egitaraua prestatu zuen aurreko domekarako, Errozioko erromeriaren 30. urteurrena ospatzeko. Parte-hartzaile gehienak dotore jantzita joan ziren. Erromesaldiaren ostean, Arruena parkean egin zuten dantza, aspertu arte.

Sanpedroak ospatzen


Oñatiko Zubillaga auzoan jaietan ibili ziren aurreko asteburuan. San Pedro jaiak ospatu zituzten, egubakoitzetik domekara. Adin guztietako herritarrendako ekintzak egon ziren aukeran. Irudian ikusten den moduan, gaztetxoekin ederto pasa zuten Potx magoaren emanaldiarekin. Askotariko trikimailuak egin zituen.



ZORION AGURRAK



OÑATI
Malen Caro Arriaran
Uztailaren 14an, 9 urte. Zorionak, laztana! Jada 9 urte. Segi horrelakoa izaten. Ondo ospatu zure urtebetetzea eta muxu asko etxekoan partetik.



OÑATI
Izar Alzelai Berrocal eta Ion Alzelai Zubia
Izarrek uztailaren 11n, 9 urte egingo ditu eta Ionak 14an, 46 urte! Zorionak, bikote! Ondo ospatu zuen urtebetetze egunak! Patxo handi bat etxekoan partetik!



BERGARA
Martin Lazkano Bilbao
Uztailaren 10ean, 8 urte. Zorionak, Martin! Iritsi da eguna! Jarraitu zure ametsak betetzen! Patxuak danon partetik!




OÑATI
Urko Garitano Urzelai
Uztailaren 10an, 9 urte. Zorionak, Urko! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna. Patxo erraldoi bat etxeko danon, eta bereziki, Hegoiren partetik. Muak!



OÑATI
Eñaut Biain Agirrezabalaga
Uztailaren 9an, 8 urte. Zorionak familixaren partetik eta muxu handi bat, mutikote!



BERGARA
Anne Osuna Igartua
Uztailaren 8an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu potolo bat etxeko denen partetik! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!



OÑATI
Maialen Marton Camino
Uztailaren 8an, 8 urte. Zorionak, Maialen! Ondo pasatu zure eguna eta muxu potolo bat denon partetik.



ESKORIATZA
Gotzon D. de Gereñu Kortazar
Uztailaren 8an, 56 urte. Zorionak, txapeldun! Zure eguna ondo-ondo pasatu! Muxu eta besarkada handi bat familiako guztion partetik.




ESKORIATZA
Alex Maturana Sheen
Uztailaren 7an, 6 urte. Zorionak familixaren partetik!



ARAMAIO
Maren Muñoz Lopez de Bergara
Uztailaren 7an, 6 urte. Zorionak, Maren! Muxu pila bat familia osoaren partetik eta potolo bat Aiurrena!



ARRASATE
Ibai Madinabeitia Lasa
Uztailaren 5ean, 3 urte. Zorionak, sagutxo! Hiru muxu erraldoi etxeko guztion partetik!



ARRASATE
Aimar Horriño Zallo
Uztailaren 4an, 2 urte. Zorionak, Aimar! Gurasoen, anaia Anerren, aiti-tamamen eta birramamaren partetik, patxo handi bat!



ARRASATE
Pedro Agiriano Urrutia
Altxibarko nagusiak 90 urte, uztailaren 3an. Laster iritsiko da eguna familiaren berotasuna jasotzeko. Zorionak, seme-alaba, biloba eta iloben partetik!



ARETXABALETA
Ekain Nuñez Belategi
Uztailaren 2an, 2 urte. Zorionak etxeko ganberroari. Bi urtetxoko. Jarraitu gure bizitzak alaitzen. Patxo handi bat.



ARRASATE
Manex Roa
Uztailaren 1ean, 7 urte. Zorionak, Manex! Primeran ospatu zure eguna! Askota maite zaitugu!



ARRASATE
Maider Barandiaran Garai
Ekainaren 30ean. Zorionak, laztana! Zazpi urte dagoeneko! Jaso muxu eta besarkada pilo bat zure familiakoan partetik. Askota maite zaitugu!



OÑATI
Leire Etxezarreta Urzelai
Ekainaren 29an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako, maillita! Patxo handi bat etxekoan, eta batez be, Axelen eta Uxueren partetik. Askota maite zaitugu.



BERGARA
Markel Garitona Atxa
Ekainaren 27an, 10 urte. Zorionak etxeko danon partetik. Muxu pila bat.

ZORIONTEKO HIRU BIDE
• Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu.
• Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
• Zatoz Goienara batera edo delitu 943 25 05 05 telefonora.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 8

OÑATI Odol ateratzea

Udako oporren aurreko azkena. Aurrez hartu behar da odola emateko ordua: 943-00 78 84. *Enpresagintzan, 16:30ean.*

ARETXABALETA UDAREN batzar orokorra

Bukatu berri den denboraldiaren gaineko balorazioak eta irailean hasiko denaren aurreikuspenak egingo dituzte. *Arkupen, 18:30ean.*

ARRASATE Mondra & Roll jaialdia

Gaur, The Baboon Show, Cockney Rejects, La Inquisicion, La Excavadora eta The Capaces taldeen emanaldiak. *Monterron parkean, 19:00etan.*

OÑATI Trianako jaiak

19:00etan, Trastornoren jaitsiera; 19:00etan, boliviarrak; 19:30ean, presoan aldeko elkarretaratzea; 22:00etan, Mentertz, Doce C Klik eta Maixa Ta Malakias taldeak; 00:00etan, bikote jolasak; eta ordu txikitik, helduentzako marrazki saioa. *Trianan.*

ESKORIATZA 'Desmontando estereotipos eróticos' hitzaldia

ADP Sexologiako presidente Natalia Urteagak egingo du berba, gazteleraz. *Kultura etxean, 19:00etan.*

BERGARA Arima Soul taldea

Soul, funk eta groove doinuak, Berumuga jaialdiaren baitan, izen bereko diskoa aurkezteko. *Espoloian, 22:00etan.*

BERGARA San Kristobal jaiak

Pinua sartu, eta ostean, saiheskia, sagardoa eta txokolate-jana, ermitaren aurreko zelaian. *Aldai Egia auzoan, 22:00etan.*

ARAMAIO Film laburren emanaldia

Korterra jaialdiko film laburrak eskainiko dituzte, aire zabalean. Debalde. *Elizako eskaileretan, 22:00etan.*

ZAPATUA 9

ARRASATE Santa Teresako jaiak

10:00etan, trikitilariekin goizeresia; 11:00etan, umeendako lasterketak; 12:00etan, txosnaren irekiera; 13:00etan, pegoia; 14:00etan, patata-tortilla lehiaketako sari banaketa, eta ostean, parrillada; 17:00etan, bingo jokoa; eta 21:00etan, Patxi Luqueren emanaldia. *Santa Teresan.*

OÑATI Hotz Oñatiren informazio-mahaia

Taldearen materiala salgai. *Foruen plazan, 10:30ean.*

ARRASATE Bisita gidatu historiko-kulturalak

11:00etan euskaraz eta 12:15ean gazteleraz. Izenak emateko: *turismo@arrasate.eus* edo 943-25 20 00. *Herriko Plazan, 11:00etan.*

OÑATI Trianako jaiak

12:00etan, umeentzako marrazki saioa eta sari banaketa; 15:00etan, llini kafea; 16:00etan, mus txapelketa; 17:00etan, ur-pistolen gerra –nork berea–; 19:00etan, txorimalo eta erraldioen kalejira, dultzaineroek lagunduta; 19:00etan, boliviarrak; 20:00etan, Erruki taldearen erromeria; eta 23:00etan, Erruki taldearen erromeria eta Yogurinha Borovaren saioa. *Trianan.*

ARETXABALETA San Kristobal jaiak Larrinon

12:30ean, meza auzoko ermitan, eta ostean, mokadutxo. Autoa loreekin dotoreen apaintzen duenak saria jasoko du. *Larrino auzoan.*

ARRASATE Mondra & Roll jaialdia

Gaur, Cock Sparrer, Des-kontrol, Peter And The Tube Babies, Perlata, Crap eta Zero taldeen emanaldiak. *Monterron parkean, 19:00etan.*

BERGARA Gau elektronikoa

Sudo, Testigo 7 eta Animalia taldeak. Sarrerak, bost euro. *Kartzela zaharrean, 22:30ean.*

BERGARA San Kristobal jaiak

Obeneuke taldearekin erromeria. *Aldai Egia auzoan, 23:00etan.*

DOMEKA 10

ARRASATE 'Udalatxera igoera Besaidetik' ibilaldia

Zortzi kilometroko ibilaldia. Izenak emateko: *turismo@arrasate.eus* edo 943 25 20 00. *Udala auzoan, 09:00etan.*

ANTZUOLA Antzuolako jaiak

09:30ean, txirindulari lasterketa, Iñaki Leteren oroimenez; eta 14:15ean, erretiratuendako bazkaria. *Antzuolan.*

OÑATI Trianako jaiak

10:00etan, goizeresia; 13:00 Oñatz dantza taldeko gaztetxo saioa; 15:00etan, auzo bazkaria; 19:00etan, bertso saioa, Txaber Altube, Ane Zuazubiskar, Lourdes Ondaro eta Urko Arregi bertsolariekin; eta 21:00etan, Xolonponen omenezko traka. *Trianan.*

OÑATI 'Aitxorraren bila' Arantzazun

Ibilbide irisgarrian, pisten jolasa. Izenak emateko: *arantzazu@gipuzkoanatura.eus* edo 943-78 28 94. *Arantzazuko Parketxean, 11:00etan.*

OÑATI 'Busti zaitetz' kanpaina

Esklerosi Anizkoitza Euskal Fundazioak informazio mahaia eta materiala salgai ipiniko ditu. *Foruen plazan, 11:00etatik 14:00etara.*

BERGARA San Kristobal jaiak

12:00etan, meza; eta ostean, autoen bedeinakapena, auzoko erretiratuendako luntxa eta Mariatxi taldearen emanaldia. *San Kristobalen, 12:00etan.*

ARAMAIO San Kristobal eguna

12:00etan, meza, Bizente Goikoetxea abesbatzak lagunduta; ostean, bermut dantza Jun Da Jo taldearekin; 15:00etan, auzo bazkaria, eta, bazkalostean,



EJJO

ARRASATE Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestraren (EJJO) emanaldia

Arrasate Blues 0 Km jaialdiaren baitako emanaldia. Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatutako hezkuntza-musika proiektu bat da EJJO. Musikariek jazz musika eta modernoa egiteko aukera dute horrela. *Etzi, domeka, Herriko Plazan, 13:00etan.*

erromeria; eta 17:00etan, bolo txapelketa. *Uribarri auzoan.*

ARRASATE Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra

Arrasate Blues 0 Km jaialdiaren baitan. *Herriko Plazan, 13:00etan.*

BERGARA Potx eta Lotx pailazoak

Kaleak bizirik! ikuskizuna egingo dute. Euriarekin, Espoloian. *Usondo parkean, 19:00etan.*

ASTELEHENA 11

BERGARA 'Amaiur 1922-1939. Memoria demokratikoa' erakusketa

Gure historian erreferentia den memoria tokiaren ibilbide historikoa biltzen duen aldi baterako erakusketa. Ikusgai egongo da irailaren 11ra arte. *Laboratoriumen, 10:00etan.*

MARTITZENA 12

BERGARA 'Dolmenen Ibilbidea' bisita gidatua

Gaur, gazteleraz. Izenak: 657 79 46 77 telefonoa edo *Debarrena.turismo.com* ataria. *Karakaten, 10:00etan.*

ANTZUOLA AKERen batzarra

Bukatu berri den denboraldiaren gaineko balorazioak eta irailean

hasiko denaren aurreikuspenak egingo dituzte. Zuzendaritza batzordea berritu egingo dute. *Olaran etxean, 17:30ean.*

ESKORIATZA 'Axtrokiko ontziak' erakusketa bisita gidatua

1972ko lur-jausi baten ondoren topatutako ontzien erreplika ona ikusteko aukera: 18:00etan euskaraz eta 19:00etan gazteleraz. Erakusketa zabalik egongo da hilaren 27ra arte. *Ibarraundin.*

ARRASATE 'Nudo' antzezlana

Rojo Telon taldearen lana, Udazabal egitarauaren baitan. *Biteri plazan, 20:00etan.*

OÑATI 'Brinkola' telesaila

4., 5., eta 6. atalak emango dituzte Martizinean zikloaren baitan. *Gaztetxean, 22:00etan.*

EGUAZTENA 13

BERGARA Kafe Konpon

Etzeko tresna txikiak konpontzen ikasteko tailerra. *San Joxepe elkartearen, 16:00etan.*

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserriaren garaioko produktuak erosteko aukera. *Oxirondon, 18:00etan.*

OÑATI Bidaide taldea

Donostiako laukotearen emanaldia, Klean 2022 egitarauaren baitan. *Lazarraga lorategian, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Hemendikara' ikuskizuna

Zirika Zirkus taldearekin, familian ikusteko ikuskizuna.
Herriko Plazan, 19:00etan.

EGUENA 14

OÑATI 'Adinekoak eta mugikorren erabilerak'
Erretiratuendako saioak.
Pake Lekun, 09:30ean.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak
10:30-12:30 eta 16:00-18:00, ur jolasak; eta 18:30ean, pintxo-poteoa.
Portasolen.

OÑATI Garbigune ibiltaria
Egun osoan izango da herritarrek utziko materiala batzen.
Olakuan.

ANTZUOLA Antzuolako jaiak
12:30ean, jaien hasiera; 13:30ean, umeendako bazkaria; 18:00etan, kalejira, Bergarako erraldoiekin; 19:00etan, txosnen irekiera; 19:00etan, kalejira, Alboradak txistulari taldearekin; 19:45ean, Antzuolako zapia jartzea 2021eko eta 2022ko jaiak bitartean jaiotako umeei eta herriko bi nagusienei; 20:00etan, ikurrin dantza; 20:30ean, Klakison eta Lemak taldeen kontzertuak; 21:30ean, kantu afaria, Bentazarreko Mutiko Alaiak taldearekin; eta 00:00etan, hontzaren jaitziera.
Antzuolan.

ARRASATE Itxaso Gaztelugatxe bakarlarria
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Herriko Plazan, 19:00etan.

EGUBAKOITZA 15

ANTZUOLA Antzuolako jaiak
10:00etan, txistularien goizeresia; 11:00etan, gastronomia lehiaketa; 11:00etatik 13:00etara, umeendako jolas parkea; 13:00etan, gastronomia lehiaketako sari banaketa; 13:15ean, dastatzea; 14:30ean, herri bazkaria; 16:30etik 18:30era, umeendako jolas parkea; 18:00etan, kuadrilla jokoak;

22:00etan, Amak taldearen kontzertua; 22:30ean, Inguma, Rebel Noise eta Maixa Ta Malakias taldeen kontzertuak; eta 00:00etan, Bada Giro taldearen erromeria.
Antzuolan.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak
16:30ean, buruhandiak gaiteroekin; 17:00etan, patata-tortilla lehiaketa; 22:00etan, Jotabe kontzertua, txosna mugikorrean; 23:00etan, Lekittoko Deabruak taldearekin piroteknia ikuskizuna; eta 00:00etan, Akulu, Eguzki-Alde elkarteko oholztan.
Aretxabaletan.

OÑATI Memoria aktibatzeko tailerra

Erretiratuendako tailerra izango da, Lagun Lekuren eskutik. Gaurkoa izango da lehen saioa. Bigarrena egingo dute hilaren 29an.
Eltzian, 17:30ean.

ARRASATE Iker Piris & Dual Electric & Marco Pandolfi taldeak
Blues doinuak, Arrasate Blues jaialdiaren baitako kontzertuan.
Euskal Herria plazan, 19:00etan.

ARRASATE Emilio Arsuaga & The Mad Reeds & Chris Bell taldeak
Arrasate Blues jaialdiaren baitan.
Portaloian, 20:00etan.

BERGARA The Reverends Shawn Amos taldea
Rhythm and blues doinuak, Berumuga jaialdiaren baitan.
Espoloian, 22:00etan.

ARETXABALETA Piroteknia ikuskizuna
Deabruak gara, soms diables izeneko piroteknia ikuskizuna eskainiko du Lekittoko Deabruak taldeak. Emanaldi ibiltaria izango da, kiroldegi aurreko berdegunetik abiatuta.
Aretxabaletan, 22:30ean.

ARRASATE Itziar Yague Cuarteto ft Greg Izor taldeak
Arrasate Blues 0 Km jaialdiaren baitan. Bi artisten errepertorioetako kantuekin osatuko dute emanaldia.
Herriko Plazan, 23:00etan.

ZINEMA**EIBAR****COLISEO**

Minions
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00, 20:30.
Astelehena: 20:30.

Llenos de gracia
Zapatua eta domeka: 17:00.

La isla de Bergman
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00, 20:30.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

Llenos de gracia
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**BOULEVARD**

Thor: love and thunder
Egunero: 16:00, 16:30, 17:30, 18:00, 18:30, 19:00, 20:00, 20:30, 21:00, 21:30, 22:00, 22:30, 23:00.
Egunero, martitzena izan ezik: 19:30, 22:00.
Martitzena: 22:00.

Minions
Egunero: 16:00, 17:00, 18:00,

19:00, 20:00, 21:00, 22:00, 23:00.
Martitzena: 19:00, 21:00.
Egunero: 17:15, 20:15.

Elvis
Egunero, martitzena izan ezik: 15:45, 18:50, 21:55.
Martitzena: 15:45, 18:50.

Jurassic world
Egunero: 16:00, 19:00, 22:00.

Llenos de gracia
Egunero: 15:45, 17:50.

Top gun
Egunero: 20:10, 22:25.

Black home
Egunero: 20:10, 22:45.

Ligthyear
Egunero: 15:45, 18:00.

Mamá no enredes
Egunero: 15:45.

GORBEIA

The black phone
Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 22:00.
Domeka: 12:00, 17:10.
Astelehenetik eguaztenera: 20:50

Elvis
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:15.
Astelehenetik

eguaztenera: 16:30, 17:15, 18:40.

Jurassic World
Egubakoitza eta zapatua: 16:40, 19:35, 22:00.
Domeka: 11:30, 16:40, 19:35.
Astelehenetik eguaztenera: 16:40, 19:35.

Ligthyear
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:20, 22:20.
Domeka: 12:00, 17:15, 19:20.
Astelehenetik eguaztenera: 16:30, 17:15, 18:40.

Llenos de gracia
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:05, 22:20.
Domeka: 12:00, 17:00, 20:05.
Astelehenetik eguaztenera: 17:00, 20:05.

Minions
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 17:30, 18:10, 19:30, 20:05, 21:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 16:15, 18:20, 20:05.
Astelehenetik eguaztenera: 16:15, 17:30, 18:10, 19:35, 20:05.

Top Gun
Egubakoitza eta zapatua: 19:25, 22:00.
Domeka: 11:30, 19:25.

Astelehenetik eguaztenera: 19:25.

Thor: love and thunder

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 17:00, 19:00, 19:35, 21:30, 22:15.
Domeka: 12:00, 16:30, 17:20, 19:00, 19:50, 22:15.

Astelehenetik eguaztenera: 16:15, 17:30, 18:45, 20:00, 21:15.

FLORIDA

Cinco lobitos
Egubakoitza: 19:50.
Zapatua eta domeka: 11:30, 19:50.
Astelehenetik eguaztenera: 20:10.

Jurassic World
Egubakoitza: 17:00, 21:55.
Zapatua: 12:00, 17:00, 21:55.
Domeka: 12:00, 17:00.
Astelehenetik eguaztenera: 17:20.

Ligthyear
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Zapatua eta domeka: 11:45, 17:00.
Astelehenetik eguaztenera: 17:20.

Elvis
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:10, 21:45.
Domeka: 17:00, 19:10.
Astelehena: 17:15, 19:30.
Martitzena eta eguaztena: 19:30.

El leopardo de las nieves
Zapatua eta domeka: 11:30.

Llenos de gracia
Egubakoitza: 17:10, 19:30.
Zapatua: 11:30, 17:10, 19:30.
Domeka: 11:30, 17:10.

Astelehena eta martitzena: 17:30.
Eguaztena: 17:30, 20:00.

Minions
Egubakoitza: 16:50, 18:40, 20:30, 22:20.

Zapatua: 12:00, 16:50, 18:40, 20:30, 22:20.
Domeka: 12:00, 16:50, 18:40, 20:30.
Astelehena eta martitzena: 17:20, 19:30.
Martitzena: 17:20, 20:00.

La isla de Bergman
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:15.
Domeka: 20:00.
Astelehenetik eguaztenera: 20:15.

Benediction
Egubakoitza: 17:00, 19:35, 22:10.
Zapatua: 12:00, 17:00, 19:35, 22:10.
Domeka: 12:00, 17:00, 19:35.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00.

Mali twist
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:35, 22:05.
Domeka: 17:00, 19:35.

Astelehenetik eguaztenera: 17:20, 20:00.

Mis queridimos hijos
Egubakoitza eta zapatua: 22:10.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:00.
Martitzena eta eguaztena: 17:30.

Thor: love and thunder
Egubakoitza: 17:10, 19:40, 22:10.
Zapatua: 11:30, 17:10, 19:40, 22:10.
Domeka: 11:30, 17:10, 19:40.
Astelehenetik eguaztenera: 17:20, 20:00.

KRITIKA**La isla de Bergman**

Zuz.: Mia Hansen-Love. **Aktoreak:** Vicky Krieps, Tim Roth, Mia Wasikowska. **Iraupena:** 112 minutu. ★★★★★

Bergmanen etxean**ANTONIO ZABALA**

Ingmar Bergman zinemagile handiak urte asko pasa zituen, eta film ugari grabatu, Suediako Faro irlan. Munduko zuzendari asko hunkituta sentitu izan dira haren istorioekin eta filmekin. Hori dela eta, jende asko joaten da Faro irlara, zuzendaria bizi izan zen etxea, museoa, hilobia eta filmak egiteko erabili zituen lekua bisitatzera. Horien artean, filmaren bikote protagonista dago. Tony zinema zuzendari ospetsua da, uhartera doa film bat aurkeztera eta Bergmani

buruz hitzaldiak egitera. Hurrengo proiektua martxan jartzen ari da, eta lasaitasunez hartzen du prozesu osoa. Chris Tony baino askoz gazteagoa da eta blokeatuta sentitzen da idazten ari den gidoiarekin. Filmak bikotearen krisialdia kontatzen du. Azken finean, arazoak izaten ditugu gure esukaririk ateratzeko eta besteekin guztiz bat egiteko. Horrekin batera, filmaren bigarren zatia aurrera doanean, Chris Tonyri kontatzen dio idazten ari den gidoiaren

argumentua, eta guk aukera daukagu istorioa irudietan ikusteko.

Egia esan, ez da oso erraza bikote protagonistarengana hurbiltzea. Ikusten ditugu euren ibilaldiak eta irlako biztanleekin egiten dituzten topaketak, baina gatazka osoa nahiko motel agertzen da. Bizia falta zaio zuzendariari erabiltzen duen kontatzeko moduari, eta agertzen diren bi istorioek ez dute elkar osatzen. Filma ez da aspergarria, baina du ikuslea harrapatzen.



AZKEN BERBA

ANE ZUAZUBISKAR

Postalak

Hiztegia begiratu behar izan dut nola esaten den, baina bai, damutu egiten naiz Erasmusean joan izanaz. Damutu egiten naiz, damu naiz. Ados, kontzeptu katastrofiko da damua. Orain "ez nuke berriro egingo" esaten zaio. Ez nintzateke berriro joango Belgikako azken puntako azken unibertsitate-hirira. Harritu egiten naute Arrasatera Erasmus egonaldirako iristen diren ikasleek. Iaz etorri ziren bi ikasle itzuli dira aurten bisitan. Ni ez naiz orduetik Belgikan izan.

Unibertsitateko lagunak onenarekin joan nintzen, eta ez ditut saltzeko hangoak, baina oraindik ere gogoratzen dut orduko sentsazioa: Bruselan trenean sartu eta ordubeteko bidea lautada luze eta mendi gabeko paisaieran, eta gertuen geneuzkan fundamentuzko mendiak Alpeak ziren sentsazioa. Ito egiten ninduen pasaiak. (Gehitu horri Bizkaiko kostaldeko lagunaren itsaso-falta). Norbere herriei ikusten genizkien txar guztiekin adiskidetu itzuli ginen etxera. Zoazte lasai oporretan, eta ez bidali postalik. Guk ere badugu Instagram.

GOIENA OKM GIDA

"Arreta pertsonalizatua ematen diegu bezeroei"

ELENE ARRIOLA, IZASKUN BOLINAGA ETA SARA CARMONA COINBROKER EUSKADI
Aseguru-artekaritza enpresa honek zerbitzu integrala eskaintzen die partikularrei, autonomoei eta enpresei, bakoitzaren ezaugarri eta beharretara egokituta

Idoia Aranbarri Arzuaga OÑATI

Unai eta Mikel Saiz anaiek 2015ean ireki zuten Coinbroker Euskadi aseguru-artekaritzaren lehenengo bulegoa, Oñatin. Orduetik, Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan eta Eibarren ere ireki dituzte bulegoak. Gaur egun, hamaika langilek osatzen dute lantaldea eta horietako hiru dira Elene Arriola, Izaskun Bolinaga eta Sara Carmona.

Nolatan zabaldu zen Coinbroker Euskadi?

Unai eta Mikel Saiz anaiek Oñatin aseguru-artekaritza bulegoa irekitzeko aukera ikusi zuten. Agente eskusiboak bazeuden, baina zerbitzu independentearen aukerarik ez.

Zein da enpresaren helburua?

Betidanik pentsatu izan dugu helburua jendeari laguntzea dela, bezeroari arreta pertsonalizatua ematea; hau da, azkenean, zuk zure familiako bati egingo zenukeen aseguru-azterketa bat ba edozein herritarri ematea zintzotasunarekin, erantzukizunarekin eta gauzak ondo eginda.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue?

Aholkularitza da gure zutabea. Asegurua kontratatzearen arrazoiak aztertu ostean, aseguru programa pertsonalizatua es-



Hamaika langileetako hiru dira Arriola, Bolinaga eta Carmona. I.A.A.

Aseguruak berraztertu, bai edo bai

"Garrantzitsuena bezeroarekin aseguru berraztertea da. Enpresen kasuan, adibidez, inbertsio berriak egiten dituzte edo jarduera bera ere aldatu egin daiteke. Urtero fakturazioa ez erregularizatzeak, arazoak dakartza. Enpresen jabeak lanez lepo dabilta eta, askotan, halako gaietaz ez dira ohartzen. Horregatik, geu egoten gara adi. Konfidantzazko harremana garatzen da, bezeroa gure lan-taldearen artean".

kaintzen diegu bezeroari. Jarraipena, kudeaketa eta eguneraketa gure gain hartzen ditugu. Bezeroa gugana etor daiteke aseguruarekin lotura duen edozer egiteko. Halaber, enpresa eta autonomoen aseguruetan espezializatuta gaude. Metodologia hau partikularrekin ere erabiltzen dugu.

COVID-19a dela-eta osasun-aseguruen eskariak igo egin dira?

Orokorrean, igarri da, baina ez askoz gehiago. Uste dugu etorri direnak emaitzen azkartasunagatik etorri direla.

Prezioari erreparatzen dio bezeroak?

Aseguru bat merke kontratatu daiteke, baina ondoren ezertarako balio ez izatea, ez badu behar duzuna estaltzen. Gure eskaintza kalitatean oinarritzen dugu, bezeroak behar duen horretan dauden aukerarik onenak aztertuz.

Internet zuen kompetentzia da?

Ez dugu hala ikusten. Konparatzaileetan bakarrik prezioa konparatzen da, baina benetan konparatu behar direnak estaldurak dira. Bestetik, kontratatu ondorengo zerbitzua eta kudeaketa aurrez aurre egiteko aukera ere kontuan izan behar dira. Gure lanaren atzean etengabeko formakuntza dago.

Asegurua kontratatzeke kontuan izan beharrekoak.

Hartzaile bakoitzaren beharren eta aseguru-motaren arabera aldatu egiten dira. Horregatik, ikuspegi orokorra, hausnarke-ta eta aholkularitza beharrezkoak dira.

Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida



ANTZUOLAKO JAIK

ZUZENEAN TXUPINAZOA HERRIKO PLAZATIK
UZTAILAREN 14AN, EGUENEAN, 19:30EAN

ZUZENEKOA

'JAIK' SAIO BEREZIA

UZTAILAREN 19AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

goiena
Zu hemen zaude.

